# IMMIGRAZIOARI BURUZKO
# II Euskal Plana
## 2007-2009

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

Vitoria-Gasteiz, 2007

Argitaraldia:

Ale-kopurua:

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azalaren diseinua: Diagonal M&P

Konposaketa: Diagonal M&P

Inprimaketa:

ISBN:

Lege-godailua:



# AURKEZPENA

Migrazio-fenomenoa gizakia bezain zaharra den arren, Espainiako Estatuan —eta baita Euskadin ere— emigrazioa izan zen nagusi 80ko hamarkadaren erdialdera arte. Garai hartan, ia bat-batean, ustegabean, immigrazio-herrialde bihurtu ziren ordea.

Migrazioak hainbat arrazoirengatik sortzen dira; hala nola, baldintza ekonomikoengatik, gatazka belikoengatik eta naturaren edo ingurumenaren hondamendiengatik.

Herritarrek emigratu egiten dute pobreziaren mugaren azpitik bizi direlako eta beste nonbaitera joaten dira bizimodu hobea bilatzeko itxaropenari eutsita. Adibidez, 1824. urtetik 1939. urtera bitarte, 60 milioi europar munduko beste zenbait tokitara joan ziren.

Globalizazioaren egungo testuinguruan, migrazioak egiturazkoak dira. Izan ere, herriak, gizarteak eta pertsonak hurbiltzen ditu globalizazioak, arlo ekonomikoan ez ezik, arlo politiko, sozial eta kulturalean ere, hori guztia garai hauetan, non alde batetik garraioan eta telekomunikazioetan egin diren aurrerapen handiek migrazio-mugimenduak errazten dituzten, eta bestetik, mugimendu horiek gero eta konplexuagoak diren.

Oinarrizko eskubideak baliatzeko aukera bermatuta ez dagoen planetako hainbat zonatan, garapenerako aukera urria dutenez, etorkizunerako aukera hobeak dituzten herrialdeetaranzko migrazioak areagotzen ari dira.

Bada zenbait urte garapen-maila txikiagoa duten herrialdeetako immigrazioa hartzen duen zonetako bat dela EAE, eta, bertan, etorkinen kopurua biztanleria osoaren % 4tik gorakoa da gaur egun.

Estatu espainoleko beste zona batzuekin alderatuta ehuneko hori oso handia ez den arren, euskal erakundeek Immigrazioari buruzko Politika koordinatu eta koherentea sendotzeko apustua egin dute, EAEn bizi diren etorkinak erabat integratzeko helburu nagusiarekin.

Politika hori garatuz, oztopo nagusi bat gainditu nahi da: azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarte-integrazioari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duena. Hain zuzen ere, 14/2003 Legeak kalteberatasun-egoerara bultzatzen ditu gure erkidegoan bizitzen jartzen diren etorkinak.

Immigrazioari buruzko Euskal Politika immigrazio-planetan oinarrituta egituratzen da. Immigrazioari buruzko 1. Plana, 2003tik 2005era arte indarrean egon zena, migrazioaren errealitatea administrazio publikoen eguneroko jardunean —zeharka edo espezifikoki— txertatzeko lehen ahalegina izan zen; horretaz gain, plan horren bidez, etorkinei zerbitzu publikoak (osasuna, hezkuntza, etab.) baliatzeko aukera emateko lehen urratsak egin ziren, bertako biztanleriaren baldintza berdinetan.

Era berean, plan horren ildotik, hainbat egitura eta baliabide sortu da, hala nola Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia, Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa, etorkinentzako Laguntza Sozio-juridikorako Programa (Heldu), Udal Mailako Harrera Sarea eta Kulturarteko Bitartekotza eta Hezkuntzarako Ekimen Komunitarioak Koordinatzeko Zentroa (Biltzen).

EAEko migrazio-errealitatea kudeatzeari eusteko asmoz, Immigrazioari buruzko II. Plana aurkeztuko dugu orain. Plan horrek Euskal Administrazio Publikoaren maila guztiak inplikatu ditu (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Tokiko Erakundeak), integrazioaren helburua lortzeko lanetan, eta horretarako, honako printzipio hauek hartu ditu oinarritzat: berdintasuna, erantzukizun publikoa eta erantzunkidetasun soziala, sexu-arrazoiengatiko diskriminaziorik eza, eta parte-hartzea.

Gure ustez, integrazioak honako oinarri hau izan behar du: elkarrekiko errespetua, eta bizikidetza-eredu adostuak eta gizabanako bakoitzaren eskubide eta betebeharrekin bat datozenak, haren jatorria edozein izanik ere.

Kultura guztiak berdintasunez garatzea sustatuko duen integrazioa, baita kulturen arteko erlazioko prozesu dinamikoa ere; prozesu hori aberasgarria izango da kultura guztientzat.

Etorkinak integratzeko erabakigarria da lan-merkaturako sarbidea izatea; horregatik, Immigrazioari buruzko II. Euskal Plan honetan zenbait neurri bildu ditugu ezkutuko edo kalitate txikiko enplegua eta lanpostu jakin batzuk etnizatzeko joera saihesteko, zeren atzerriko langileei kalte egiteaz gain, Zuzenbidezko Estatuaren funtsezko oinarrietako bat den gizarte-kohesiorako ere ez baita batere lagungarria.

Egoera horretan, kolektibo hori gizarteratu eta laneratzeko baliabide espezifikoak bideratu behar dira, eta horretarako, enplegu-politikak indartu eta etorkinen kolektiboa lan-merkatuan txertatzearen aldeko apustua egin behar da. Gizarteratu eta laneratzeko politika egokia lortzeko, zehatz-mehatz ezagutu behar da lan-merkatua; hain zuzen ere merkatu horren errealitatea, bilakaera eta eskaintzen dituen aukerak. Eta informazioko, orientazioko, prestakuntzako eta laneratzeko ibilbideak ere landu behar dira.

Etorkinak euskal gizartean integra daitezen lortzea da helburu nagusia, baina ez dugu ahaztu behar fenomeno hori hobeto kudeatzeko, fenomenoa eragin duten arrazoietara jo behar dela; horregatik, funtsezkoa da migrazioen jatorrizko herrialdeak eta harrerako herrialdeak oro har kontuan hartzen dituen ikuspegia txertatzea.

JAVIER MADRAZO LAVÍN
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburua
Eusko Jaurlaritza

# AURKIBIDEA

SARRERA . . . 11

I. DESKRIPZIO ZATIA . . . 13

1. IMMIGRAZIOA EAE-KO ERREALITATE GISA ETA AZKEN URTEOTAN IZAN DUEN BILAKAERA. . . . 14
2. EAE-KO BIZTANLERIA ETORKINAREN EZAUGARRIAK . . . 16
   - 2.1. EAE-KO BIZTANLERIA ETORKINAREN OSAERA . . . 16
     - 2.1.1. Biztanleria etorkinaren osaera, eremu geografikoen arabera . . . 17
     - 2.1.2. Osaera, nazionalitateen arabera . . . 18
     - 2.1.3. Biztanleria etorkinaren osaera, sexuaren arabera . . . 19
     - 2.1.4. Biztanleria etorkinaren osaera, adinaren arabera . . . 20
   - 2.2. ALDERDI EKONOMIKOAK ETA SOZIOKULTURALA. . . . 22
     - 2.2.1. Lan egoera . . . 22
     - 2.2.2. Hezkuntza sisteman sartzeko aukera . . . 26
     - 2.2.3. Osasun sistema baliatzeko aukera . . . 28
     - 2.2.4. Etxebizitza eskuratzeko aukera. . . . 29
   - 2.3. ARRISKU ETA KALTEBERATASUN EGOERAN DAUDEN TALDEAK . . . 29
3. EUSKAL GIZARTEAREN PERTZEPZIOA ETA JARRERAK. . . . 30
4. IMMIGRAZIOA ERAKUNDE ETA GIZARTE DINAMIKAN SARTZEA . . . 31
   - 4.1. ERAKUNDEEN ARLOARI DAGOKIONEZ . . . 31
     - 4.1.1. Autonomia Erkidegoaren eremua . . . 31
     - 4.1.2. Foru-eremua . . . 33
     - 4.1.3. Toki-eremua . . . 34
   - 4.2. GIZARTE ARLOARI DAGOKIONEZ . . . 34

LABURPENA . . . 36

II. ARAU ESPARRUA . . . 41

1. HITZAURREA: OINARRIZKO ESKUBIDEAK BABESTEKO NAZIOARTEKO SISTEMAREN PREMIA, MIGRAZIOEI DAGOKIENEZ . . . 42
2. KONSTITUZIOAREKIKO LOTURA . . . 43
3. NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ESPARRU JURIDIKOA: BATEZ ERE ASKATASUN, SEGURTASUN ETA JUSTIZIAKO GUNE BAT EGIAZ SORTZEA EUROPAN . . . 44
   - 3.1. NAZIOARTEKO ESPARRU JURIDIKOA . . . 44
     - 3.1.1. Oinarrizko eskubideen babesaren eremu unibertsala . . . 44
     - 3.1.2. Oinarrizko eskubideen babesaren eremu europarra . . . 45
   - 3.2 ERKIDEGOKO ESPARRU JURIDIKOA . . . 46
     - 3.2.1. EBren immigrazio-politiken egungo arau-egoera . . . 46
     - 3.2.2. Europako herritartasuna ezartzea, askatasun, segurtasun eta justiziako egiazko gunearen funtsezko adierazgarri gisa . . . 47
4. ESTATUKO ORDENAMENDU JURIDIKOA: ETORKINEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK . . . 49

5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMENAK ........ 51
6. IMMIGRAZIOARI BURUZKO II. EUSKAL PLANA ORDENAMENDU JURIDIKOAREKIN BAT ETORTZEA ........ 52

III. DEFINIZIO ZATIA ........ 55
1. HELBURUAK ........ 56
2. KONTZEPTUAK ........ 61
IMMIGRAZIOAREN KONTZEPTUA ........ 61
INTEGRAZIOAREN ETA KULTURARTEKOTASUNAREN KONTZEPTUA ........ 61
HERRITARTASUNAREN KONTZEPTUA ........ 62
IMMIGRAZIORI BURUZKO EUSKAL POLITIKAREN KONTZEPTUA ........ 63
3. PRINTZIPIO OROKORRAK ........ 64
BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA ........ 64
ERANTZUKIZUN PUBLIKOAREN ETA GIZARTE ERANTZUKIDETASUNAREN PRINTZIPIOA ........ 64
SEXU-ARRAZOIENGATIKO DISKRIMINAZIORIK EZAREN PRINTZIPIOA ........ 65
PARTE-HARTZEAREN PRINTZIPIOA ........ 66
4. PRINTZIPIO OPERATIBOAK ........ 66
INTEGRALTASUNAREN ETA ZEHARKAKOTASUNAREN PRINTZIPIOA ........ 67
NORMALIZAZIOAREN PRINTZIPIOA ........ 67
DESZENTRALIZAZIOAREN PRINTZIPIOA ........ 67
KOORDINAZIOAREN PRINTZIPIOA ........ 67

IV. ZATI OPERATIBOA ........ 69
1. ESKU-HARTZE ARLOAK ........ 70
1.1. ARLO INSTRUMENTALAK ........ 70
1.1.1. Erakunde antolamenduaren arloa ........ 70
1.1.2. Informazio arloa ........ 70
1.2. FUNTSEZKO ARLOAK ........ 70
1.2.1. Barne proiekzioko arloak ........ 71
1.2.1.1. Atzerritarren eskubide eta betebehar berdintasunaren ondoriozko eremua ........ 71
1.2.1.2. Gizarte hartzaileari batez ere bideratutako eremua ........ 72
1.2.2. Kanpo proiekzioaren arloa ........ 72
1.2.2.1. Lagundutako garapenaren arloa ........ 72
2. NORABIDEAK ETA NEURRIAK ........ 73
1. ARLOA. ERAKUNDE ANTOLAMENDUA ........ 73
2. ARLOA. INFORMAZIOA ........ 82
3. ARLOA. BERME JURIDIKOAK ........ 87
4. ARLOA. PARTE-HARTZEA ........ 91
5. ARLOA. LANA ........ 97
6. ARLOA. GIZARTERATZEA ETA GIZARTE BALIABIDEAK ........ 105
7. ARLOA. OSASUNA ........ 111
8. ARLOA. ETXEBIZITZA ........ 114

9. ARLOA. HEZKUNTZA ....... 117
10. ARLOA. KULTURARTEKOTASUNA ....... 122
11. ARLOA. ESKU-HARTZE OSAGARRIA ....... 125
12. ARLOA. SENTSIBILIZAZIOA ....... 138
13. ARLOA. LAGUNDUTAKO GARAPENA ....... 143

V. KUDEAKETA ....... 147
1. JARRAIPENA ....... 148
2. EBALUAZIOA ....... 149

# SARRERA

Immigrazioari buruzko I. Euskal Plana, 2003-2005 aldian indarrean egon zena, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu zuen 2003ko abenduan eta Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak eztabaidatu 2004ko apirilean.

Eztabaida hartan, Planaren printzipio orokorrei buruzko hainbat ebazpen onartu zituen Legebiltzarrak: etorkinak Euskal Autonomia Erkidegoaren ingurune sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalean integratzeko prozesua erraztea; hasierako harrera Gizarte Zerbitzu orokorrek egitea; erakunde eskudunek etorkinei oinarrizko zerbitzuak, aholkularitza, laguntza eta gizarte-laguntza emateko premia, etorkinen integrazio-prozesua erraztearren; etxebizitza eskuratzeko aukera errazteareen garrantzia; profesionalei immigrazioari buruzko prestakuntza ematea; kalteberatasunik handiena duten etorkinentzako programa espezifikoak sortzea; etab.

Kontsiderazio horiek kontuan hartuta, 2005ean, Euzko Alderdi Jeltzalea, Eusko Alkartasuna eta Ezker Batua Berdeak alderdi politikoek gobernua osatzeko koalizio-akordioa sinatu zutenean, (VIII. Legealdia) migrazio-politika bidezko eta aurrerakoia aipatu zuten, etorkinen gizarte- eta kultura-integrazioa lortzera bideratuko zena, etorkinen eskubideak eta betebeharrak bermatuz, herritarrak diren aldetik.

Akordio hartan, legealdi honetan Immigrazioari buruzko II. Plana lantzea aurreikusi zen, I. Planean bildutako neurriak sakondu eta zabaltzeko.

Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana egiteko lana izan da akordio haren emaitza. Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko ekainaren 12an onartu zuen, eta 2007tik 2009ra arte egongo da indarrean.

Plana hainbat ataletan egituratuta dago. Lehenengoa sarrera labur hau da.

Bigarren atala deskripzio-zatia da. Bertan, EAEko immigrazioaren errealitatea azaltzen da, baita Planean proposaturiko ekintzei ikuspegi egokia emateko behar diren datu estatistikoak ere. Datu horiek hainbat iturritatik lortu dira, eta Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) bildu, aztertu eta egituratu ditu.

Arau-esparrua da Immigrazioari buruzko Euskal Politika eratzeko legezko oinarria, betiere EAEri dagozkion eskumenen barnean. Hirugarren atalean deskribatzen da esparru hori.

Laugarren atalean definizioak landu dira. Planaren ardatza diren oinarrizko kontzeptuak ezartzen dira zehatz-mehatz. Besteak beste, honako kontzeptu hauek landu dira: immigrazioa, integrazioa, herritartasuna edo Immigrazioari buruzko Euskal Politika. Halaber, Planaren funtsezko printzipio ideologikoak ere definitu dira atal horretan: Berdintasuna, Erantzukizun Publikoa eta Gizarte Erantzukidetasuna, Sexu arrazoiengatiko Diskriminaziorik Eza, eta Parte-hartzea.

Bosgarren atala Planaren zati operatiboa da. 13 arlotan banatuta dago: erakunde antolamendua, informazioa, berme juridikoak, parte-hartzea, lan-arloa, gizarteratzea eta gizarte-baliabidea, osasuna, etxebizitza, hezkuntza, kulturartekotasuna, esku-hartze osagarria, sentsibilizazioa eta lagundutako garapena. Arlo bakoitzak hainbat helburu du (norabideak), eta helburu horiek lortzeko, ekintza espezifikoak (neurriak) proposatu dira. Guztira 60 norabide eta 259 neurri bildu dira.

Azken atala, berriz, Planaren jarraipenaren eta ebaluazioaren koordinazioari buruzkoa da. Bertan, prozesu horiek zehatz-mehatz azaldu dira, baita proiektuak gauzatzeko behar diren egiturak ere.



# 1. Deskripzio zatia

# 1. DESKRIPZIO ZATIA

## 1. IMMIGRAZIOAREN EAE-KO ERREALITATEA ETA AZKEN URTEOTAN IZAN DUEN BILAKAERA

Bere historia modernoaren zati handi batean, euskal gizartea emigratzaileen igorlea izan da; halaber, Estatuaren barneko immigrazio handia hartu du. Beraz, migrazioa funtsezkoa izan da gure gizartean.

Euskal biztanleriak migrazio-saldo negatiboak izan zituen laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan. Joera hori 1997an hasi zen aldatzen, gure erkidegoa gero eta atzerritar gehiago hartzen hasi zenean. Immigrazio berri hori Estatu espainolean baino geroxeago finkatu da EAEn. Zifrak ere txikiagoak dira, nola balio absolututan hala erlatiboetan.

EAEn 1998an zeuden atzerritarren bolumenaren arabera, eta bilakaera kontuan izanik, Estatu espainolean hazkunde txikia izan duten autonomia erkidegoen artekoa da gurea. Esan genezake kantabriar eredua dugula, Asturias eta Galiziarekin batera.

*1. taula. Atzerritarren kanpoko migrazio-saldoak lurraldearen eta aldiaren arabera*

| | 1991-1996 | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | Total |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoa | 1.551 | 414 | 375 | 734 | 939 | 1.612 | 1.723 | 1.861 | 2.154 | 3.388 | 14.751 |
| Araba | 806 | 398 | 476 | 895 | 1.620 | 2.596 | 2.517 | 2.401 | 3.188 | 3.308 | 18.205 |
| Bizkaia | 1.649 | 612 | 1.061 | 1.533 | 3.993 | 5.933 | 6.012 | 6.947 | 8.108 | 9.601 | 45.449 |
| EAE | 4.006 | 1.424 | 1.912 | 3.162 | 6.552 | 10.141 | 10.252 | 11.209 | 13.450 | 16.297 | 78.405 |

*Iturria: Ikuspegik egina, Eustaten datuetan oinarrituta*

Hala ere, azken urteotan immigrazioa sei aldiz biderkatu da Araban, bost aldiz Bizkaian eta lau aldiz Gipuzkoan.

2006ko hasieran, Arabako ehun biztanletik gutxienez sei ziren atzerritar jatorrikoak. Gipuzkoan eta Bizkaian lau baino gutxiago ziren. Dena den, EAEko atzerritar biztanleriaren erdia Bizkaian bizi da; gainerakotik, % hogeita hamar Gipuzkoan bizi dira eta % hogei Araban.

1998an, Estatu espainoleko atzerritar immigrazioaren % 2,4 zegoen EAEn; 2006an, berriz, kopuru hori % 2ra jaitsi da. Horregatik, EAEko atzerritarren ehunekoa Estatuko txikienetakoa da oraindik ere, eta barne-ikuspuntutik hazkunde handitzat har daitekeena, besteekin alderatuta eta kanpo-ikuspuntutik ez da hain handia. EAEko biztanleria Espainiako osoaren % 4,8 da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den atzerritar biztanleria Estatuan bizi denaren % 2 da.

*2. taula. Autonomia Erkidegoak, atzerritarren hazkunde modalitatearen (indize-zenbakitan) arabera eta atzerritar immigrazioaren guztizkoaren arabera taldekatuak. 1998-2006*

| AUT. ERK. TALDEKATUAK | Guztira | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ESPAINIAKO BATEZ BESTEKOA | 637.085 | 100 | 118 | 145 | 215 | 311 | 418 | 476 | 586 | 650 |
| HAZKUNDE HANDIA | | | | | | | | | | |
| Murtziako Eskualdea | 11.916 | 100 | 145 | 220 | 465 | 701 | 956 | 1116 | 1385 | 1587 |
| Aragoi | 7.846 | 100 | 114 | 154 | 320 | 561 | 789 | 988 | 1234 | 1343 |
| Errioxa | 2.539 | 100 | 131 | 173 | 323 | 602 | 810 | 984 | 1224 | 1380 |
| Gaztela-Mantxa | 15.121 | 100 | 104 | 141 | 283 | 488 | 720 | 902 | 1169 | 1347 |
| Nafarroako Foru Erkidegoa | 4.313 | 100 | 138 | 213 | 452 | 712 | 898 | 1006 | 1157 | 1286 |
| HAZKUNDE ERTAINA. ERKIDEGO BERRIAK | | | | | | | | | | |
| Kantabria | 3.147 | 100 | 110 | 136 | 217 | 328 | 435 | 520 | 653 | 757 |
| Extremadura | 4.082 | 100 | 183 | 213 | 285 | 371 | 438 | 492 | 621 | 673 |
| Gaztela eta Leon | 9.854 | 100 | 106 | 122 | 176 | 282 | 393 | 472 | 604 | 702 |
| HAZKUNDE ERTAINA. ERKIDEGO FINKATUAK | | | | | | | | | | |
| Madrilgo Erkidegoa | 115.202 | 100 | 117 | 144 | 265 | 386 | 512 | 577 | 678 | 695 |
| Katalunia | 121.361 | 100 | 119 | 150 | 212 | 315 | 447 | 530 | 658 | 753 |
| Valentziako Erkidegoa | 102.118 | 100 | 128 | 153 | 195 | 295 | 405 | 455 | 570 | 654 |
| HAZKUNDE TXIKIA. ERKIDEGO FINKATUA | | | | | | | | | | |
| Andaluzia | 99.871 | 100 | 110 | 129 | 164 | 213 | 283 | 322 | 421 | 490 |
| HAZKUNDE TXIKIA. KANTAURI ALDEKO ERKIDEGOAK | | | | | | | | | | |
| Euskal Autonomia Erkidegoa | 15.198 | 100 | 111 | 139 | 181 | 253 | 324 | 389 | 480 | 563 |
| Asturias | 6.029 | 100 | 100 | 130 | 180 | 246 | 327 | 372 | 445 | 502 |
| Galizia | 19.693 | 100 | 111 | 130 | 168 | 216 | 273 | 297 | 352 | 375 |
| HAZKUNDE TXIKIA. UHARTEEN GARRANTZIAREN BIRMOLDAKETA | | | | | | | | | | |
| Balear Uharteak | 38.093 | 100 | 118 | 144 | 193 | 262 | 332 | 345 | 410 | 440 |
| Kanariak | 55.218 | 100 | 114 | 140 | 196 | 259 | 325 | 337 | 403 | 423 |

| AUT. ERK. TALDEKATUAK | Guztira | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ESPAINIA | 637.085 | 637.085 | 748.953 | 923.879 | 1.370.657 | 1.977.946 | 2.664.168 | 3.034.326 | 3.730.610 | 4.144.166 |
| HAZKUNDE HANDIA | 41.735 | 6,6 | 6,9 | 7,6 | 9,8 | 10,9 | 11,1 | 11,5 | 11,6 | 12,5 |
| ERTAINA. BERRIAK | 17.083 | 2,7 | 2,8 | 2,9 | 3,4 | 3,7 | 3,8 | 4,1 | 4,3 | 3,8 |
| ERTAINA, FINKATUA | 338.681 | 53,2 | 54,6 | 54,5 | 55,6 | 57,0 | 58,0 | 58,4 | 57,9 | 57,5 |
| TXIKIA, FINKATUA | 99.871 | 15,7 | 14,7 | 14,0 | 12,0 | 10,7 | 10,6 | 10,6 | 11,3 | 11,8 |
| KANTAURI ALDEKOA | 40.920 | 6,4 | 6,0 | 5,9 | 5,2 | 4,8 | 4,6 | 4,6 | 4,5 | 4,6 |
| UHARTEAK | 93.311 | 14,6 | 14,4 | 14,3 | 13,2 | 12,3 | 11,5 | 10,5 | 10,1 | 9,7 |
| Hiri autonomoak | 5.484 | 0,9 | 0,6 | 0,8 | 0,7 | 0,5 | 0,4 | 0,3 | 0,2 | 0,2 |
| | [100] | [100] | [100] | [100] | [100] | [100] | [100] | [100] | [100] | [100] |

*Iturria: Ikuspegik egina, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleriaren Errolda Jarraituko datuetan oinarrituta*

# 2. EAE-KO BIZTANLERIA ETORKINAREN EZAUGARRIAK

## 2.1 EAE-KO BIZTANLERIA ETORKINAREN OSAERA

2006ko urtarrilaren lean, 85.542 etorkin atzerritar zeuden erroldatuta EAEn. Zentzuzko proiekzioa eginez, kalkula daiteke 2008rako 100.000tik gora izango direla.

Erroldatuta zeuden etorkin horietatik, 64.000 baino gehiago zeuden administrazio egoera erregularizatuan. Hain zuzen ere, egoera erregularizatuan daudenen kopurua % 400 hazi da 1998-2006 aldian. Hortaz, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden atzerritarren % 70 erregularizatuta dago.

*3. taula. Pertsona erroldatuak, erregularizatuak, eta erregularizazio-indizea*

| | Erroldatuak | Egoitza-baimena | Erregularizazio-indizea |
|---|---|---|---|
| 1998 | 15.198 | 15.647 | 1,02 |
| 1999 | 16.794 | 16.995 | 1,01 |
| 2000 | 21.140 | 18.622 | 0,88 |
| 2001 | 27.438 | 18.822 | 0,68 |
| 2002 | 38.408 | 19.515 | 0,50 |
| 2003 | 49.231 | 24.201 | 0,49 |
| 2004 | 59.166 | 28.600 | 0,48 |
| 2005 | 72.767 | 37.150 | 0,51 |
| 2006 | 85.542 | 57.395 | 0,67 |

*Iturria: Ikuspegik egina, EINen eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren datuetan oinarrituta.*

### 2.1.1. Biztanleria etorkinaren osaera, eremu geografikoen arabera

Eremu geografiko handien arabera atzerritar biztanleriak duen osaerari dagokionez, nazionalitateen ordezkapen prozesu bat ikusten da. Honako hauek dira aldaketarik nabarmenenak:

1. Atzerritar immigrazioa guztira bost aldiz baino gehiago hazi zen (% 517), eta batezbesteko hazkunde horren gainetik Latinoamerikako eta Erkidegotik kanpoko Europako biztanleria daude soilik. Lehenak batezbestekoa bikoiztu du (% 1.056 hazi da), eta Erkidegotik kanpoko europarrak hirukoiztu egin du (% 1.678).
2. Zifra absolutuetan, latinoamerikar jatorriko egoiliarrak 4.000 ziren 1998an eta 2006an 42.000 baino gehiago dira.
3. Interesgarria da hiru Europek duten martxa desberdina azaltzea. Komunitarioaren ekarpen absolutua bikoiztu egin da. Hala ere, 1998an atzerritarren % 44,3 izatetik 2006an % 17,1 izatera pasa dira. 25 herrialdera zabaldutako Europaren ekarpena oso txikia da, % 1. Erkidegotik kanpoko Europa ia 17 aldiz biderkatu da aldi horretan; izan ere, aldi horren hasieran bertakoak ziren atzerritar guztien % 3,3; eta 2006an % 11. Europar guztiak kontuan hartuta, EAEn bizi den atzerritar biztanleriaren % 29 dira.
4. Afrikako biztanleriak bost aldiz biderkatu du bere ekarpena, baina ehuneko indarra bere horretan gelditu da; hain zuzen ere, guztizkoaren % 16,7 da (% 11,3 magrebtar biztanleria da, eta % 5,4 Afrikako gainerako biztanleria). Gauza bera esan daiteke Asiako biztanleriari buruz. Txinatar jatorrikoak % 2,7 dira eta % 2,3 Asiako gainerako nazionalitatekoak dira.

*4. taula. Atzerritar biztanleriaren bilakaera, zifra absolutuetan, indize-zenbakietan eta guztizkoaren proportzioan, eremu geografikoen arabera. 1999 eta 2006*

| | Biztanleria | 1999 indizea | Immigrazioaren %-a | Biztanleria | 2006 indizea | Immigrazioaren %-a |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 15ekoen EB | 7.333 | 100 | 44,3 | 14.666 | 200 | 17,1 |
| 25eko EBrako zab. | 216 | 100 | 1,3 | 751 | 348 | 0,8 |
| Gainerako Europa | 549 | 100 | 3,3 | 9.210 | 1.678 | 10,7 |
| Europa guztira | 8.098 | 100 | 48,9 | 24.627 | 304 | 28,7 |
| Magreb | 1.966 | 100 | 11,8 | 9.650 | 491 | 11,3 |
| Gainerako Afrika | 950 | 100 | 5,7 | 4.595 | 484 | 5,3 |
| Afrika guztira | 2.916 | 100 | 17,6 | 14.945 | 489 | 16,6 |
| AEB eta Kanada | 577 | 100 | 3,4 | 740 | 128 | 0,8 |
| Latinoamerika | 3.934 | 100 | 23,7 | 41.561 | 1.056 | 48,5 |
| Amerika guztira | 4.511 | 100 | 27,2 | 42.301 | 938 | 49,4 |
| Txina | 487 | 100 | 2,9 | 2.308 | 474 | 2,6 |
| Gainerako Asia | 476 | 100 | 2,8 | 1.948 | 409 | 2,2 |
| Asia guztira | 963 | 100 | 5,8 | 4.256 | 442 | 4,9 |
| Ozeania | 66 | 100 | 0,3 | 113 | 171 | 0,1 |
| Aberrigabeak | 3 | 100 | 0,0 | 0 | 0 | 0,0 |
| Guztira | 16.557 | 100 | 100 | 85.542 | 517 | 100 |

*Iturria: Ikuspegik egina, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Errolda Jarraituko datuetan oinarrituta*

Laburbilduz, ikus daitekeenez, Europako jatorria duten etorkinen kopurua jaitsi egin da, Afrikakoa bere horretan gelditu da, Asiakoak beheranzko joera du, eta Latinoamerikakoa igo egin da. Lurralde historikoen arabera, ikusten da Bizkaian Latinoamerikar gehiago daudela, Araban magrebtar gehiago, eta, gehiengoa ez diren arren, Europako jatorria dutenak egonkortu egin dira Gipuzkoan.

### 2.1.2. Osaera, nazionalitateen arabera

Atzerritar etorkinen kopurua haztearekin batera, etorkinen jatorrien aniztasuna ere hazi da. Aipatu beharreko lehen datua honako hau da: egoiliarren artean gero eta handiagoa da nazionalitateen aniztasuna.

EAEn bizi direnen hogei nazionalitate nagusiei dagokienez, bederatzi Latinoamerikakoak dira, hiru Afrikakoak (horietako bi Magrebekoak), bost Erkidegoko Europakoak, bat Erkidegotik kanpoko Europakoak eta beste bat Asiakoa. Azkenik, Estatu espainola ere kontuan hartu da, bertan atzerriko nazionalitatea duten haurrak ere jaiotzen direlako.

*5. taula. EAEko hogei nazionalitate nagusiak, sexuaren arabera, nazionalitatearekiko proportzioa eta immigrazio guztiarekiko proportzioa. 2006 (%)*

| Nazionalitateak | Etorkinak Guztira 85.542 | Nazionalitatearen %-a | % metatua | Gizonak (43.494) | Gizonen %-a (50,8) | Emakumeak (42.048) | Emakumeen %-a (49,2) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kolonbia | 11.041 | 12,9 | | 4.378 | 39,6 | 6.663 | 60,3 |
| Ekuador | 7.604 | 8,8 | 21,7 | 3.417 | 44,9 | 4.187 | 55,1 |
| Maroko | 7.097 | 8,2 | 30,1 | 4.990 | 70,3 | 2.107 | 29,6 |
| Errumania | 6.045 | 7,1 | 37,1 | 3.068 | 50,7 | 2.977 | 49,2 |
| Bolivia | 5.922 | 6,9 | 44,1 | 2.155 | 36,3 | 3.767 | 63,6 |
| Portugal | 5.564 | 6,5 | 50,5 | 3.634 | 65,3 | 1.930 | 34,6 |
| Brasil | 3.805 | 4,4 | 55,0 | 1.100 | 28,9 | 2.705 | 71,1 |
| Argentina | 3.472 | 4,1 | 59,1 | 1.779 | 51,2 | 1.693 | 48,7 |
| Espainia | 3.456 | 4,0 | 63,1 | 1.797 | 51,9 | 1.659 | 48,0 |
| Txina | 2.308 | 2,6 | 65,8 | 1.295 | 56,1 | 1.013 | 43,8 |
| Aljeria | 2.204 | 2,5 | 68,4 | 1.560 | 70,7 | 644 | 29,2 |
| Frantzia | 1.733 | 2,0 | 70,4 | 924 | 53,3 | 809 | 46,6 |
| Kuba | 1.593 | 1,8 | 72,2 | 572 | 35,9 | 1.021 | 64,1 |
| Peru | 1.579 | 1,8 | 74,1 | 724 | 45,8 | 855 | 54,1 |
| Venezuela | 1.351 | 1,5 | 75,7 | 581 | 43,0 | 770 | 56,9 |
| Erresuma Batua | 1.304 | 1,5 | 77,2 | 802 | 61,5 | 502 | 38,4 |
| Paraguai | 1.124 | 1,3 | 78,5 | 320 | 28,4 | 804 | 71,5 |
| Dominikar Errepublika | 1.123 | 1,3 | 79,8 | 338 | 30,1 | 785 | 69,9 |
| Senegal | 1.057 | 1,2 | 81,1 | 945 | 89,4 | 112 | 10,5 |
| Alemania | 998 | 1,1 | 82,2 | 578 | 57,9 | 420 | 42,1 |
| Guztira | 70.380 | 82,2 | 82,2 | 34.957 | 49,6 | 35.423 | 5 |
| Gainerako nazionalitateak | 15.162 | 17,7 | 100 | 8.537 | 56,3 | 6.625 | 43,6 |

*Iturria: Ikuspegik egina, EINen Errolda Jarraituko datuetan oinarrituta*

EAEn bizi den atzerriko biztanleria etorkinaren % 82 baino gehiago biltzen dute hogei nazionalitate horiek. Datu horiek kontuan izanik, aditzera eman behar da orain dela zortzi urte nagusitzen ez ziren nazionalitate berriak agertu direla (Kolonbia, Ekuador, Errumania eta Bolivia), Marokoar, Portugaldar eta Argentinar jatorrikoak adierazgarrienetakoak direla oraindik ere, eta Europako Erkidegoko nazionalitateek garrantzia galdu dutela.

Errumaniako eta Bulgariako jatorria dutenen kasua berezia da Europan; izan ere, 2007ko urtarrilaren laz geroztik, Europar Batasunean sartu zirenetik alegia, atzerritartasunari buruzko Erkidegoko erregimena guztiz balia dezakete. Bereziki aipatu behar da Errumaniar jatorrikoen kasua; izan ere, gaur egun EAEko bosgarren nazionalitatea da errumaniarra, bolumenari dagokionez.

Laburbilduz, nazionalitateek eta euren pisuak honako hauek berresten dituzte: Europakoen eta Afrikakoen ordez Latinoamerikakoak nagusitu dira; magrebtarren kopuruan apenas egon da aldaketarik, zertxobait jaitsiaz; eta jatorrien aniztasuna areagotu egin da.

Bestalde, Errumania eta Bulgaria Europar Batasunean sartu izanak azken urteotako joera orekatu du; izan ere, ordura arte Europako Erkidegotik kanpoko biztanleria etorkina gehitu eta Erkidegokoa gutxitu egiten zen.

Gaur egun, 160 herrialde baino gehiagotako nazionalak bizi dira EAEn.

### 2.1.3. Biztanleria etorkinaren osaera, sexuaren arabera

Azken migrazioetan ikusi denez, migrazioen feminizazioa gero eta handiagoa da. Ildo horretan, generoa gero eta garrantzitsuagoa da migrazioen ikuspegian, eta dagoeneko ezin da argudiatu emakumeen migrazioen arrazoi bakarra senarrei jarraitzea denik; era berean, ezin da jakin emakumeak gizarte hartzailean zer egoera duen gizon etorkinen egoera soilik aztertuta.

*6. taula. EAEko nazionalitate nagusien feminizazio-indizea, emakumeen edo gizonen arteko nagusitasun, gehiengo edo orekaren arabera. 2006 (%)*

| Feminizazio-tasa, nazionalitateen eta tipologien arabera | | | | |
|---|---|---|---|---|
| % 30 | % 45 | % 55 | % 70 | % 100 |
| Gizonen nagusitasuna (% 30 baino gutxiago) | Gizonen gehiengoa (% 30-% 44,9) | Oreka (% 45-% 54,9) | Emakumeen gehiengoa (%55-% 69,9) | Emakumeen nagusitasuna (% 70 eta gehiago) |
| Maroko [29,7] | Angola [41,6] | Ekuador [54,8] | Dominikar Errepublika [69,9] | Ekuatore Ginea [71,2] |
| Aljeria [29,2] | Bulgaria [44,1] | Peru [54,1] | Errusia [65,9] | Brasil [71,1] |
| Ginea-Bissau [24,8] | Txina [43,9] | Polonia [54,0] | Kuba [64,1] | Paraguai [71,5] |
| Ghana [11,1] | Alemania [42,1] | Urugai [49,7] | Bolivia [63,6] | |
| Senegal [10,6] | Nigeria [41,3] | Errumania [49,2] | Filipinak [61,0] | |
| Pakistan [5,1] | Belgika [41,1] | Argentina [48,8] | Mexiko [61,5] | |
| | Erresuma Batua [38,5] | Txile [48,5] | Kolonbia [60,3] | |
| | Kamerun [37,2] | Francia [46,7] | Ukrania [57,7] | |
| | Irlanda [37,0] | AEB [46,3] | Venezuela [57,0] | |
| | Mauritania [34,9] | | Ekuador [55,1] | |
| | Portugal [34,7] | | | |
| | Herbehereak [34,7] | | | |
| | Italia [32,0] | | | |
| Gainerako herrialdeetakoen feminizazio-indizea [43,7]<br>EAEko atzerritarren feminizazio-indizea [49,2] | | | | |

*Iturria: Ikuspegik egina, EINen Errolda Jarraituko datuetan oinarrituta*

Nazionalitatearen eta feminizazioaren arteko loturaren arabera, eta EAEko berrogei nazionalitate nagusiak kontuan izanik, betiere nazionalitate bakoitzeko emakumeek duten indarrean oinarriturik, bost egoera bereizi ditugu: gizonen nagusitasuna (emakumeak % 30 baino gutxiago dira), gizonen gehiengoa (emakumeak % 30-% 44,9 artean daude), oreka (emakumeak % 45-% 54,9 artean dira), emakumeen gehiengoa (emakumeak % 56-% 69,9 artean dira) eta emakumeen nagusitasuna (emakumeak % 70 baino gehiago dira).

Eta honako emaitza hauek lortu ditugu:

1. Nazionalitate gehiagotan dira nagusi gizonak. Emakumeen nagusitasunaren kategorian, hau da, emakumeak % 70 baino gehiago diren kategorian, hiru herrialde besterik ez daude; gizonen nagusitasunaren kategorian, berriz, sei.
2. Dena den, emakumeen gehiengoaren egoera nabarmendu behar da; izan ere, egoera horrek erakusten dizkigu migrazioen arloan gertatzen ari den aldaketaren zantzuak. EAEri dagokionez, hain zuzen ere, Latinoamerikako emakumeak oreka egoeran edo gehiengoan daude argi eta garbi, batez ere Kolonbia, Ekuador eta Boliviako emakumeak.
3. Oreka egoeran dauden Latinoamerikako nazionalitateek aspaldiagoko immigrazioa dute oro har, Argentinako eta Txileko immigrazioak, esate baterako. Latinoamerikako immigrazioa izan da betidanik feminizatuena. Alabaina, Ukrainiako eta Errusiako immigrazioa kontuan hartzekoa da, feminizazio-indize handia du-eta, baita Filipinetakoak ere.
4. Aldiz, emakume gutxien ekarri duten immigrazioak magrebtarra eta afrikarra dira oraindik ere, baita Asiatik etorritako azkena ere, batez ere Pakistangoa.

### 2.1.4. Biztanleria etorkinaren osaera, adinaren arabera

EAEn bizi den atzerritar biztanleria oso gaztea da. Gaztetasun-indizea bertako eta atzerriko pertsonei aplikatuz gero, 20 urtetik beherako biztanleria 60 urtetik gorako biztanleriaz zatikatuta, honako emaitza hau lortuko dugu: bertakoen artean 60 urtetik goragoko bakoitzeko 20 urtetik beherako 0,66 biztanle daude; etorkinen artean, berriz, gazteen kopurua 5,48 da.

*7. taula. EAEko bertako eta atzerritar biztanleriaren gaztetasun-indizea. 2006*

| Adina | Bertakoak | Atzerritarrak |
|---|---|---|
| 20tik beherakoak | 337.577 | 16.393 |
| 60tik gorakoak | 509.326 | 2.991 |
| Gaztetasun-indizea | 0,66 | 5,48 |

*Iturria: Ikuspegik egina, EINen Errolda Jarraituko datuetan oinarrituta.*

2006ko urtarrilaren lean, atzerritarren % 84,3k 45 urte baino gutxiago zituen. Hortaz, biztanleria hori izugarri gaztea da eta lanerako adinean dago. Halaber, adingabeen kopurua ere nabarmen igo da: 15 urtetik beherakoen kopurua hiru puntuz hazi da azken sei urteotan, guraso atzerritarrek EAEn seme-alabak izan dituztelako.

Datu horiek garbi erakusten dute bertakoen eta etorkinen adin-egitura desberdina dela. Horri dagokionez, honako adin-piramide hauek oso adierazgarriak dira.

*1. grafikoa. Adin-piramideak. 2006*

*1.1. Biztanleria atzerritarra*




*1.2. Bertako biztanleria*




*Iturria: Ikuspegik egina, EINen Errolda Jarraituko datuetan oinarrituta.*

Egitura desberdin horrek adierazten duenez, bertako biztanleriaren zahartzea ez da atzerriko gazteriaren ekarpenarekin orekatzen, modu sinplistan maiz hori esaten den arren.

*2. grafikoa. Atzerritarren ekarpena EAEko adin-piramidean. 2005*




*Iturria: Ikuspegik egina, EINen Errolda Jarraituko datuetan oinarrituta.*

Bertakoen eta etorkinen biztanleriaren adin-piramideek argi eta garbi erakusten dute osaera desberdina dutela. Esate baterako, bertakoen piramideak populazioa nabarmen zahartzen ari dela adierazten du; biztanleria etorkinarenak, berriz, bere motibazioaren ezaugarri nagusia ematen du aditzera: motibazio ekonomikoa. Izan ere, atzerritar biztanle gehienek lan-arloarekin dute lotura, eta ezaugarri horrekin zerikusia duten adin-tarteak nagusiak dira erabat.

*8. taula. Guztizko biztanleriaren —bertakoa eta atzerrikoa— adin-egitura. Zenbaki absolutuak eta erlatiboak.*

| Adinak | Guztira 2.133.684 | Bertakoak 2.048.142 | Atzerritarrak 85.542 | Guztizk. %-a 100 | Bertakoen %-a 100 | Atzerr. %-a 100 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0-4 | 95.764 | 92.497 | 3.267 | 4,49 | 4,52 | 3,82 |
| 05-09 | 85.836 | 81.806 | 4.030 | 4,02 | 3,99 | 4,71 |
| 10-14 | 81.230 | 77.067 | 4.163 | 3,81 | 3,76 | 4,87 |
| 15-19 | 91.140 | 86.207 | 4.933 | 4,27 | 4,21 | 5,77 |
| 20-24 | 121.651 | 112.597 | 9.054 | 5,70 | 5,50 | 10,58 |
| 25-29 | 167.997 | 153.643 | 14.354 | 7,87 | 7,50 | 16,78 |
| 30-34 | 181.378 | 167.640 | 13.738 | 8,50 | 8,18 | 16,06 |
| 35-39 | 174.205 | 163.341 | 10.864 | 8,16 | 7,98 | 12,70 |
| 40-44 | 173.781 | 166.058 | 7.723 | 8,14 | 8,11 | 9,03 |
| 45-49 | 164.786 | 159.567 | 5.219 | 7,72 | 7,79 | 6,10 |
| 50-54 | 144.187 | 140.821 | 3.366 | 6,76 | 6,88 | 3,93 |
| 55-59 | 139.412 | 137.572 | 1.840 | 6,53 | 6,72 | 2,15 |
| 60-64 | 119.030 | 118.004 | 1.026 | 5,58 | 5,76 | 1,20 |
| 65-69 | 98.623 | 97.914 | 709 | 4,62 | 4,78 | 0,83 |
| 70-74 | 106.540 | 106.051 | 489 | 4,99 | 5,18 | 0,57 |
| 75-79 | 86.834 | 86.478 | 356 | 4,07 | 4,22 | 0,42 |
| 80-84 | 58.150 | 57.964 | 186 | 2,73 | 2,83 | 0,22 |
| 85 eta gehiago | 43.140 | 42.915 | 225 | 2,02 | 2,01 | 0,26 |

*Iturria: Ikuspegik egina, Errolda Jarraituko datuetan oinarrituta. EIN.*

Era berean, EAEn jaiotako atzerritar biztanleria, 0tik 4 urtera bitartekoa, hazten ari da, eta, beraz, piramidearen oinarria zabalduko du pixkanaka. Adin-tarte horretako bertako biztanleria ere hazten hasia da, baina etorkina baino hein txikiagoan.

Esate baterako, atzerritar biztanleriaren adinen araberako banaketak (8. taula) aditzera ematen duenez, atzerritar jatorriko gizonen eta emakumeen adinaren araberako banaketa berdina edo oso antzekoa da, eta 60 urtetik gorakoen artean emakumeak dira nagusi. Atzerritar biztanleriaren % 18,8 hogei urtetik beherakoa da, eta 55 urtetik gorako atzerritar biztanleria guztizkoaren % 6 da gaur egun.

Horrenbestez, EAEko adin-piramideari egiten zaion ekarpenik handiena 20-54 adin tartekoena da, tarte horretakoa baita Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritar guztien % 75.

## 2.2. ALDERDI EKONOMIKOAK ETA SOZIOKULTURALAK

### 2.2.1. Lan egoera

**Egoitza-baimenak**

2006ko abenduaren 31n 3.021.808 atzerritarrek zuten egoitza-txartela Estatu espainolean; horietatik, 64.228 EAEn bizi ziren. Zifra hori kontuan izanik, esan daiteke atzerritarren % 70 inguru erroldatuta dagoela.

2004ko zifrekin alderatuta, datuek honako hau adierazten dute: atzerritarrak gizarteratzeko prozesu normalizatuagoari heldu zaio berriz, eta 2005eko erregularizazio-prozesuaren eta immigrazioa tratatzeko eran izandako nolabaiteko irekieraren ondorioz, erregularizatuta dauden atzerritarren kopurua nabarmen igo da. Hain zuzen ere, egoitzako txartel edo baimenen bat dutenen kopurua % 73 igo da EAEn, % 71 Bizkaian,

eta Gipuzkoan, berriz, bikoiztu egin da. Araban, hazkundea txikiagoa izan da: % 48,4.

*9. taula. Egoitza-txartela duten atzerritarrak, EAEn. 2004ren eta 2006ren arteko aldea eta aldi horretako ehunekoaren igoera. (Abenduaren 31ko datuak)*

| | 31.12.2004 | 31.12.2006 | Igoera (%) |
|---|---|---|---|
| Araba | 10.063 | 14.934 | 48,4 |
| Bizkaia | 18.810 | 32.187 | 71,1 |
| Gipuzkoa | 8.277 | 17.107 | 106,7 |
| EAE | 37.150 | 64.228 | 72,9 |

*Iturria: Ikuspegik egina, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren datuetan oinarrituta.*

Egoitza-erregimenaren arabera, 2006ko abenduaren amaieran, 43.903 atzerritar (guztien % 68,4) zeuden erregimen orokorraren barnean hartuta, eta 20.325 (% 31,6) Erkidegoaren erregimenean; erregimen horretan Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetako nazionalak eta haien familiak sartzen dira, baita espainiarren ahaideak diren Erkidegotik kanpoko jatorria dutenak ere.

Erregimen orokorraren barnean hartutako atzerritarren kopurua % 104 igo da 2004ko amaierako datuekin alderatuta (21.524tik 43.903ra); Erkidegoko erregimenaren barnean hartutakoen kopurua, berriz, askoz gutxiago igo da, % 30, hain zuzen ere: Europako Esparru Ekonomikokoen egoiliar erregularizatuen kopurua 15.626tik 20.325era igaro da.

Erregimen orokorraren barnean hartutako etorkinen kopuruaren hazkundea izugarria izan da Gipuzkoan, % 188-a. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Bizkaian ere handia izan da (% 104 eta % 108, hurrenez hurren).

Horren ondorioz, orain dela gutxi arte gehienak egoitza-txartela edo egoitza-baimena duten Erkidegoko Erregimenekoak ziren arren, biztanleria etorkina finkatzen den heinean, bere egoera erregularizatuz, erregimen modalitateak atzerritartasunaren errealitatera gehiago egokituko dira.

*10. taula. Egoitza-txartela duen EAEko atzerritar biztanleriaren bilakaera, erregimenaren eta lurralde historikoaren arabera. 2004-2006 aldiko hazkundea (%)*

| | Data: 2004/12/31 | 2004ko guztizkoaren %-a | Data: 2006/12/31 | 2006ko guztizkoaren %-a | 2004-2006: hazkundea (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 10.063 | 27,1 | 14.934 | 34,0 | 48 |
| Erregimen orokorra | 7.332 | 19,7 | 11.287 | 25,7 | 54 |
| Erkidegoko erregimena | 2.731 | 7,4 | 3.647 | 8,3 | 34 |
| Gipuzkoa | 8.277 | 22,3 | 17.107 | 39,0 | 107 |
| Erregimen orokorra | 3.884 | 10,5 | 11.199 | 25,5 | 188 |
| Erkidegoko erregimena | 4.393 | 11,8 | 5.908 | 13,5 | 35 |
| Bizkaia | 18.810 | 50,6 | 32.187 | 73,3 | 71 |
| Erregimen orokorra | 10.308 | 27,7 | 21.417 | 48,8 | 108 |
| Erkidegoko erregimena | 8.502 | 22,9 | 10.770 | 24,5 | 27 |
| EAE | 37.150 | 100,0 | 64.228 | 146,3 | 73 |
| Erregimen orokorra | 21.524 | 57,9 | 43.903 | 100,0 | 104 |
| Erkidegoko erregimena | 15.626 | 42,1 | 20.325 | 46,3 | 30 |

*Iturria: Ikuspegik egina, Barne Ministerioaren datuetan oinarrituta.*

*3. grafikoa. Egoitza-txartela duen atzerritar immigrazioaren osaera Lurralde Historikoetan eta EAEn, eremu geografikoen arabera. 2006. (%)*




*Iturria: Ikuspegik egina, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren datuetan oinarrituta*

Hain zuzen ere, 3. grafikoak errealitate horren zati bat adierazten du, bai gure erkidegoko guztizkoari dagokionez, baita lurralde historikoei dagokienez ere, eta erroldatuta daudenen nahiz egoitza-baimena dutenen arteko desoreka bazter utzi gabe. Hala ere, EAEko osaeraren konstanteak ikus daitezke. Esate baterako, Bizkaian Latinoamerikako jatorrikoak dira egoitza-baimena duten etorkin gehienak, Araban magrebtar jatorrikoak, eta Gipuzkoan Europako jatorrikoak.

Erregularizazio-indizerik handiena duten nazionalitateak, Erkidegoko erregimena dela eta egoitza-txartela errazago eskura dezaketenak alde batera utzita, tradizio handienekoak (Filipinak eta Maroko) eta Latinoamerikakoak dira.

Hala ere, Filipinetako nazionalen bolumena hutsala da guztizkoari dagokionez. Marokoko immigrazioak, berriz, erregularizazio-indizerik handienetako bat du. Hain zuzen ere, erroldatuta daudenen % 96 erregularizatuta dago, betiere kontuan izanik 2006ko urtarrilaren 1eko erroldako datuak egoitza-baimena dutenen 2005eko abenduaren 31ko datuekin alderatzen ari garela.

Hori horrela, jatorri kolonbiarreko % 95, dominikarreko % 90, ekuadortarreko % 88 eta kubatarreko % 89 egoera berean daude. Latinoamerikako herrialde horien taldean, Boliviako immigrazioak —oso berria da— kontrako joera du; izan ere, hango etorkinen % 51k du egoitza-baimena. Bi mutur horien artean, Brasilgo jatorria duten etorkinak daude: % 66k du egoitza-baimena. Immigrazio guztian duten indarra kontuan izanik garrantzitsuak diren nazionalitateei dagokienez, errumaniarra aipatu behar da: erroldatuen % 67k egoitza-baimena du.

Afrikako jatorria duten etorkinen artean, erregularizazio-indizerik handiena duen biztanleria Senegalgoa da (% 82), baita Aljeriakoa ere (% 66). Asiatarren artean, esan daiteke txinatar jatorrikoen ia % 100 erregularizatuta dagoela, baita pakistandarren % 88 ere. Horiek dira daturik interesgarrienak, betiere kontuan izanik egoitza-txartela duten EAEko atzerritar jatorriko etorkinen batez bestekoa % 70 dela.

Etorkinen egoitza-egoeraren normalizazio-eredu hori integrazioaren ikuspuntutik ere garrantzitsua da; izan ere, egonaldia zenbat eta normalagoa izan, hainbat eta arazo gutxiago izango dira egunerokotasunean, eta, horren ondorioz, migrazioa eragin zuen bizitza-proiektua garatzeko aukera handiagoa izango da.

### Jarduera tasa eta Gizarte Segurantzako afiliazioa

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, Estatu espainolean, 2007ko lehen hiruhilekoan, atzerritar biztanleriaren jarduera-tasa % 76,30 zen, eta Espainiako biztanleriarena % 58,18.

Jakina, atzerritar biztanleriaren adin-egitura (jarduera ekonomikoa indartsuena den adin-taldeetan biltzen da) aintzat hartuta azal daiteke bi tasen arteko 18 puntutik gorako alde hori, eta atzerritar biztanleriaren langabezia-tasa espainiarrena baino lau puntu handiagoa izatea erlatibizatu (% 12, 61 eta % 8,47, hurrenez hurren).

Horren ondorioz, 2007ko hasieran ia 22 milioi lagunek osatzen zuten Espainiako biztanleria aktiboa; horietatik 3.036.200 (% 7 baino gehiago) atzerritar jatorrikoak ziren, eta 1.927.347 gainera, Gizarte Segurantzan afiliatuta eta kotizatzen ari ziren, sistemako afiliazioen % 10 ia. Azken zifra horretatik, 42.744 kotizatzaile dira EAEkoak, guztizkoaren % 2,2. Zifra hori bat dator atzerritar immigrazioak Estatu espainoleko guztizkoarekiko duen pisu erlatiboarekin.

Lehen adierazi dugunez, erregularizazio-prozesua Gizarte Segurantzako altetan nabaritzen da:

*11. taula. Gizarte Segurantzako atzerritar afiliatuak Estatu espainolean eta EAEn, erregimen motaren arabera. 2007ko lehenengo hiruhilekoa*

| | Orokorra | Autonomoak | Nekazar. | Itsas. | Ikatza | Etxeko lang. | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EBkoak | 439.190 | 99.117 | 45.232 | 1.240 | 703 | 30.006 | 615.488 |
| EBtik kanpokoak | 984.128 | 78.683 | 107.608 | 3.247 | 23 | 138.170 | 1.311.859 |
| Espainia, guztira | 1.423.318 | 177.800 | 152.840 | 4.487 | 726 | 168.176 | 1.927.347 |
| EBkoak | 10.182 | 2.636 | 985 | 156 | 0 | 483 | 14.442 |
| EBtik kanpokoak | 20.259 | 2.233 | 664 | 249 | 0 | 4.897 | 28.302 |
| EAE, guztira | 30.441 | 4.869 | 1.649 | 405 | 0 | 5.380 | 42.744 |
| EBkoak | 2,3 | 2,7 | 2,2 | 12,6 | 0,0 | 1,6 | 2,3 |
| EBtik kanpokoak | 2,1 | 2,8 | 0,6 | 7,7 | 0,0 | 3,5 | 2,2 |
| EAE, guztira | 2,1 | 2,7 | 1,1 | 9,0 | 0,0 | 3,2 | 2,2 |

*Iturria: Ikuspegik egina, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren datuetan oinarrituta*

Esan daiteke egungo zifretara iristeko bilakaera lasterra izan dela, eta batez ere azken hiru urteotan; izan ere, EAEn zazpi aldiz biderkatu da, gehienbat Araban; Gipuzkoan, berriz, hazkundea txikixeagoa izan da. Gizarte Segurantzako afiliazioetan ere nabarmena da atzerriko immigrazioan ordezkapen-prozesua gauzatzen ari dela; izan ere, EBko jatorria dutenen afiliazioa % 486 igo da, eta EBkoak ez direnena, berriz, % 1.277.

*4. grafikoa: Gizarte Segurantzan afiliaturik dagoen atzerritar biztanleriaren osaeraren bilakaera. 1998-2007*




| | 98-12 | 99-12 | 00-12 | 01-12 | 02-12 | 03-12 | 04-12 | 05-12 | 06-01 | 07-03 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EZ EB | 2.215 | 2.999 | 4.569 | 7.034 | 10.465 | 12.262 | 14.845 | 26.961 | 26.725 | 28.302 |
| EB | 2.966 | 3.576 | 4.119 | 4.753 | 5.111 | 7.109 | 7.514 | 8.786 | 9.478 | 14.442 |

*Iturria: Ikuspegik egina, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren datuetan oinarrituta*

## 2.2.2. Hezkuntza sisteman sartzeko aukera

### Hezkuntza-sisteman sartzeko aukeraren hazkundea

Biztanleria etorkinak hezkuntza-sisteman sartzeko duen aukera nabarmen igo da azken urteotan.

*5. grafikoa: Eskolatuta dauden atzerriko ikasleen bilakaera. 1999-2006*




*Iturria: Ikuspegik egina, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datuetan oinarrituta*

2005-06 ikasturtean 13.875 ikasle atzerritar zeuden, hau da, aurreko ikasturtean baino % 20,5 gehiago.

Atzerriko ikasleen kopurua EAEko ikasle guztien % 4,27 da, eta azkeneko lau ikasturteotan kopuru hori hirukoiztu egin da (% 1,36tik - % 4,27ra)

Ikasle etorkin gehienak (% 65) Latinoamerikakoak dira; % 15 Afrikako jatorrikoak; % 4 Asiako eta Ozeaniako jatorrikoak, eta gainerakoak (% 16) Europakoak.

### Lurraldeen eta eskola-sareen araberako banaketa

Hona hemen ikasle etorkinen lurraldeen araberako banaketa: Bizkaian % 55,5; Gipuzkoan % 24,5; eta Araban % 20.

Eskola-sareei dagokienez, banaketa honako hau da: % 68,19 (9.461 ikasle) sare publikoan eta % 31,81 (4.414 ikasle) itunpeko sarean. Lurraldeen arabera, Araban % 79,78 sare publikoan eta % 20,22 itunpeko sarean dago; Bizkaian, % 70,07 sare publikoan eta % 29,93 itunpekoan; eta Gipuzkoan, % 54,38 publikoan eta % 45,32 itunpekoan.

*12. taula. Ikasle etorkinen banaketa, lurraldeen eta eskola-sareen arabera (2005-2006 ikasturtea)*

| | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | | EAE | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikastetxea | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % |
| Publikoa | 2.221 | 79,78 | 5.396 | 70,07 | 1.844 | 54,38 | 9.461 | 68,19 |
| Itunpekoa | 563 | 20,22 | 2.304 | 29,93 | 1.537 | 45,32 | 4.414 | 31,81 |
| Guztira | 2.784 | 100 | 7.700 | 100 | 3.391 | 100 | 13.875 | 100 |
| % | 20,06 | | 55,50 | | 24,44 | | 100 | |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egina*

**Hizkuntza-ereduen araberako banaketa**

Ikasle etorkinen erdia A ereduan eskolatuta dagoen arren, hizkuntza-ereduen araberako banaketa ez da berdina hiru lurraldeetan. Araban, esate baterako, A ereduko ikasle etorkinak % 74 dira; Gipuzkoan, berriz, % 17,5 soilik.

*13. taula. Ikasle etorkinen banaketa, lurraldeen eta hizkuntza-ereduen arabera (2005-2006 ikasturtea)*

| | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | | EAE | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % |
| A Eredua | 2.060 | 73,99 | 4.205 | 54,61 | 594 | 17,52 | 6.859 | 49,42 |
| B Eredua | 546 | 19,61 | 1.760 | 22,86 | 1.521 | 44,85 | 3.827 | 27,58 |
| D eredua | 178 | 6,40 | 1.735 | 22,53 | 1.276 | 37,63 | 3.189 | 23,00 |
| Guztira | 2.784 | 100 | 7.700 | 100 | 3.391 | 100 | 13.875 | 100 |
| % | 20,06 | | 55,50 | | 24,44 | | 100 | |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egina*

Datu horien bilakaerak agerian uzten duenez, azken lau urteotan A ereduan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua 8 puntu murriztu da; D ereduan diharduten ikasleen kopurua, berriz, ia 6 puntu igo da.

*14. taula. Azken lau urteotako bilakaera, hizkuntza-ereduei dagokienez*

| | 2002-03 | | 2003-04 | | 2004-05 | | 2005-06 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % |
| A Eredua | 3.447 | 57,89 | 4.673 | 54 | 5.942 | 51,6 | 6.859 | 49,42 |
| B Eredua | 1.467 | 24,63 | 2.364 | 27 | 3.178 | 27,6 | 3.827 | 27,58 |
| D Eredua | 1.041 | 17,48 | 1.590 | 19 | 2.395 | 20,8 | 3.189 | 23,00 |
| Guztira | 5.955 | 100 | 8.647 | 100 | 11.515 | 100 | 13.875 | 100 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egina*

### 2.2.3. Osasun sistemaz baliatzeko aukera

Osasun-sistema publikoa eta asistentzia sanitarioa berdintasun-baldintzetan baliatzeko aukera da etorkinak harrera-gizartean integratzea baldintzatzen duten elementuetako bat; hori ez ezik etorkinek harrera-gizartean erabat parte hartzeko aukera ere baldintzatzen du.

Osasun-zerbitzuak osasun-egoeraren arabera ez ezik, beste hainbat faktoreren arabera ere erabiltzen dira, hala nola ikasketa-mailaren, adinaren, sexuaren, maila ekonomikoaren, kultura-ingurunearen, eta abarren arabera. Halaber, osasun zerbitzuen eskaintza garrantzitsua da, baita zerbitzu horiek baliatzeko erraztasuna edo zailtasuna ere.

Hain zuzen ere, honako hauek dira kalteberatasuneko egoera sozialean dauden etorkinen kolektiboei osasun-zerbitzuak baliatzea zailtzen dizkieten faktoreak: lan normalizatu bat eskuratzeko zailtasunak, gizarte-arrisku handiko zonetako bizikidetza, eta hizkuntzari eta kultura-desberdintasunei loturiko komunikazio-arazoak.

Aparteko aipamena egin behar zaio biztanleria etorkinaren gehiengoak bizi duen dolu-egoerari, etxea, ahaideak eta lagunak jatorrizko herrialdean utzi dituztela-eta.

Errealitate garrantzitsu hori bazter utzi gabe, oro har EAEko biztanleria etorkinaren kolektiboa gaztea da gehien bat, eta osasuntsu sentitzen da.

EAEn bizi diren etorkinen kolektiboen osasunari buruz Euskal Herriko Unibertsitateak eta Munduko Medikuak elkarteak orain dela gutxi egindako inkestak honako datu hauek azaleratu ditu osasun-sistema baliatzeko aukerari eta erabilerari buruz:

#### Atentzio mediko anbulatorioa

Atal honen barnean zerbitzu mediko anbulatorioen erabilerari dagozkion emaitzak bildu dira, eta, horretarako, lehen atentzioko eta atentzio espezializatuko zerbitzuak (ospitalekoa eta ospitaletik kanpokoa) izan dira kontuan.

EAEn bizi den biztanleria etorkinaren % 30etik % 50era bitarte noizbait erabiliak zituen osasun-zerbi-tzuak osasunari buruzko inkesta hori egin aurreko hamabi hilabeteetan.

Osasun-zerbitzuen erabileraren emaitzak desberdinak dira kolektiboaren arabera:

- Kontsulta medikoetara 5 aldiz baino gehiagotan joan den biztanleria etorkinaren proportziorik handiena Latinoamerikako jatorriko kolektiboari dagokio (% 16,4), eta ondoren, magrebtarrari (% 8,7), Erkidegotik kanpoko europarrari (% 8,2), eta, azkenik, Saharaz hegoaldekoari (% 5,3).
- Kasu guztietan, erreferentziazko kolektibo guztietako emakumeek gizonek baino gehiago erabili zituzten kontsulta medikoak.
- Medikuarenera inoiz joanak ez zirenen proportziorik handiena Erkidegotik kanpoko europarren kolektiboak bildu du (% 45,2), eta, ondoren, Saharaz hegoaldeko jatorrikoenak (% 31,1).

*15. taula. Biztanleriaren banaketa (%), azken urtean kontsulta medikora joandako aldien arabera, kolektiboa eta sexua kontuan izanik, 2005*

| Jatorria | | Inoiz ez | 1-2 aldiz | 3-4 aldiz | ≥5 aldiz |
|---|---|---|---|---|---|
| Magrebtarra | Gizona n=196 | 16,8 | 49 | 25,5 | 8,7 |
| | Emakumea n=22 | 13,6 | 63,6 | 13,6 | 9,1 |
| | GUZTIRA | 16,5 | 50,5 | 24,3 | 8,7 |
| Saharaz hegoaldekoa | Gizona n=137 | 34,3 | 52,6 | 9,5 | 3,6 |
| | Emakumea n=14 | | 57,1 | 21,4 | 21,4 |
| | GUZTIRA | 31,1 | 53 | 10,6 | 5,3 |
| Latinoamerikakoa | Gizona n=56 | 41,1 | 35,7 | 14,3 | 8,9 |
| | Emakumea n=109 | 29,4 | 35,8 | 14,7 | 20,2 |
| | GUZTIRA | 33,3 | 35,8 | 14,5 | 16,4 |
| Erkidegotik kanpoko europarra | Gizona n=57 | 54,4 | 31,6 | 7 | 7 |
| | Emakumea n=89 | 39,3 | 40,4 | 11,2 | 9 |
| | GUZTIRA | 45,2 | 37 | 9,6 | 8,2 |

*Iturria: Rodríguez E, Lanborena N, 2006: EAEn bizi diren etorkinen kolektiboei egindako osasun-inkesta*

**Urgentzia medikoko atentzioa**

Urgentziako zerbitzuen erabilerari dagokionez, Latinoamerikako jatorriko biztanleriaren % 37,5ak eskatu zuen asistentzia mota hori, Erkidegotik kanpoko europarren % 22,1ak, Saharaz hegoaldeko jatorrikoen % 19k, eta magrebtarren % 17,4k.

**Biztanleria etorkinaren poztasun-maila, zerbitzu sanitarioaren erabilerraztasunari eta bertan jasotako informazioari eta tratuari dagokienez**

Biztanleria etorkinaren gehiengoa pozik dago osasun publikoaren funtzionamenduarekin, eta iritziak ez dira oso desberdinak kolektiboen arabera.

Oso pozik daudenen artean, gehienak Afrikako jatorriko emakumeak dira. Latinoamerikako eta Erkidegotik kanpoko Europako jatorriko kolektiboen artean, gizonak dira batez ere oso pozik daudela adierazi dutenak.

### 2.2.4. Etxebizitza eskuratzeko aukera

Etxebizitza da etorkinen kolektiboa egoki integratzeko beste funtsezko elementu bat, eta eragin handia du beste eremu batzuetan, hala nola lanean, hezkuntzan, parte hartzean, etab.

Etorkinak ez dira etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzten bakarrak, oro har gizarteak du arazo hori. Hala eta guztiz ere, biztanleria etorkinak zailtasun gehiago izaten ditu askotan; izan ere, etorkinek batzuetan diskriminazio-egoerak jasaten dituzte, etxebizitza alokatu nahi dutenean —etorkinen artean eskaera handia da—, etxebizitzen jabeen aurreiritzien ondorioz.

Hainbat elkartek eta GKEk bitartekari-lanak egiten dituzte etxebizitzaren merkatuan diskriminazio eta aurreiritzi horiek murriztu eta ezabatzearren. Diskriminazio eta aurreiritzi gehienek etorkinen jatorriarekin eta kulturarekin zerikusia dute, baita haien erlijioarekin ere.

Etxebizitza-gabezia, azpietxebizitzak, pilaketa eta ghettoak gizarte-bazterkeriaren seinale dira, baita etorkinen taldeen arteko eta etorkinen eta bertako biztanleriaren arteko bizikidetza-arazoena ere.

Era berean, aditzera eman behar da beharrezkoa dela bizilekua edukitzea erroldatu ahal izateko eta eskubide batzuk baliatu ahal izateko. Etxebizitza-gabeziak eta pilaketak asko zailtzen dute betekizun hori, eta, horren ondorioz, kalteberatasun handiko egoerak gertatzen dira.

Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarte integrazioari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak ezartzen duenez, "egoiliar atzerritarrek etxebizitza-arloko laguntzen sistema publikoa baliatzeko eskubidea dute, espainiarren baldintza berdinetan".

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren jardunetan ere bilduta dago printzipio hori; Sail horrek EAEko biztanleria guztia jomugatzat hartuta bideratzen ditu oro har etxebizitzaren arloko laguntzak eta ekintzak.

## 2.3. ARRISKU ETA KALTEBERATASUN EGOERAN DAUDEN TALDEAK

Problematika espezifikoa duen hainbat taldek kalteberatasun-egoera handiagoa du. Horien artean nabarmentzekoak dira:

- Beren jatorria, kultura edo erlijioa dela-eta aurreiritziak eta diskriminazio praktikak jasaten dituzten kolektiboak. Horren ondorioz, zaila izaten dute lan-merkatuan sartzea, etxebizitza lortzea, etab.
- Ezkutuko ekonomiaren merkatuan, dagozkien laneskubideez gabeturik, lan egiten duten langileak.
- Eskaletzan edo prostituzioan diharduten pertsonak.
- Gizakien trafikoan diharduten talde antolatuen biktimak, bereziki sexu esplotazioa jasaten duten emakumeak.
- Askatasunaz gabetuta espetxeetan, psikiatrikoetan, geriatrikoetan edo polizia zentroetan dauden atzerritarrak, EAEko mugetan atxilotuta daudenak —ezkutuko bidaiariak, esaterako— barne.
- Inoren kargura ez dauden gazteak.

## 3. EUSKAL GIZARTEAREN PERTZEPZIOA ETA JARRERAK

2004an, euskal gizarteak —bertakoek nahiz etorkinek— alderdi jakin batzuei dagokienez dituen jarrerei, balioei eta iritziei buruzko azterlana egin zuen Ikuspegik. Hain zuzen ere, migrazioaren fenomenoa, biztanleria-taldeak eta bizikidetzari aniztasunaren testuinguruan nola egin nahi dieten aurre aztertu zuten.

Hona hemen azterlan horren ondoriorik adierazgarrienak:

1. EAEn bizi diren etorkinak egiaz bizi direnak baino gehiago direlako sentsazioa dute euskaldunek: % 11, eta azterlana egin zenean egiaz % 4 ziren.
2. Lan-arloan, euskal biztanleriaren iritziz, etorkinak etortzeak eragin positiboak izango ditu euskal ekonomian. % 60k baino gehiagok adierazi duenez, etorkinek ekonomia hobeto ibiltzea ahalbidetzen dute, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen baitituzte.
3. Gizarte-prestazioei dagokienez, euskal biztanleriak iritzi kontrajarriak ditu biztanleria etorkinak gizarte-babeseko sistema gehiegi baliatzen dutelako baieztapena dela eta ez dela; era berean, etorkinek gerora jasotzen dutena baino zerga gehiago ordaintzen dituztela dioen baieztapenaren aurka dago euskal biztanleria.
4. Immigrazioak kultura-aberastasuna dakar, eta gehienei (% 70) ona iruditzen zaie gizarteak hainbat kulturaz, etniaz eta erlijioz osatuta egotea. Horri loturik, gehiengo handi batek uste du ikasgeletan haur etorkinak aritzea positiboa eta aberasgarria izan daitekeela.
5. Hala ere, euskal biztanleriaren erdiek baino gehiagok adierazi dute etorkinak etortzeak eragin negatiboak dituela hiritarren segurtasunean.
6. Identitate-alderdiei dagokienez, euskaldunen ia % 70en iritziz, immigrazioak ez du euskal nortasuna galtzea bultzatuko, eta etorkinen etorrerak ez du euskararen garapena geldiaraziko, ez EAEn, ezta gehiengoak euskara egunero erabiltzen duen lekuetan ere.
7. Gure herrira iristen diren etorkinei dagokienez, haiengan ondoen balioesten diren bi ezaugarriak bertako bizitza-eredua hartzeko aldeko jarrera eta etorkinen lanbide-kualifikazioa tokiko merkatu-premietara egokitzea da, beste zenbait alderdiren gainetik, hala nola hezkuntza-mailaren, hizkuntza jakitearen edo kulturaren, erlijioaren edo etniaren arloko antzekotasunen gainetik.
8. % 50 ados dago etorkinek beren erlijioaren eta kulturaren alderdi jakin batzuk —indarrean dagoen legediarekin bat ez datozenak, hain zuzen ere— baztertu behar dituztelako ideiarekin.
9. Euskal biztanleriaren gehiengoak (% 65) dioenez, etorkinek asistentzia sanitariorako eskubidea dute, eta % 55,4ren iritziz, baita hezkuntza publikorakoa ere. Dena den, honako eskubide hauek legezko egoeran daudenentzat mugatzen dituzte: gizarte-laguntzak (% 57,3), familia berriz elkartzea (% 57), babes ofizialeko etxebizitza (% 56,7) eta botorako eskubidea (% 63,3).
10. Euskal gizartearen % 30 etorkinen botorako eskubidea murrizketarik gabe ematearen aldekoa da; % 11 aurka dago, eta % 57 alde, baina betiere etorkinek baldintza jakin batzuk betetzen badituzte. Baldintza horien artean, gurean bizitzen daramaten urte kopurua da gehien balioetsi dena.
11. Biztanleriaren % 75ek uste du herrialde aberatsek herrialde pobreetatik datozen pertsonak hartu behar dituztela.
12. Etorkinekiko harremanetarako eremurik aipatuena lagunartea da. Tarte bat atzetik datoz auzotasun-harremanak, lan-harremanak eta aisia-harremanak. Kasu gehienetan, kontaktu horien ondoren, harremanek bere horretan iraun zuten, edo hobetu egin ziren.

# 4. IMMIGRAZIOA ERAKUNDE ETA GIZARTE DINAMIKAN SARTZEA

Migrazio-fenomenoarentzako erantzunak sortzeko eta egoki kudeatzeko premiari eutsi zaio EAEko erakundeetan eta gizarte zibilean, arian-arian eta lurralde osoan. Horren ondorioz, egin diren jardunen panoramaren ezaugarri nagusiak aniztasuna, sormena eta zeharkakotasuna dira, besteak beste, sentsibilizazioa eta konpromisoa handiak diren seinale. Alabaina, ezaugarri hori kontuan izanik, ezinezkoa da panorama osoa deskribatzea.

Segidan, eta gehiegi luzatu gabe, jardun garrantzitsuenetako batzuk azalduko ditugu, bi helburuekin:

- Esku-hartze esparruaren eta prozesuen gutxieneko ezaugarriak azaltzea.
- Zati operatiboan deskribaturiko jardunak ulertzen laguntzea. Izan ere, zati horretan programa, zerbitzu, egitura, etab. ugari aipatu dira.

## 4.1. ERAKUNDEEN ARLOARI DAGOKIONEZ

### 4.1.1. Autonomia Erkidegoaren eremua

**Immigrazioari buruzko I. Euskal Plana**

Immigrazioari buruzko I. Euskal Plana autonomia-erkidegoaren eremuan egin den jardun koordinatu eta zeharkakoa azaleratzeko eta sistematizatzeko lehen prozesua izan da.

Ildo horretan, Plan horren ebaluazioaren hainbat alderdi immigrazioaren errealitatea erakundeen eremuan txertatzearen adierazletzat har daitezke:

- Plana gauzatzeko prozesuan Eusko Jaurlaritzaren hamahiru sailek eta erakunde autonomok parte hartu izana, Foru Aldundiekin eta Toki Erakunde Lokalekin koordinatuta.
- Aurreikusitako 224 neurrien % 75 garatu izana.
- Garatutako neurrien helburuen % 72,6 guztiz eta % 15,6 partzialki lortu izana.
- Planaren indarraldia amaitutakoan neurrien % 85i eusteko eta jarraipena emateko aurreikuspenak.
- Planifikazio-eredu ireki eta malgu baten oinarriak ezarri izana; erakunde lokal ugaritan erabili dute eredu hori Immigrazioari buruzko Tokiko Planak egiteko.
- Normalizazio-kulturan sakondu izana immigrazioaren arloko esku-hartze publikoan.
- Esku-hartze programak sortu, garatu eta artikulatu izana immigrazioari buruzko euskal politikaren funtsezko eremuetan: informazioa, eremu juridikoa, hezkuntza eta kulturarteko bitartekaritza.
- Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa partaidetza mekanismo gisa finkatu izana, lan-eremu berean erakunde eta eragile sozial eta instituzionalak integratzeak duen balio erantsiarekin.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa finkatzea eta sustatzea**

Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa organo aholku-emailea da, 2003an jarri zen abian, eta, bertan, administrazio publikoak eta gizarte-erakundeak daude ordezkatuta: sindikatuak, enpresa-elkarteak, eta etorkinen eta etorkinei laguntza emateko elkarteak.

Foroak izaera sektorialeko sei Lan Batzorde ditu: Laneko Gaietarako Batzordea, Gizarte Baliabide eta Etxebizitza Batzordea, Osasun Batzordea, Hezkuntza Batzordea, Berme Juridikoen eta Giza Eskubideen Batzordea, Herritarren Parte Hartze, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordea.

**Etorkin atzerritarrentzako Udal Arloko Harrera Sarea (UAHS) finkatzea**

Udal Arloko Harrera Sarea da Immigrazioari buruzko Euskal Politikaren zutabeetako bat; izan ere, udalerriak du, toki-administrazioaren bitartez, integrazioko eta kulturarteko bizikidetza sustatzeko prozesuetan esku hartzeko behar den ahalmena, baita udalerrian bizi diren pertsona guztientzako aukera-berdintasuneko politikak aplikatzekoa ere, haien nazionalitatea, kultura, etnia edo erlijioa edozein izanik ere.

Udal Arloko Harrera Sarea hainbat toki-erakundek osatutako talde bat da; bertan, nork bere autonomiari eutsiz, jardun-printzipio, hausnarketako eta koordinazioko guneak, informazioa, eta prestakuntza-prozesuak konpartitzen dituzte erakunde horiek, atzerriko etorki-

nei harrera egokia egitearren eta toki-eremuan integrazio-prozesuak antolatzearren.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio Zuzendaritzak sustatu eta bultzatu du sare hori, eta sarea kudeatzeko eta koordinatzeko eginkizunak hartu ditu bere gain, betiere honako hauek kontuan izanik:

1. Orientazio-printzipio bat: EAE osatzen duten udalerri guztietan bizi diren atzerritarrei eskubideen eta baliabideak eskuratzeko aukeren berdintasuna eta herritar gisa parte hartzeko aukera bermatzea.
2. Printzipio instrumentalak:
    - *Zeharkakotasuna,* toki-eremuko jardunei dagokienez: immigrazioari eta kulturarteko bizikidetzari buruzko alderdiak herritartasun-alderdiak dira, udal-arlo guztien jardunean kontuan hartzen direnak.
    - *Koordinazio* horizontala toki-erakunde guztien artean, honako hauek lortze aldera:
        - Toki-eremuan, eta, beraz erkidego osoan, gizarte-kohesioa bermatuko duen integrazioko eta herritartasuneko euskal politika gauzatzeko aukera izatea.
        - Informazioa biltzeko, sistematizatzeko eta bilakaeraren arabera aztertzeko prozesu berbera ezartzea erakunde guztientzat, harrera herrietan dauden atzerritarrei eta eskaintzen diren baliabideei dagokienez, baliabide horiek premia berrietara egokitzea ahalbidetzearren.
        - Atzerritarren harrerako, herritar-integrazioko eta kulturarteko bizikidetzako prozesu eta estrategia berberak ezartzea sareko udalerri guztietan, baliabide ekonomikoak optimizatzeko eta arlo horietako jakintza eta praktika onak sortzeko gunea osatuz.
    - *Udalaz gaindiko mailetako koordinazioa* herritarrekin harremana duten administrazio guztiekin (hainbat arlotan: hezkuntza, enplegua, osasuna, kultura, etab.).
    - *Gizarte-eragileekiko koordinazioa* herritar etorkinek dituzten premia espezifikoei erantzutearren eta arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko kulturartekotasuna sustatzearren.

Azkenik, aditzera eman behar da Udal Arloko Harrera Sare hori instrumentalizatzeko, Immigrazio Zuzendaritzak hainbat proposamen eta lan-ildo diseinatu duela, hala nola:

- Atzerriko immigrazioak udalerrian duen errealitateari buruzko Azterlan Diagnostikoak egin daitezen sustatzea.
- Immigrazioari buruzko Tokiko Planak egin daitezen bultzatzea.
- Gai horri buruzko teknikariak —Udal Arloko Harrera Sare guztiaren dinamizazio-eragileak, alegia— kontratatzeko laguntzak.
- Etorkinen integrazioa hobetzera eta kulturartekotasuna sustatzera bideratutako programak gauzatzea.
- Urtean behingo prestakuntza-programak, udallangileentzat.
- HELDU, BILTZEN eta IKUSPEGI erakundeekiko lotura, autonomia-erkidegoko eta tokiko politikak errazteko elementu gisa.

**Egiturak eta zerbitzuak garatzea eta eragile instituzional eta sozialekin arian arian artikulatzea**

**IKUSPEGI,** Immigrazioaren Euskal Behatokiak hainbat motatako ikerlanak egin ditu, Autonomia Erkidegoko ikuspegia batez ere tokiko eta sektoreko errealitatea ardatzat duten azterlanekin artikulatuz.

**HELDU:** gure erkidegoko etorkin atzerritarrentzako **Laguntza Soziojuridikorako zerbitzua.** Oinarrizko gizarte-zerbitzuekin lankidetzan aritzea da zerbitzu horren helburua, Espainian bizitzeko administrazio-baimenik ez izateagatik gizarte bazterkeriaren arrisku larria jasaten edo gizarte-kalteberatasun nabarmena pairatzen duten atzerriko etorkinei berme handiagoz laguntzearren.

Zerbitzu horrek toki-administrazioekiko harremanaren esparrua finkatu du, baita bere eginkizunak ere; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuek bideratutako atzerriko etorkinen egoitza-baimenen edo egoitza- eta lan-baimenen eskaerei buruz informatu, aholkatu, lagundu eta izapideak egiten ditu. Era berean, zerbitzu horrek Legeria Orokorraren gainean Atzerritarrei buruzko Lege Organikoak dihardduen moduari buruzko aholkuak ematen dizkie oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalei.

**BILTZEN, Kulturarteko Bitartekotza eta Hezkuntzarako Zentroa.** 2003an sortu eta Bilbon kokatu zen. Zerbitzu horren helburua euskal gizartean dauden kultura-arloko elkarteen arteko elkarrizketa dinamizatzea da, baita elkarte horien eta Administrazioaren artekoa ere. Biltzenen eginkizunen artean, honako hauek nabarmen daitezke: zerbitzu publiko eta pribatuei kulturarteko bitartekaritzari eta hezkuntzari buruzko aholkua eta prestakuntza ematea; bitartekaritza, arlo horretako gatazkak kudeatzeko eta aldatzeko; kulturarteko proiektu eta ekimenak eta jardun jakin batzuk —pertsona guztien erabateko gizarte-integrazioa eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako bizikidetza sustatzera bideraturikoak— diseinatzea eta haietarako laguntza ematea.

2005eko uztailaren lean, Kulturarteko Bitartekotza eta Hezkuntzarako Ekimen Komunitarioak Koordinatzeko Zentroak beste bi ordezkaritza inauguratu zituen, bata Donostian eta bestea Gasteizen, eta teknikari gehiago kontratatu zituen zabalkunde horrek eragindako premiak betetzeko.

Era berean, UAHSrekin eta Eusko Jaurlaritzaren hainbat sail eta zuzendaritzarekin duen lotura sendotu du, immigrazio-teknikarien bitartez, betiere Immigrazioari buruzko Euskal Planean (IEP) bildutako neurriak gauzatzearren, eta etorkinen nahiz etorkinei laguntzeko 80 elkarte baino gehiagorekin ezarri ditu harremanak.

**Ekimen publikoari eta pribatuari laguntzea**

Ekimen publikoa eta pribatua, funtsean, hainbat dirulaguntzaren bidez indartu dira, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak immigrazioaren arloan jarduerak burutzeko laguntzak arautzen dituen ekainaren 25eko 155/2002 Dekretuaren arabera emandako diru-laguntzen bitartez, hain zuzen ere. Hona hemen emandako laguntzak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeentzako laguntzak.
- Etorkinak integratzeko programak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko Erakunde Pribatuen funtzionamendurako laguntzak.
- Inoren kargura ez dauden atzerritarrei beren gizarte-egokitzapeneko prozesuan laguntza emateko laguntzak.
- Kulturartekotasuna bultzatzeko laguntzak.
- Immigrazioari buruzko ikastaroak eta mintegiak antolatzeko laguntzak.
- Etorkinek irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetan parte har dezaten sustatu eta bultzatzeko laguntzak.

Horrez gain, Immigrazio Zuzendaritzak beste jardun batzuetarako laguntza eman du lankidetza-hitzarmenen bidez:

- HARRESIAK APURTUZ etorkinei laguntza emateko GKEen Koordinakundearekin sinatutakoa, koordinazioko, sentsibilizazioko, prestakuntzako eta elkarte arteko informazioko jarduerak egiteko.
- Gurasoen Elkarteko Erkidegoko Federazioarekin sinatutakoa.

### 4.1.2. Foru Eremua

Beren eskumenen esparruan, lurralde-administrazioak immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean zeregin handia egiten ari dira esku-hartzeari dagokionez. Zeregin horretan zailtasunak dituzte, baina, gainerako erakundeen kasuan bezalaxe, konpromisoa eta ahalmen operatiboa gero eta handiagoak dira.

Esate baterako, gizarte-ekintzaren eremuan oro har, honako hauetara bideratutako ahaleginak nabarmendu behar dira:

- Etorkinen premien berri izatea eta premia horiek gizarte-bazterketaren aurkako borrokarako antolakundeen plangintza orokorrean eta partikularrean aintzat hartzea.
- Epe ertain eta luzera begira aurre egin beharreko erronkak identifikatzea, laguntzako eta babeseko antolakundeei dagokienez.
- Diagnostikoaren eta esku-hartzearen ereduak egokitzea eta horietan sakontzea.
- Beste erakunde eta gizarte-eragileekiko koordinazioa garatzea.
- Gizarte-ekimenarekiko koordinazioa sakontzea.
- Etorkinen kolektiborik kalteberenen errealitatea gizarte-zerbitzu espezializatuen kudeaketan eta foru-baliabideetan txertatzea.
- Hausnarketarako guneak eta langile propioentzako prestakuntza-prozesuak sustatzea.
- Modu osagarrian, gizarteratze-prozesuak laneratzearen eremuan egiten diren foru-titulartasuneko eta/edo foru-partaidetzako ekimenekin lotzea.

Baina bazterkeriaren aurkako borrokari eta gizarte-ekintzari loturiko jarduerez gain, Foru Aldundiek beste programa batzuk jarri dituzte abian, honako hauek sustatzeko: kulturarteko bizikidetza, etorkinen gizarte-partaidetza, kultura eskuratzeko eta kultura sorkuntzan jarduteko aukera, sentsibilizazioa, etab.

Hona hemen abian jarritako hainbat programa mota:

- Etorkinen arteko asoziazionismoa sustatu eta bultzatzeko programak.
- Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloan proiektuak dituzten gizarte-erakundeentzako laguntzak.
- Hainbat kolektibori —gazteria, etab.— bideratutako sentsibilizazio-programak.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko programetarako laguntza.

### 4.1.3. Toki Eremua

#### UAHSen sartuta dauden Toki Erakundeak

Gaur egun, **36 udalerri** dira programa horren partaide: **Gasteiz**, Bilbo, **Donostia**, **Barakaldo**, **Irun**, **Ermua**, **Eibar**, Getxo, **Pasaia**, **Lea-Artibaiko Mankomunitatea** Mankomunitatea (Berriatua, Etxebarria, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa), **Busturialdeko Mankomunitatea** (Gernika-Lumo, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Murueta, Foru, Muxika, Morga, Errigoiti, Arratzu, Mendata, Kortezubi, Gautegiz Arteaga, Ibarrangelu eta Elantxobe), Mungialdeko Partzuergoa (Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka eta Mungia).

Udalerri horietan, EAEko etorkinen % 70 inguru bizi da.

Immigrazioari buruzko Tokiko Plan propioa duten udalerriak letra lodiz agertzen dira; gainerako udalerriek beren plana egiteko konpromisoa hartu dute. Nolanahi ere, aditzera eman beharra dago toki-erakundeek immigrazio-arloko esku-hartzea tokiko politikan txertatzeko konpromisoa hartu dutela, nola plan propioen esparruan hala sare osoko programa koordinatuen esparruan.

Jardun horiek esku-hartze sektoreen sorta zabala hartzen dute eraginpean (hezkuntza, osasuna, etxebizitza, enplegua, kulturartekotasuna, etab.), eta era askotakoak dira: sentsibilizazio-kanpainak, baliabideen gidak argitaratzea, kulturarteko bitartekaritzako tokiko programak, partaidetza-egiturak, etab.

Immigrazio Zuzendaritzak immigrazioari eta kulturarteko bizikidetzari buruz antolatzen dituen prestakuntza-ikastaroetan udal-langileek parte hartzea da toki-erakundeek beren esku-hartze prozesuetan hobetzeko konpromisoaren beste adierazle bat. Laburpen gisa, hona hemen 2003-2006 aldiko hainbat datu:

- 1.800 prestakuntza-ordu, toki-erakundeetako langileentzat.
- 14 toki-erakunderi eman zaie arreta.
- Toki-erakunde gehiagok eskatu dute parte hartzea.
- 2.500 profesionalek jaso dute prestakuntza. Profesional horien profilak era askotakoak dira: kargu politikoak, gizarte-langileak, gizarte-hezitzaileak, udaltzainak, enplegu-teknikariak, herritarren arretarako zerbitzuetako langileak, etab.

#### UAHSren zati ez diren Toki Erakundeak

Udalerri horietan biztanleria etorkina txikiagoa da. Hala ere, nabarmena da pixkanaka migrazio-fenomenora hurbiltzen ari direla, tokiko errealitatearen berri izatea eta hori hausnarketa politiko eta teknikoan txertatzea sustatzeko joerak erakusten duenez. Azken batean, garbi dago udalerri horiek errealitate berriari aurre egiten eta erantzuteko mekanismoak aurreikusten saiatzen ari direla, baita toki-administrazioa errealitate berri hori kudeatzeko prestatzen ere.

Adibide gisa, hona hemen hainbat udalerrik hasitako hainbat prozesu eta jardun:

- Tokiko diagnostikoak egitea.
- Immigrazioarekin zerikusia duten arduradunak izendatzea. Izendapen guztiak ez dira egin immigrazio arloaren esparru formalizatuan.
- Hainbat arlotako —sentsibilizazioa, kulturarteko bizikidetza, etab.— programak diseinatzea eta gauzatzea.
- Immigrazio Zuzendaritzak sustaturiko urteko prestakuntza-programetan parte hartzeko eskaera.

## 4.2. GIZARTE ARLOARI DAGOKIONEZ

Dokumentu honen asmoaz eta mugez haratagoa litzateke laburbiltzea gizarte zibil antolatuak gero eta

anitzagoa den errealitatea onartzeko eta errealitate horretara egokitzeko egin dituen prozesuak eta prozesu horien zehaztapenak. Dena den, ez dirudi oso zentzuzkoa gizarte-ekimenez sortutako erantzunak bazter uztea, honako hau deskripzio-kapitulua dela kontuan izanik. Izan ere, gizarte-ekimena da gizartearen funtsezko zutabea, baita joerak eta sentsibilitateak aztertzeko eremurik egokiena ere.

Lehenik eta behin, aditzera eman behar da EAEn goranzko joera duen kultura aniztasunak izan duen eraginetako bat etorkinak asoziazionismoaren panoraman sartzea dela, beren premiak modu antolatuan betetzeko eta administrazio publikoen laguntza lortzeko formula gisa.

Horri gehitu behar zaio bertako gizarte-erakundeek gero eta joera handiagoa dutela beren proiektuak eta zerbitzuak immigrazioarekin eta kulturarteko bizikidetzarekin zerikusia duten gaietako esku-hartzearen arlora bideratzeko.

*14. taula. Etorkinei laguntza emateko eta etorkinen elkarteak*

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Etorkinenak (1) | 26 | 71 | 17 | 114 |
| Bertakoak (2) | 35 | 38 | 8 | 81 |
| | 61 | 109 | 25 | 195 |

(1) *Gehien bat etorkinez osaturiko elkarteak soilik bildu dira*

(2) *Azken bi urteotan immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko proiektu edo zerbitzuren bat garatu duten gizarte-erakundeak soilik bildu dira*

Aurreko taula zertzelada kuantitatiboa da, adierazitako gaietan gizarte-erakundeek garatzen duten jarduerari dagokionez; beraz, bertan ez da alderdi kualitatiborik bildu, ezta erabiltzaile etorkinei hainbat modutan arreta ematen dieten erakunde eta gizarte eragileen askotariko ekimenak ere, proiektu bereiz gisa finkatu ez direnak.

Ildo horretan, honako taula hau lagungarria izan daiteke hurbilketa kualitatiboagoa egiteko (proiektu mota); izan ere, gizarte-erakundeek Immigrazio Zuzendaritzaren laguntza-ildoetarako aurkeztutako proiektuen bilakaera adierazten du:

*15. taula. 2002-2006 aldiko bost laguntza-ildoetan aurkeztutako proiektu kopuruaren bilakaera*

| | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. ildoa: INTEGRAZIO-PROGRAMAK | | | | | |
| | 37 | 59 | 62 | 57 | 70 |
| 2. ildoa: KULTURARTEKOTASUNA | | | | | |
| | 15 | 47 | 56 | 54 | 71 |
| 3. ildoa: IKASTAROAK ETA MINTEGIAK | | | | | |
| | 10 | 24 | 26 | 32 | 28 |
| 4. ildoa: INOREN KARGURA EZ DAUDEN GAZTEAK | | | | | |
| 2002 | 4 | 8 | 9 | 9 | 9 |
| 5. ildoa: ETORKINEN PARTE HARTZEA IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEETAN | | | | | |
| | 2 | 8 | 6 | 9 | 14 |
| Guztira | 68 | 146 | 159 | 162 | 192 |

Aurreko kasuan bezala, taula horretan ez da bildu baliabide propioekin egindako elkarte-jarduera guztia, ezta toki-erakundeek, aldundiek, finantza-erakundeek eta abarrek finantzatutakoa ere.

Laburbilduz, esan daiteke gizarte-erakundeen dinamikan gero eta handiagoa dela immigrazioarekiko eta kulturarteko bizikidetzarekiko konpromisoa, baita haien presentzia ere, nola elkarte-sarearen osaera orokorrean hala garatutako ekimen eta proiektuen kopuruan eta ezaugarrietan. Konpromiso eta presentzia horietarako hainbat zailtasun dago, batez ere etorkinen erakundeetan:

- Honako hauetarako behar den informazioa eskuratzeko zailtasuna: elkarte lana, proiektuen garapena, sareak ezartzea, etab.
- Gizarte-erakundeek hainbat arlotan —politika publikoen definizioa, administrazioen esku-hartze estrategiak, etab.— duten parte-hartzea kudeatzeko eredu garbi eta hedaturik ez egotea.
- Honako hauei buruz behar adina erreferentziarik ez izatea: praktika onak, berrikuntza-jardunak, esku-hartzearen ereduak, etab.

- Nolabaiteko egitura-ahulezia honako hauei dagokienez: finantziazioa, baliabideak, elkarte-kudeaketa, proiektuak diseinatzeko eta kudeatzeko gaitasun teknikoak, etab.
- Adierazitako gai eta eremuetako prestakuntzako gune eta prozesurik ez izatea.
- Zailtasunak trukerako eta hausnarketarako foro eta egituretan jarraitutasunez parte hartzeko eta/edo erakunde eta eragileekin lankidetza-formula egonkorrak ezartzeko.

## LABURPENA

### EAE-KO IMMIGRAZIOAREN EGOERAREN LABURPENA.

| | |
|---|---|
| Bolumena | - Txikia kuantitatiboki, nola biztanleria orokorrarekiko ehunekoari dagokionez hala gure inguruko erkidego eta estatuekin alderatuta.<br>- Azken urteotan hazkunde etengabea eta lasterra, eta joera horri eusteko aurreikuspenak, epe labur – ertainean behintzat. |
| Faktoreak | - Lan-merkatuan sartzea da motibazio nagusia. Hala ere, familia berriz elkartzeko dinamikak areagotzen hasiak dira. |
| Jatorria | - Askotarikoa, hainbat alderdi kontuan izanik: jatorri geografikoa, hizkuntza, etnia, etab.<br>- Erkidegotik kanpoko immigrazioaren hazkunde nabarmena eta Europako Erkidegoko esparruko jatorrikoaren egonkortzea. |
| Banaketa geografikoa | - Batez ere, hiri-zonetan, eta bereziki hiru lurralde historikoetako hiriburuetan.<br>- Gipuzkoak du Erkidegoko atzerritarren ehunekorik handiena.<br>- Araba da bertako biztanleriarekin alderatuta atzerritar biztanleriaren proportziorik handiena duen Lurralde Historikoa. |
| Sexua | - Oro har gizonen eta emakumeen arteko oreka, biztanleria etorkinaren osaerari dagokionez.<br>- Jatorriaren arabera hainbat desberdintasun dagoen arren, honako ezaugarri hauek ditu: Erdialdeko eta Hego Amerikatik eta Erkidegotik kanpoko Europatik datorren immigrazioaren feminizazioa eta Europako Erkidegotik eta Afrikatik datorren immigrazioaren maskulinizazioa. |
| Adina | - Bertako biztanleriarekiko biztanleria-egitura osagarria: bertako biztanleria defizitarioa den adin-tarteak osatzen dituzte, eta hazteko joera duten adin-tarteei ez diete kopuru handirik gehitzen.<br>• Atzerritar biztanleriaren % 55-% 60 inguru 25-44 adin-tartekoa da. Lan-adinean dagoen kolektiboa % 80tik gorakoa da.<br>• Proiekzio demografikoen arabera, datozen urteotan bertako biztanleriaren saldoa negatiboa izango da 5-34 adin-tarteari dagokionez. |

| | |
|---|---|
| Gizarte- eta lan-arloko egoera. | - Oro har, atzerritarrei buruzko legedian xedatutakoaren arabera sartzen dira atzerritarrak gurean. Egonaldiari dagokionez, ordea, ez da legedian xedatutakoa betetzen eta irregulartasun-egoerak gertatzen dira.<br>- Atzerritarren % 75 landunak dira.<br>- Erroldaturik dauden atzerritarren % 50 Gizarte Segurantzan afiliaturik daude. Horien hiru laurdenak Erregimen Orokorrean.<br>- Enplegu-tasa bertako biztanleriarena baino handiagoa da: 77/60.<br>- Batez ere honako sektore eta arlo hauetan egiten dute lan: lehen sektorean, eraikuntzan, industrian eta zerbitzuetan, eta azken horri dagokionez, batez ere etxe-zerbitzuan eta ostalaritzan.<br>- Kualifikazio eta gizarte-ospe txikiko enpleguak hartzen dituzte batez ere, bertako biztanleriarekin betetzen ez direnak.<br>- Atzerritarrentzako kontratuen % 65 baino gehiago EAEko hiru hiriburuetan eta metropoli-areetan eskaintzen da. |
| Euskal ekonomiarako ekarpena | - Tokiko lan-merkatuaren erregulazioa, bertako lan-indarrik ez dagoen sektore eta enplegutan dihardutelako.<br>- Gizarte Segurantzako kotizazioak (17.014 atzerritar). |
| Laneratzeko zailtasunak | - Administrazio-zailtasunak lan-baimenerako espedienteak ebazteko; urriak dira laneratzeko eskaerekin alderatuta.<br>- Zailtasunak honako hauei loturik: prestakuntzako eta kualifikazioko maila txikia, kualifikazioak eta titulazioak egiaztatzea eta homologatzea, eta tokiko produkzio-sistema teknologia- eta antolakuntza-sistemetara egokitzea.<br>- Azkenik, enplegurako orientazioko eta prestakuntzako zerbitzuak baliatzeko zailtasunak. |
| Eskolatzea | - Atzerriko ikasleen eskolatze-tasa areagotu da batez ere hezkuntza-sistema publikoan eta Lehen Hezkuntzan bereziki.<br>- Atzerritarren bolumena txikia da eta orain arte ez da tentsio handirik sortu, ez hezkuntza-sisteman, ezta harrera-kulturarekiko egokitzapenean ere.<br>- Zailtasunik handienek gaztelaniaren ikaskuntzarekin dute zerikusia, Latinoamerikakoak ez diren atzerritar ikasleentzat.<br>- Ama-hizkuntzari eta ama-kulturari eusteko zailtasunak.<br>- D ereduko matrikulazioen hazkundea, batez ere haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan. |
| Antolakuntza, egituraketa | - Atzerritarren asoziazionismoa eta antolakuntza areagotu dira, atzerritarrek beren eskubideak defendatzearren. Hala ere, oraindik nahiko ahula da egiturari dagokionez. |
| Arriskuko eta kalteberatasuneko egoerak | Hona hemen nabarmenenak:<br>- Irregulartasun-egoeran dauden pertsonak, bai sarreragatik, bai gerora gertatu delako.<br>- Sexu-esplotazioko sareetan harrapatutako emakumeak eta etxeko indarkeriako egoerak jasaten dituztenak.<br>- Inoren kargura ez dauden adingabeak.<br>- Askatasunaz gabetutako pertsonak.<br>- Ezkutuko bidaiariak. |

## GIZARTE ERANTZUNEN LABURPENA

| | |
|---|---|
| EAE-ko migrazio-fenomenoari buruzko jakintza sortzea | - Immigrazioaren fenomenoa erakundeen eremuan eta eremu akademikoan ikertzeko eta hari buruzko jakintza sortzeko joera, hasi berria baina goranzkoa.<br>- Honako hauen areagotze kualitatiboa eta kuantitatiboa: ikerketa-ekimenak, informazioen eta esperientzien trukea, legediari eta esparru juridikoari buruzko hausnarketa eta eztabaida, biztanleria etorkinaren gizarte-integrazioa, etab.<br>- Ikuspegi ebolutibo eta kualitatiboarekin osatzeko premia. |
| Pertzepzioa eta jarrerak | - Immigrazioa fenomeno positibo eta aberasgarritzat hartzen da, eta, aldi berean, sumatzen diren problematika berriak jendea beste herrialdeetatik etortzeari lot dakizkiokeela ikusten da.<br>- Gehiengo sozial handia eskubideak atzerritarren kolektibora hedatzearen alde dago.<br>- Ikuspegi utilitarioa da nagusi: immigrazioa lan-indar gisa, koltxoi demografiko gisa, etab. |
| Erantzun instituzionalak | - Immigrazioaren errealitatea planifikazioan eta antolakuntza instituzionalean pixkanaka txertatzea.<br>- Etorkinen arretarako zerbitzuak, baliabideak eta programak, gutxi asko espezifikoak, sortzea.<br>- Azken urteotan prestakuntza- eta hausnarketa-ekimenak garatu izana; bertan parte hartutako erakunde sustatzaileak askotarikoak dira, baita esparruak, kolektibo hartzaileak, etab. ere.<br>- Planifikazio-prozesuak elikatzeko informazioa eta jakintza biltzeko premia. |
| Gizarte zibilaren mobilizazioa | - Etorkinen gizarte-integrazioarekin zuzeneko lotura duten erakundeen eta mugimenduen sarearen garapena. Gizarte zibilak garatzen du eta gero eta zabalagoa da.<br>- Irabazi-asmorik gabeko erakundeen planifikazioan eta kudeaketan etorkinen gizarte-integrazioarekin lotura duten elementuak gero eta gehiago txertatzea: prestakuntza-erakundeak, gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan ibilbide luzea egin duten erakundeak, etab.<br>- Administrazio guztien eta GKEen arteko lankidetza areagotzea, programa jakin batzuk garatzeko; hain zuzen ere, programa horiek etorkinak dituzte ardatzat, edo behintzat kontuan hartzen dituzte hartzaile gisa.<br>- Etorkinen gero eta elkarte gehiagok jardutea esku-hartze sozialeko eragile gisa, hainbat proiektu garatuz. |

| | |
|---|---|
| Lantzen diren premiak eta zerbitzu eta programen orientazioa. | Premiei dagokienez:<br>- Gure immigrazioak batez ere lan-arloarekin lotura duenez gero, laneratzeari eta esparru juridikoak laneratzeko eskatzen duen dokumentazioari loturiko premiek garrantzi handia hartu dute zerbitzuen eta programen diseinuan eta kudeaketan.<br>- Oinarrizko premiak asetzearekin lotura dutenak, gizarte-bazterketaren —etorkinak maiz egoera horretan bizi dira— ondoriozkoak. Etxebizitza eta gutxieneko baliabide ekonomikoak eskuratzearekin lotura duten problematikak.<br>- Azken urteotan, laguntza soziopsikologikoko, sustapeneko eta gizarte-partaidetzako premiak ardatzat dituzten programak finkatzen hasi dira.<br><br>Orientazioari dagokionez:<br>- Esparru juridikoaren zurruntasunak eta esparru juridiko horrek eskubideen titulartasunari eta eskubideak baliatzeari ezartzen dizkien mugek eragin dute harrera-erantzunetako askotan immigrazioari buruzko legeen aurkako salaketa- eta erreakzio-ikuspegia nagusitzea.<br>- Oinarrizko eskubideak biztanleria osoari hedatzea eskubide horiek eraginkor bihurtzen dituzten zerbitzu eta baliabideak unibertsalizatuz gauzatu da, eta zerbitzu horiek baliatzeko aukera ezarritako eta araututako baldintza orokorretan sustatu.<br>- Sarritan, irregulartasun-egoerak eta biztanleria etorkinaren sektore jakin batzuetara loturiko bestelako egoerek ikuspegi asistentziala nagusitzea ahalbidetu dute. Gaur egun, sustapena, emantzipazioa, ahalduntze kolektiboa, etab. ditugu ikuspegi horren osagarri. |
| Etorkizuneko erronkak | - Migrazio-fenomenoei buruzko jakintzan, gizarte-integrazioko politiketan, eta abarretan sakontzea.<br>- Herritartasunaren, kultura-aniztasunaren eta immigrazioaren dimentsio guztien kultura sustatzea, harrera-gizartearentzat aberasgarriak direla aintzat hartuz.<br>- Etorkinen gizarte-integrazioa eta kulturartekotasuna erakundeen eta gizarte-eragileen agendetan txertatzen sakontzea.<br>- Jaurlaritzaren, Erakundeen eta Gizarte Zibilaren arteko osagarritasuna sustatzea, gizarte-integrazioko, bizikidetzako eta kulturartekotasuneko ekimenen garapenari eta inplementazioari dagokienez.<br>- Etorkinen Elkarteak sustatzera, emantzipatzera eta gizartean, kulturan eta politikan parte hartzera bideratutako lan-ildoak txertatzea, ikuspegi asistentzial hutsak gaindituz.<br>- Zerbitzuak eta baliabideak egokitzeko formulak sustatzea, betiere unibertsaltasunaren, orokortasunaren, etab. printzipioei eutsiz, talde bakoitzaren kultura-berezitasunak aintzat har ditzaten. |

# 11. Arau esparrua



# II. ARAU ESPARRUA

## 1. HITZAURREA: OINARRIZKO ESKUBIDEAK BABESTEKO NAZIOARTEKO SISTEMAREN PREMIA, MIGRAZIOEI DAGOKIENEZ

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioari buruzko II. Euskal Plan honen funtsa eta arau esparrua azaldu baino lehen hainbat kontsiderazio egin behar da, sarrera gisa, Plan horrek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztien, edozein nazionalitate dutela ere, oinarrizko eskubide eta askatasun publikoen defentsarekiko duen konpromisoa ulertzeko.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak (GEAU) –NBEren Batzar Nagusiak onartu zuen 1948ko abenduaren 10ean, eta Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikuluak aipatzen du– oinarrizko eskubideen unibertsaltasun printzipioa ezarri zuen. Printzipio hori gizaki guztien duintasunean (1. art.) eta diskriminaziorik ezaren printzipioan (2. art.) oinarritzen da.

GEAUren esparruan, nazioarteko komunitateak Estatuari, eragile publikoa den aldetik, ezarri dio batez ere deklarazio horretan aldarrikaturiko eskubideen defentsa, Estatuak ordezkatzen duen komunitate politikoa osatzen duten pertsonei dagokionez; pertsona horiek titulu juridiko jakin bat edukitzearen arabera definitzen dira, nazionalitatearen arabera, alegia. Hain zuzen ere, gure testuingururik hurbilenean elkartasuna bermatzeko eta oinarrizko eskubideen defentsarako oinarrizko eremua izan da Estatua.

Planetako leku askotan Estatuaren eraikuntza eta finkatzea krisian egoteak –krisi hori Gerra Hotza deritzana amaitu ondoren areagotu egin da– eskubide horien nazioarteko defentsa-sistema krisian jarri du.

Askatasun indibidual horiek bermatuko direla zaintzeko eragile publikorik gabe, oinarrizko eskubideak maila globalean babesteko sistema berriak eskatzeko mekanismo bat dira migrazioak. Sistema berri horiek honako ezaugarri hau dute: egiaz badiren Estatuek, horiek osatzen dituzten estatu azpiko erakundeek eta Estatuek osatzen dituzten estatuz gaindiko erakunde berriek oinarrizko eskubideak bermatu beharko dizkiete beren nazionalitateak babes hori bermatzen ez dien pertsonei.

*Herritartasun zibiko edo inklusiboa*ren nozioa da oinarrizko eskubideen defentsarako arian-arian eratu behar den nazioarteko sistema berri horren adierazpena. Nozio hori GEAUren 1. artikuluan bildu da.

Nozio horren arabera, giza eskubideen defentsarako gune eta tresna publiko berriak sortu behar dira, Estatu baten eta hango nazionalen arteko loturatik haratago. Horien artean, eta Estatu espainolari dagokionez, Autonomia Erkidegoen eta Europar Batasunaren zeregina nabarmendu beharko da, betiere horrekin batera eredu berri horri ondoen egokitzen zaion Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia baliatuta.

GEAUren arabera, pertsona orok du herritarretako bat izateko eskubidea. Eta hori ez da gaur egun gauzatzen; izan ere, Estatu demokratiko eta egiazkoko nazionalak diren pertsonek soilik gara dezakete erabat beren nortasuna.

Horri dagokionez, Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziak eman litzakeen aukerak nabarmendu behar dira, Estatu espainolean bizi diren atzerritarren konstituzio posizioari dagokionez. Aukera horiek, orain arte, ez dira aztertu.

## 2. KONSTITUZIOAREKIKO LOTURA

Auzitegi Konstituzionalaren azaroaren 23ko 107/84 Epaiaren 3. argudio juridikoak honako hau dio:

Konstituzioaren 14. artikuluak "espainiarrak" soilik hartzen ditu eraginpean, aldarrikatzen duen berdintasun-printzipioari dagokionez. Konstituzioaren testuari jarraiki, espainiarrak dira «berdinak legearen arabera», eta ez dago berdintasun hori atzerritarrei hedatzen dien agindurik.

Hala ere, Konstituzioak atzerritarren eta espainiarren berdintasuna ez deklaratzea ez da arazoa konpondutzat emateko argudio nahikoa, atzerritarren eta espainiarren arteko tratu-desberdintasuna Konstituzioaren arabera onargarria dela kontuan hartuta, edo, are gehiago, kontuan hartuta Konstituzioak ez duela barnean hartzen atzerritarren eta espainiarren arteko berdintasunari buruzko auzia planteatzea. Eta ez da argudio nahikoa ez delako Konstituzioaren 14. artikulua soilik aintzat hartu behar; izan ere, artikulu horrez gain, beste agindu batzuk ere hartu behar dira kontuan; bestela ezin da zehaztu atzerritarrek zer posizio juridiko duten Espainian.

Konstituzioaren 13. artikuluaren arabera, «Atzerritarrek titulu honek bermatzen dituen askatasun publikoak izango dituzte Espainian, itunek eta legeek ezartzen dutenaren arabera». Horren ondorioz, Konstituzioaren lehen tituluan aintzat hartutako eskubideak eta askatasunak —«askatasun publikoak» terminoak, jakina, ez du esanahi mugatzailerik— nazioarteko itunen eta Espainiako barne-legediak ezartzen duten heinean baliatuko dira, betiere arau horietan aurreikusitako baldintzen eta edukiaren arabera, *eta beraz berdintasuna edo desberdintasuna, eskubide eta askatasun horien titulartasunari eta baliatzeko aukerari dagokienez, itunaren edo legearen borondate librearen baitan egongo dira, Konstituzioan aurreikusitakoaren arabera.*

Aurreikuspen horrek, ordea, ez du esan nahi atzerritarrek eskubide eta askatasun publikoei dagokienez duten posizio juridikoa deskonstituzionalizatu nahi izan denik; izan ere, Konstituzioak ez dio atzerritarrek, Espainian, itunek eta legeak ematen dizkieten askatasunak izango dituztenik, baizik eta «titulu honek bermatzen dituen askatasun publikoak (...), itunek eta legeek ezartzen dutenaren arabera». Beraz, atzerritarrei aintzat hartutako eskubideak eta askatasunak eskubide konstituzionalak dira, eta, beraz, Konstituzioak babesten ditu —dagokien erregulazio espezifikoaren barnean—; baina denak ere, salbuespenik gabe, legezko konfigurazioa duten eskubideak dira.

Atzerritarrei eskubide jakin batzuk —bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako, intimitaterako, eta askatasun ideologikorako eskubideak, besteak beste— konstituzio aginduz dagozkie; beraz, eskubide horiei dagokienez ezin dira modu desberdinean tratatu atzerritarrak eta espainiarrak.

Konstituzio-doktrina horri jarraiki, atzerritarraren estatutua honako hiru kategoria hauetan oinarrituta eratzen da ordenamendu juridikoan:

- Giza duintasuna bermatzeko ezinbestekoak diren eskubideak; eskubide horiek, beraz, pertsona guztiei dagozkie, eta ez dago desberdintasunik ez titulartasunean ez eskubideak baliatzeko aukeran. Funtsezko eskubideen talde horretan, konstituzio aginduz, herritartasun inklusibo edo zibikoaren printzipioa biltzen da.
- Atzerritarrei ez dagozkien eskubideak: 23. artikuluan bildutakoak, tokiko hauteskundeetan botoa emateko eta hautagai izateko eskubidea izan ezik. Nolanahi ere, beste atal batean aztertuko dugu Europako ordenamendu juridikoari esker eskubide horietan herritartasun-elementuak txertatzeko ahalmena.
- Itunetan eta legeetan xedatutakoaren baitako titulartasuna eta baliatzeko aukera dituzten eskubideak, betiere haien konstituzio-konfigurazioa eta funtsezko edukia errespetatuz. Kategoria hori oso garrantzitsua da; izan ere, oinarrizko eskubideak biltzen ditu, eta, bertan, nazionalekiko berdintasunik ezaren printzipioa desagerraraz daiteke; beraz, Estatuak —edo Autonomia Erkidegoak, betiere dagokion eskubidean eskumena badu— herritartasun inklusibo edo zibikoaren printzipioa garbi ezar dezake.

# 3. NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ESPARRU JURIDIKOA: BATEZ ERE ASKATASUN, SEGURTASUN ETA JUSTIZIAKO GUNE BAT EGIAZ SORTZEA EUROPAN

## 3.1. NAZIOARTEKO ESPARRU JURIDIKOA

### 3.1.1. Oinarrizko eskubideen babesaren eremu unibertsala

Nazioarteko lankidetza juridikoaren eremuaren barnean, Nazio Batuen Erakundeak giza eskubideen eremuan egiten duen zeregina nabarmendu behar da. Nazio Batuen Batzar Nagusiak, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaz gain (1948) —Konstituzioaren 10.2 artikuluan aipatzen da— beste Adierazpen batzuk egin ditu atzerritarren eskubideen eremuan. Bereziki, Estatu espainolak berretsitakoak aipatuko ditugu:

- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, 1966koa.
- Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna, 1966koa.
- Bi itun horietako hautazko protokoloak: batez ere Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren lehen eta bigarren Hautazko Protokoloak.

Bertako nazionalak izan gabe Estatu batean bizi diren pertsonen eremuan garrantzitsuak diren bestelako Adierazpen eta konbentzioak:

- Era guztietako Arraza Diskriminazioa ezabatzeari buruzko Adierazpena (1963): horren 14. artikulua barne. Artikulu horrek kexa indibidualak jasotzeko eskumena ematen dio Arraza Diskriminazioa Ezabatzeko Lantaldeari (139. BOE, 1998ko ekainaren 11).
- Lurralde Asiloari buruzko Adierazpena (1967).
- Masa-komunikabideek bakea eta nazioarteko elkar ulertzea indartzen, giza eskubideak sustatzen, eta arrazakeriaren, apartheid-aren eta gerrara bultzatzearen aurkako borrokan laguntzeari dagozkion oinarrizko printzipioei buruzko adierazpena (1978).
- Arrazari eta arraza-aurreiritziei buruzko adierazpena (1978).
- Erlijioan edo sinismenetan oinarrituriko intolerantzia eta diskriminazio modu guztiak ezabatzeari buruzko adierazpena (1981).
- Bizi diren herrialdeetako nazionalak ez diren pertsonen Giza Eskubideei buruzko adierazpena (1985).
- Gutxiengo nazional edo etniko, erlijioso eta linguistikoetako kide direnen Eskubideei buruzko adierazpena (1992).
- Arrazakeriari, arraza-diskriminazioari, xenofobiari, eta intolerantziako modu lotuei buruzko Mundu Konferentziako Durbango Adierazpena (2001).

Espainiak berretsi dituen giza eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenei dagokienez:

- Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Hitzarmena (1951) eta horren protokolo gehigarria (1967).
- Aberrigabeen Estatutuari buruzko Hitzarmena (1954) eta Aberrigabeziako kasuak murrizteko Konbentzioa (1961).
- Esklabotasuna, esklabo-salerosketa eta esklabotasunaren pareko praktikak desagerrarazteari buruzko Konbentzio gehigarria, 1957koa.
- Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioa.
- Arraza-diskriminazioa ezabatzeko Hitzarmena (1965).
- Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa (1989) eta horren Hautazko bi Protokoloak.
- Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa eta horren hautazko protokoloa (1999).
- Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarrien aurkako konbentzioa (1984), honen 22. artikulua barne. Torturaren aurkako Lantaldeari kexa indibidualak jasotzeko ahalmena ematen dio artikulu horrek.
- Nazioz haraindiko delinkuentzia antolatuaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa, pertsonen, eta batez ere emakumeen eta adingabeen trafikoa prebenitzeari, ezabatzeari eta zigortzeari buruzko Protokoloak osatzen duena.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen Hitzarmenei dagokienez, Estatu espainolak honako hauek berretsi ditu:

- Bortxazko edo derrigorrezko lanari buruzko 29. Hitzarmena eta Bortxazko lana desagerrarazteari buruzko 105. Hitzarmena.
- Askatasun sindikalari eta sindikatzeko eskubidearen babesari buruzko 87. Hitzarmena.
- Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 97. Hitzarmena, langile migratzaileei buruzkoa (berrikusia), 1949koa.
- Sindikatzeko eskubideari eta negoziazio kolektiboari buruzko 98. Hitzarmena.
- Balio bereko lanarengatik gizonen eta emakumeen lan-indarrak ordainsari berdina jasotzeari buruzko 100. Hitzarmena.
- Gizarte Segurantzaren gutxieneko arauari buruzko 102. Hitzarmena.
- LANEren 111. Hitzarmena, lanaren eta zereginaren arloko diskriminazioari buruzkoa (1958).
- Lanean onartzeko gutxieneko adinari buruzko 138. Hitzarmena.
- 182. Hitzarmena, haurrek lan egiteko modurik okerrenak debekatzeari eta lan egiteko modu horiek ezabatzeko berehalako ekintzari buruzkoa.

Hala ere, aztertutako eremuetan, Estatuak ez ditu berretsi honako hitzarmen hauek —aztergai dugun gaiari dagokionez interesgarriak direlako aipatuko ditugu—:

- LANEren 143. Hitzarmena, abusuzko baldintzetan egiten diren migrazioei eta langile migratzaileen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzeari buruzkoa (1975).
- Langile Migratzaileak eta haien familiak babesteko Nazio Batuen Hitzarmena (1990).

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) bultzatutako hitzarmenei dagokienez, Espainiak honako hauek berretsi ditu:

- Hezkuntza-arloko diskriminazioen aurkako Hitzarmena.
- Adiskidetzearen eta Ofizio Onen Batzordea eratzeko Protokoloa.

Tresna horiek gizaki guztien duintasuna eta berdintasuna dute oinarritzat, baita honako helburu hau ere: pertsona guztien giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua garatzea eta bultzatzea, arraza, sexu, hizkuntza edo erlijioagatiko bereizketarik gabe[1] .

### 3.1.2. Oinarrizko eskubideen babesaren eremu europarra

Europako Kontseiluak, giza eskubideen babesa eta garapena sustatzen du.

Oinarrizko eskubide eta askatasunak babesteko eta garatzeko berariazko hitzarmenak sustatu ditu Kontseilu horrek. Espainiak honako hitzarmen hauek berretsi ditu:

- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena (1950), 11. Protokoloak berrikusia, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren nahitaezko jurisdikzioa ezartzen duena. Europako Hitzarmenaren Hitzarmen materiala zabaldu egin zen, honako hauen bidez: 1. Protokoloa (11. BOE, 1991ko urtarrilaren 12koa) eta 6. Protokoloa (92. BOE, 1986ko apirilaren 17koa). Espainiak biak berretsi zituen.
- Europako Gutun Soziala (1961) eta haren protokolo gehigarria (1988).
- Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarrien prebentziorako hitzarmena (1987) eta haren bi Protokolo Gehigarriak.
- Langile Migratzaileen Legezko Estatutuari buruzko Europako Hitzarmena (1977).
- Nazionalitateari buruzko Europako Hitzarmena (1997).
- Gutxiengo Nazionalak babesteko Esparru Hitzarmena (1995).
- Ziberdelituari buruzko nazioarteko Hitzarmena (2001) eta sistema informatikoaren bitartez ma-

1 Honako hauek esanbidez jaso dituzte adierazitako oinarri eta helburuak: Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren 2. eta 26. artikuluek, Itunean aintzat hartutako eskubideak diskriminaziorik gabe baliatzeko eskubidea ezartzen dutenek; Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Nazioarteko Itunaren 2.3 artikuluak, eskubide ekonomikoei dagokienez diskriminazioren bat onartzen eta eskubide sozial eta kulturalei dagokienez diskriminaziorik onartzen ez duenak; Era guztietako arraza-diskriminazioa ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioaren 1.3 artikuluak, nazionalitatea dela-eta diskriminazio-tratua emateko debeku zorrotza ezartzen duenak; LANEren 97. Hitzarmenaren 6. artikuluak, langile migratzaileei dagokienez diskriminaziorik ezaren printzipioa ezartzen eta lan-eskubideen arloan nazionalei ematen zaiena bezain ona ez den tratu oro debekatzen duenak.

terial arrazista eta xenofoboa hedatzea zigortzen duen protokoloa (2003).

Estatu espainolak ez ditu berretsi Europako eremuko honako Hitzarmen hauek —aztergai dugun gaiari dagokionez interesagarriak direlako aipatu ditugu—:

- Atzerritarrek tokiko bizitza publikoan parte hartzeari buruzko Hitzarmena (1992), aurreko bost urteetan Alderdi den Estatuan bizi diren atzerritar guztiei hauteskundeetan botoa emateko eta hautagai izateko eskubidea onartzen duena.

Europako eskualde-esparru horretan, jakina, garrantzi berezia du Giza Eskubideak babesteko Europako Hitzarmenak; izan ere, demanda indibidualei dagokienez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren nahitaezko jurisdikzioa ezartzen du, baita Auzitegi horren babesa eskatzeko aukera ere, Estatuek beren lurraldeetan dauden pertsonei Hitzarmenean aintzat hartutako eskubideak urratzen badizkiete.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Jurisprudentziak etorkin atzerritarren eskubideak babesteko Nazioarteko Zuzenbideko esparrurik zabalena garatu du. Horrez gain, Europar Batasunaren Itunaren 6.2 artikuluak ezartzen duenez, Batasunak oinarrizko eskubideak errespetatuko ditu, Giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesteko Europako Hitzarmenean bermatzen diren bezalaxe, Erkidegoko zuzenbidearen oinarrizko printzipiotzat hartuta.

Beste jardun batzuei dagokienez, garrantzitsua da nabarmentzea arrazakeriaren eta intolerantziaren aurkako Europako Batzordea (ECRI) sortu izana eta Batzorde horrek egindako lana.

## 3.2. ERKIDEGOKO ESPARRU JURIDIKOA

### 3.2.1. EBren immigrazio-politiken egungo arau-egoera

Amsterdameko Ituna[2] —1997an sinatu zen— indarrean hasi arte, Europar Batasuneko herrialdeek immigrazioaren eta asiloaren arloan egindako bateratze-lana gobernuen arteko lankidetza juridikoa eta politikoa izan da batez ere. Lankidetza horrek, funtsean, ez du zerikusirik Erkidegoko zuzenbidearekin. Hona hemen lankidetza horren emaitzarik adierazgarrienak:

- Dublingo Hitzarmena (1990), asiloaren erregulazioari eta asiloa eskatzeko prozedurari buruzkoa.
- Schengen-eko Akordioak (1985) aplikatzeko Hitzarmenak (1990), besteak beste, Erkidegoko Estatu askoren arteko barne-mugak kentzea arautzen zutenak.

1999ko maiatzean Amsterdameko Ituna indarrean hasi zenetik, Europar Batasunak Erkidegoaren eremuan immigrazio eta asilo politikak garatzeko eskumena du. Ordura arte, gobernuen arteko lankidetzaren esparruan gauzatzen ziren. Diskriminazioaren aurkako borroka Erkidegoaren eskumena da gaur egun eta Schengeneko Itunaren ondarean txertatu da. Erkidegoaren esparruko muga komunetako kontrolak kentzeari (Erresuman Batukoak eta Irlandakoak izan ezik) buruzko akordioa da itun hori.

Europar Batasuna Estatukide guztiak eraginpean hartzen dituzten politikak eta araudiak garatzen ari da pixkanaka. Hona hemen horietako batzuk:

- Hagako programa[3], Europako Kontseiluak 2004ko azaroaren 5ean onartua, Europar Batasunaren Ekintza Programa biltzen duena.
- Hagako programan, Tampere-n 1999an akordioak egin zirenetik bezalaxe, integrazio politikei aipamen berezia egin eta politika horien premia finkatu zen. Era berean, helburu komunak ezartzearekin bat datorren Europako esparrua proposatzen da.

Giza Eskubideei dagokienez, Europako Erakundeek eta Estatukideek honako tresna hauek izan behar dituzte kontuan Erkidegoko Zuzenbidea gauzatzen dutenean:

- Langileen Oinarrizko Eskubide Sozialen Erkidegoaren Gutuna (1989).
- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna, Niza (2000).

2 Amsterdameko Itunaren 2. artikuluak "askatasun, segurtasun eta justiziako gune" bat ezarri zuen. Gune hori lortzeko, kanpoko mugak kontrolatzeko neurriak ezarri ziren. Neurri horiek IV. Tituluko 61-69. artikuluetan bildu dira, "Bisatuak, asiloa, immigrazioa eta pertsonen zirkulazio libreari lotutako beste politika batzuk" izenburupean.

3 Lan bila datozen etorkin ekonomikoak onartzeko esparru komuna sortzeko premia planteatzen du. Immigrazio irregularraren prebentziorako ekimen komunak proposatzen ditu eta Schengeneko ondarea aplikatzearen garrantzia nabarmentzen du. Honako helburu hau ezarri du: asilorako prozedura komuna eta asiloa edo babes subsidiarioa ematen zaienentzako egoera uniformea ezartzea. Helburu hori Dublineko Hitzarmenean ere landu zen (1990). Jatorrizko herrialdeekiko koordinazioaren eta lankidetzaren premia planteatzen du, immigrazioaren arrazoi sakonei erantzuteko, baita hurrengo urteetarako immigrazioko eta asiloko politikak garatzeko premia ere.

Era berean, etorkinen integraziorako funtsezkoak diren bi zuzentarau eman dira, tratu berdintasuna bultzatzen eta diskriminazioari aurre egiten diotenak:

- Kontseiluaren 2000/43/EE Zuzentaraua, pertsonen, edozein arraza- edo etnia jatorritakoak izanik ere, tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.
- Kontseiluaren 2000/78/EE Zuzentaraua, 2000ko azaroaren 27koa, lanean eta prestakuntzan tratu berdina emateko legezko esparrua ezartzeari buruzkoa.

Ezbairik gabe, bi Zuzentarau horiek Europar Batasunaren eremuko tresnarik garrantzitsuenetakoak dira.

Bi Zuzentarau horiek Zerga, Administrazio eta Lan Arloko abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bidez txertatu ziren Espainiako ordenamendu juridikoan (lege horri Estatuko 2004rako aurrekontu orokorrei buruzko legearekin batera doan Legea deitu ohi zaio).

Erkidegoaren erakundeek ez dute sortu immigrazio-politikaren alderdi guztiak arautzen dituen gorputz juridikorik, eta, bereziki, ez dago Batasunean sartzeko baldintzak arautzen dituen Europarako bakarra den araurik, betiere irabazi-asmorik gabeko egoitzako bisatuei eta irabazizko egoitzako bisatuei dagokienez. Horiek Estatukideen eskumena dira oraindik ere.

Dena den, azken urteotan izugarri areagotu da atzerritartasun-zuzenbidearen garrantzi handiko alderdiak modu bateratutan arautzen dituzten Zuzentarauen kopurua. Horietan nabarmena da honako bi ikuspegi hauen arteko tentsioa: Schengeneko Itunaren ondarearen eskema errepikatzea eta aukera berriak aztertzea, askatasun, segurtasun eta justiziako egiazko gune bat sortzeko aurrerapausoak egitea, pertsona orok, edozein nazionalitate duela ere, Erkidegoaren babesa lortzeko aukera izan dezan bere oinarrizko eskubideak bermatze aldera.

### 3.2.2. Europako herritartasuna ezartzea, askatasun, segurtasun eta justiziako egiazko gunearen funtsezko adierazgarri gisa

Schengeneko ereduaren beste muturrean, "europar herritartasunaren" nozioak bidezko erantzunak lortzea ahalbidetzen du, hots, giza duintasunaren, askatasunaren, berdintasunaren eta elkartasunaren bortxaezintasunaren balio komunetan oinarritutako eta demokraziaren eta Zuzenbide Estatuaren printzipioak gauzatzera bideratutako erantzunak.

Aurreko mendeko 70eko hamarkadaren lehen erdian ekin zion Europako Erkidegoko Justizia Auzitegiak erakunde politiko subirano batean oinarrituta ez dagoen sistema instituzional batean —Europako Ekonomia Erkidegoan, alegia— indarra hartzen ari den herritartasunaren nozioari edukia emateko ibilbideari.

1984an, lehen aldiz erabili zen Europako sistema juridikoan "europar herritartasuna" adierazpidea Europako Parlamentuak Europar Batasunaren konstituzio Proiektua formulatu zuenean.

Europar Batasunaren Itunak —Maastrichten 1992ko otsailaren 7an izenpetua—, aldiz, Batasunaren egiturazko bost helburuen artean honako hau definitu zuen: "Estatukideetako nazionalen eskubide eta interesen babesa indartzea, Batasuneko herritartasuna sortuz". Horretarako, Europako Erkidegoaren Itunari "Bigarren Zatia" gehitu zion, "Batasuneko Herritartasuna" berariazko izenburua duena.

"Batasuneko herritartasuna" edo "Erkidegoko herritartasuna" adierazpideak herritartasunaren nozio mugatua adierazten du, modu desberdinean. Azkenean, adierazpide hori bildu zen Europarako Konstituzioa ezarri zuen Itunaren I-10 artikuluan. Itun hori Erroman, 2004ko urriaren 29an, sinatu zen.

Adierazitako artikuluak (I-10), Batasuneko Herritartasuna goiburupean, honako hau dio: "Estatukideren bateko nazionalitatea duen pertsona orok du Batasuneko herritartasuna. Batasuneko herritartasuna herritartasun nazionalari gehituko zaio, eta ez du hura ordeztuko."

Herritartasunaren nozio hori aldez aurretik Estatukideren bateko nazionalitatea duen pertsona orori Europako Erkidegoaren Itunak esleitzen dizkion eskubide eta betebeharrei loturik dago soilik.

Aldiz, herritartasunaren nozio zabala Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean bildutakoa izan liteke eta honela defini genezake: faktore instituzional eta juridikoen sistema bat da, eta faktore horien bidez, bere jardunaren ardatzat pertsonak dituen eredu sozialean oinarritzen den erakunde politikoak askatasun, segurtasun eta justiziako gune batean integratzen ditu bere lurralde-eremuan bizi diren pertsonak.

Gutun honek Europarentzako Konstituzioa ezartzen duen Itunaren I-10 artikuluan bildutako aurreikuspenek baino hedadura handiagoa du. Hain zuzen ere, Gutun horrek biltzen du "europar herritartasunaren" nozioan oinarrituta emigrazioari buruzko Erkidegoko politikan askatasun, segurtasun eta justiziako Europako

gune bat eratzeko behar diren balioak eta printzipioak txertatzeko konstituzio-oinarria.

Horretarako, Europako Konstituzioa deritzanaren I-10 artikuluan ez bezala —artikulu horretan ezarritakoaren arabera, dagoeneko Batasuneko Estaturen bateko nazionalitatea dutenak besterik ez dira Erkidegoko herritartasunaren zati—, ezinbestekoa litzakete EBren Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak 2003ko maiatzaren 14ko Ebazpenean egindako proposamenari heltzea (SOC/141-CESE 593/2003). Ebazpen horretan, Europar Batasuneko herritarren eskubideak Batasunean modu egonkorrean edo luzaroan bizi diren beste Estatu batzuetako nazionalei zabaltzeko premia adierazi zen.

Era berean, nabarmendu behar da Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzian bide berri bat zabaldu dela orain gutxi. Bide hori baliagarria izan liteke Estatuaren ordenamendu juridikoan europar herritartasunaren nozio berri hori arazorik gabe onartzeko. Hain zuzen ere, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak 2005eko apirilaren 4an emandako Epaiaz ari gara [4].

Jurisprudentzia hori kontuan izanik, atzerritarrei dagokienez lau posizio juridiko era litezke, gutxienez, Espainian, eta, segurtasuneko, ordenako edo osasun publikoko egiazko arrazoien ondorioz kanpo-mugak aplikatzeko aukera justifikatua salbuetsita, esan liteke egoitzarako eta horri eusteko eskubide subjektiboa dagoela.

Honako lau kasu hauetaz ari gara: Erkidegoko herritarrez (haien ahaideak barne, edozein nazionalitate dutela ere), familia berriz elkartzeaz, dagoeneko aintzat hartutako asilorako eskubideaz, eta dagoeneko egoiliarrak diren hirugarren Estatuetako nazionalez.

Azkenik, garrantzitsua da Erkidegoko ordenamendu juridikoak, egoitza-baimenik ez duten Erkidegotik kanpoko atzerritarrei dagokienez, gaur egun biltzen dituen aukerak aipatzea. Horri dagokionez, herritartasunaren printzipioa, “herritartasun unibertsalaren” dimentsioan, uzkurdura juridikoko fasean dago argi eta garbi. Komunikabideetako mezu jakin batzuek bultzatzen dute uzkurdura hori, hain zuzen ere migrazio-fluxuen kudeaketa-politiken defizitak eta herritarren segurtasuneko politikak eraginkorrak ez izatea lotzen dituzten mezuek.

Europar Batasuneko Gutunak irismen unibertsala duten oinarrizko eskubideak jaso izanak ere hein txiki batean baino ezin du arindu dinamika hori.

Hala ere, Europar Batasuneko Gutunean prestazio-eskubideei buruz jasotako programa-printzipio jakin batzuk, irismen unibertsalekoak horiek ere, heda daitezke, hala nola honako hauek:

- Gizarte-laguntzarako eskubidea, gizarte-bazterkeriari eta pobreziari aurre egitearren.
- Etxebizitza-arloko laguntzarako eskubidea, behar adina baliabide ez dituztenek bizimodu duina izatea bermatzearren.
- Osasun-arloko babesaren onuradun izateko eskubidea.
- Babes judizial eragingarria izateko eskubidea, eta aldez aurretik legearen arabera izendaturiko epaile independente eta inpartzial batek entzun dezan kausa, ekitatez eta publikoki, zentzuzko epean; era berean, kausa horretarako pertsona orok eska dezake beretzat aholkua, defentsa eta ordezkapena, eta horretarako doako laguntza juridikoa izateko eskubidea izango du, justizia egiaz eskura izatea bermatzeko beharrezkoa denean.

4 “Aditzera eman beharra dago, ordea, ematen diren argudioek eta ateratzen den ondorioak —oso eremu orokorrekoak dira— ez dutela eraginik egoera zehazten duten zertzelada espezifikoak biltzen dituzten kasu zehatzetan —eta ez dira horietan proiektatzen—, hala nola honako hauetan: asilo-eskubidearen erregimen juridikoan (13.4 EE artikuluan bildutako erregulazio espezifikoa du); Europar Batasuneko herritarrek Espainian sartzeko duten eskubidean (gainerako atzerritarrei aplikatu beharreko arauditik bereizten dituzten nazioarteko itunek eta beste arau batzuek arautzen dute); dagoeneko Espainian legez bizi diren eta aldi baterako irten ondoren berriz ere lurralde nazionalean sartu nahi duten atzerritarren egoeran; eta familia berriz elkartzeko kasuetan...”

## 4. ESTATUKO ORDENAMENDU JURIDIKOA: ETORKINEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Atzerritartasun Zuzenbidea da immigrazioari eta atzerritartasunari buruzko Estatuko politika osatzen duten oinarrizko printzipioak hizkuntza juridikoan biltzen dituen ordenamendu juridikoaren sektorea. Gaur egun Estatu espainolean indarrean dagoen Atzerritartasun Zuzenbideak laurogeiko hamarkadaren erdialdean du sorburua, Espainiako Atzerritarren Eskubideei eta Askatasunei buruzko 7/1985 Lege Organikoa (“Atzerritarrei buruzko legea”) eta Asilo Eskubidea eta Errefuxiatuaren Izaera arautzen dituen Legea (1984) eta lege horiek garatzeko erregelamenduak onartu zirenean.

Auzitegi Konstituzionalaren bi epai garrantzitsurekin osatu zuten hasierako arau diseinua: bata, 107/1984 epaia, Espainiako atzerritarren oinarrizko eskubideei buruzkoa, eta, bestea, 115/1987 epaia, Herriaren Defentsa Bulegoak 7/1985 Legearen hainbat aginduren aurka jarritako konstituziokontrakotasun-errekurtsoa ebatzi zuena.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean-edo, multzo horretako araudietan aldaketa handiak egin ziren. Bereziki nabarmendu behar dira Asilo Legearen aldaketa (1994an), lege hori garatzeko araudi berria, eta Atzerritarrei buruzko Legea garatzeko erregelamendu berria onartu izana 1996. urtean. Hala ere, 7/1985 Lege Organikoa —arlo horretako funtsezko araua zen— ez zen aldatu 2000. urtera arte. Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarte-integrazioari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa onartu zenean gauzatu zen lehen erreforma. Lege horrek bi asmo zituen bereziki: integrazioari indar handiagoa ematea, herritartasunaren nozio berri bat definituz —Immigrazioari buruzko II. Plan honen asmoa ere bada—, eta 1985eko Legearen eskema zurruna hein batean gainditzea.

Hala ere, lege hura aldatzeko prozesua hasi zen berehala, eta, azkenean, 8/2000 Lege Organikoa onartu zen, aurrekoaren hainbat eta hainbat artikuluri idazketa berria emanda. Bigarren erreforma horren joera nagusiek hiru noranzko dituzte. Alde batetik, egiaztatu denez, irregulartasun-egoeraren estatutu juridikoak okerrera egin du; izan ere, egoera horretan dagoen biztanleriak balia ditzakeen eskubideak murriztu egin dira. Bestetik, zehapen-erregimena gogortu egin da nola edukiari hala prozedurei dagokienez. Azkenik, Gobernuari askoz ere eskumen handiagoa eman zaio Legearen alderdi asko arau bidez garatzeko. Hainbat erakundek, Eusko Legebiltzarrak besteak beste, konstituziokontrakotasun-errekurtsoa aurkeztu zuen erreforma horren aurka, baina, tamalez, gaur egun ebatzi gabe dago oraindik ere.

Horretan oinarrituta, Gobernuak “Atzerritarri buruzko Legea” garatzeko beste Erregelamendu bat onartu zuen 2001ean, baina ez zen onbideratu Estatuko ordenamenduaren egonkortasuna. 2003ko azaroaren 21ean, azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa argitaratu zen BOEn. Lege horren bidez, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei eta haien Gizarte Integrazioari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatu zen, Estatuko Administrazio Orokorrak immigrazioaren arloan zituen ahalmen diskrezionalak eta kontrolekoak zabalduz eta atzerritarrak babesgabetasun handiko egoera irregularrean jarriz. Etorkinen oinarrizko eskubide gehiago urra zitezkeela ikusita, Eusko Legebiltzarrak konstituziokontrakotasun-errekurtsoa aurkeztu zuen Lege berri horren aurka ere.

2005ean, berriz, Atzerritarrei buruzko Legea garatzeko Erregelamendu berria onartu zuen Gobernu berriak, abenduaren 30eko 2393/2004 EDren bidez. Erregelamendu horrek atzerritar etorkinek Espainian duten erregimen juridikoa ezarri zuen; hain zuzen ere, atzerritarren eta haien ahaideen sarrera eta dokumentazioa lortzeko aukera arautu zuen, baita haien kontrola ere.

Eskubideei dagokienez etorkinen egoera gogorra hein batean arintzearren, Erregelamendu horretan ezohiko normalizazio-prozedura ezarri zuen, dokumentazioa lortzeko. Nolanahi ere, Erregelamendu horrek ez zuen ekarri etorkinek —batez ere irregularrek— oinarrizko eskubideak baliatzeko aukera berreskuratzea.

Bestalde, Estatu espainolak, 1993az geroztik urteko onartzen duen langileen kontingentearen bitartez, Espainiako lurraldean urtero sartzen diren etorkin erregularren kopurua zehazten du, baita etorkin horien banaketa geografikoa eta zer sektore ekonomikotan jardungo duten ere.

Atzerritarrentzat ezarritako erregimen juridikoak ez du errazten Espainian sartzea, babesa lortzea, bizitzea eta lan egitea ahalbidetzen duten tituluak lortzea; aldiz, oso erregimen zorrotza da, dokumentazio erregularra lortzeko aukera zailtzen duena. Hori dela-eta, atzerritar etorkin ugari daude irregulartasun-egoeran, eta hori oztopo handia da pertsona horiek beren eskubideak gara ditzaten.

Europar Batasunaren eremuan, eta beste estatukide bateko egoiliarrak ez diskriminatzearen printzipioari eutsiz, 178/2003 ED garatu zen. Dekretu hori Europar Batasuneko Estatukideetako eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmeneko partaide diren beste Estatuetako nazionalak Espainian sartzeari eta bertan irauteari buruzkoa da. Dekretu horrek ekarri zuen ondorio nagusia honako hau da: Espainian bizi diren Europar Batasuneko Estatukideren bateko nazionalen erregimena ez da atzerritarrei buruzkoa eta ez dute Espainiako nazionalek baino eskubide gutxiago. Europar Batasuneko herritarren kategoria juridikoa dute, ez atzerritarrena.

Asilo-eskubidea eta errefuxiatuaren izaera arautzen dituen martxoaren 26ko 5/1984 Legea ere garrantzitsua da. Maiatzaren 19ko 9/94 Legeak eta azaroaren 20ko 14/03 Legeak eta hura aplikatzeko erregelamenduak —otsailaren 10eko 203/1995 EDren bidez onartua (2005eko urtarrilaren 7ko BOE)— aldatu zuten lege hori. Asilo eskubidea eta bestelako babes motak lortzeko baldintzak arautzen ditu.

Araudi multzo hori da Atzerritartasun Zuzenbidearen ardatz nagusia, fenomeno hori kudeatzeko eta kontrolatzeko politiketan oinarritzen dena.

Ikusi dugunez, atzerritar etorkinen eskubideetako batzuk ez daude haien administrazio egoerari loturik. Pertsonen duintasunarekin zerikusia duten eskubideak dira horiek: bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako, intimitaterako, askatasun ideologikorako eskubideak (Auzitegi Konstituzionalaren 107/84 Epaia), babes judizial eragingarrirako eskubidea (Auzitegi Konstituzionalaren 99/85 Epaia), norberaren askatasun eta segurtasunerako eskubidea (Auzitegi Konstituzionalaren 115/87 Epaia), etab.

Egoera horietan dauden pertsonen lan- eta sindikatu-eskubideekin zerikusia duten bi alderdi nabarmendu behar dira:

- 4/2000 LOren 36.3 artikuluak (14/2003 LOk aldatu zuen) honako hau dio hitzez hitz: “Atzerritar bat kontratatzeko, artikulu honetako 1. idatz-zatian adierazitako baimena eskatu beharko du enplegatzaileak. Enplegatzaileak dagokion baimena ez izateak —horrek ekar diezazkiokeen erantzukizunak bazter utzi gabe, gizarte-segurantzaren arlokoak barne— ez du ekarriko langile atzerritarraren lan-kontratua baliorik gabe geratzea langile horren eskubideei dagokienez; era berean, hori ez da oztopo izango langileak legozkiokeen prestazioak lor ditzan».

Jurisprudentzia, horri dagokionez, oso argigarria izan da. Auzitegi Gorenak, 2003ko ekainaren 9an eta urriaren 7an emandako epaietan, lan egiteko baimenik ez duten langileei lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen ondoriozko prestazioak eman behar zitzaizkiela ezarri zuen. Ildo beretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2000ko urriaren 10ean emandako Epaia aipa daiteke.

- Era berean, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 87. Hitzarmenak —askatasun sindikalari eta sindikatzeko eskubidearen babesari buruzkoa— ezarritakoa gogorarazi beharra dago, alegia, langile guztiek dutela sindikatuetan afiliatzeko eskubidea, inolako bereizketarik gabe eta aldez aurretik baimenik behar izan gabe. Horregatik, LANEk baietsi egin zuen UGTk Espainiako Gobernuaren aurka aurkeztutako kexa (2121. kasua). Atzerritarrei buruz Estatuan indarrean dagoen legediak egoitza-baimenik ez duten atzerritar langileei sindikatzeko eskubidea murrizten dielako aurkeztu zuen kexa UGTk.

Egoitza-baimena duten Erkidegotik kanpoko atzerritar etorkinek, berriz, nazionalen eskubide berberak dituzte, honako eskubide hauek salbuetsita:

- Eskubide politikoak: auzi publikoetan, zuzenean edo ordezkarien bitartez, parte hartzeko eskubidea, alegia, botoa emateko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 23. artikuluak arautzen duena. Dena den, Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak ez legezko proposamen bat onartu zuen orain dela gutxi, 2006ko martxoaren 2an hain zuzen ere, Espainiako herritar atzerritarren botoa emateko eta hautagai izateko eskubidea onartzeko ibilbidean aurrera egitearren.
- Funtzio eta kargu publikoetan jarduteko eskubidea (hala ere, 4/2000 LOren 10. artikuluan esanbidez onartzen zaie Administrazioaren zerbitzurako lan-legepeko langileak izateko eskubidea).
- Irabazizko, laneko edo lanbideko jarduerak baliatzeko aukera (besteren kontura edo norberaren kontura) bizitzeko eta lan egiteko baimenaren titulartasunaren baitan dago, 4/2000 LOren 36. artikuluari jarraiki.
- Familian bizitzeko eskubidea familia berriz elkartzeko erregimenak baldintzatu eta mugatzen du. Erregimen hori 4/2000 LOren 16. artikuluan eta hurrengoetan araututa dago (besteak beste, honako eskakizun hauek ezartzen ditu: egoitza- eta lan-baimen berrituaren titularra edo eskatzailea izatea;

ezkontidearen, 18 urtetik beherako ondorengoen edo interesdunaren kargura dauden arbasoen alde soilik balia daiteke; baliabide ekonomikoak eta behar bezalako etxebizitza edukitzea egiaztatu behar da, etab.)

Erkidegoko atzerritarren erregimen juridikoa honako honetan aurreikusitakoa da: 178/2003 Errege Dekretua, otsailaren 14koa, Europar Batasuneko Estatukideetako eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmeneko partaide diren beste Estatuetako nazionalak Espainian sartzeari eta bertan irauteari buruzkoa. Erregimen juridiko hori Erkidegokoen ahaideei ere aplikatzen zaie (2. art.) Honako hau da erregimen horren ezaugarri nagusia: herritar horiek nazionalen eskubide berberak eta baldintza berberetan dituzte, eta, beraz, edozein jardueratan aritzeko eskubidea dute, nola besteren kontura hala norberaren kontura. Gainera, Erkidegotik kanpoko herritarrek ez bezala, tokiko hauteskundeetan eta Europako Parlamenturako hauteskundeetan botoa emateko eskubidea dute, inolako murrizketarik gabe.

Eskubideen titulartasun osoa edukitzeko (eskubide politikoak barne) espainiar nazionalitatea eduki behar da. Espainiako nazionalitatea eskuratzeari buruzko araudia Kode Zibilean bilduta dago. Nazionalitateari dagokionez, Kode Zibila urriaren 8ko 36/2000 Legeak aldatu zuen (Kode Zibilaren 20., 22., 23., 24., 25. eta 26. artikuluak aldatu zituen).

## 5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMENAK

Autonomia Erkidegoek immigrazioari buruzko sektore-politikak garatu dituzte beren eskumenen esparruan, batez ere honako eremu hauetan: gizarte-ongizatea, etxebizitza, hezkuntza eta osasuna. Autonomia Erkidego askotan, administrazio egiturek migrazioaren gaia landu dute nolabait; beste askok partaidetza sozialeko autonomia-arloko Foroak eratu dituzte, hartarako propio diseinaturiko politika publikoetan parte hartzeko, alegia. Era berean, 2001az geroztik hainbat Erkidegok Planak sortu dituzte etorkinen gizarte-integrazioa lortzeko.

EAEri dagokionez, lehenik eta behin aditzera eman beharra dago lehen adierazitako sektore-gaiak ez direla erakunde komunenak soilik, barne-harremanetan ezarri den deszentralizazio-prozeduraren ondorioz.

Ildo horretan, gizarte-ongizatearen eremua da kudeaketan eskumen deszentralizaziorik handiena duena; izan ere, bertan zuzenean esku hartzen dute EAE osatzen duten Lurralde Historikoek eta Udalek.

Bere gobernu-egitura errealitate berrira egokitzeko, EAEk Immigrazio Zuzendaritza sortu zuen 2001. urtean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren barnean. Otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuari jarraiki, hainbat eginkizunen artean honako hau dagokio Zuzendaritza horri: Estatuarekin eta bestelako Administrazio Publikoekin immigrazioaren arloan koordinatzeko mekanismoak eta tresnak proposatzea.

Bestalde, atzerritar kolektiboaren eskubideei dagokienez orain arte planifikazio espezifikorik ez dagoen arren, euskal jardun publikoak oinarri garrantzitsua du; hain zuzen ere, orain dela urte batzuk hasi zen pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko politika aktiboa egiten. Araudi-ikuspegitik, politika horrek planifikazio egokia eta baliabide ugari ditu, eta honako hauetan bildu da: Gizarte Zerbitzuen 5/1996 Legean, Gizarte Bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legean eta Gizarte Eskubideen Agiriaren 10/2000 Legean. Bazterkeriaren aurkako borrokako politika horren helburua da pertsona guztien integrazioa lortzea, haien giza duintasuna aintzat hartuz eta bermatuz; eta, beraz, Plan hau egiteko oinarria izan da, nola araudi-arloari hala arlo politikoari dagokienez.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Immigrazio Zuzendaritza etorkinen integrazioan eragina duten politikak bultzatzeko eta koordinatzeko sortu zen. Zuzendaritza horren helburu nagusia, berriz, honako hau da: gizarte-integrazioa lortzeko ekintzak eta neurriak bultzatzea, immigrazioaren alorrean estrategia propio bat zehaztea EAErentzat, jardunak planifikatzea eta sentsibilizazio-neurriak proposatu eta gauzatzea (Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuaren 16. artikulua).

Bere zereginean sortu duen tresnarik garrantzitsuena Immigrazioari buruzko 1. Euskal Plana lantzea izan zen.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko abenduaren 9an onartu zuen, eta etorkin biztanleria integratzea lortzeko Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako neurri eta jardunak biltzen ditu.

Gainera, Immigrazio Zuzendaritzak atzerritar etorkinak EAEn integratzearekin zerikusia duten araudiak landu eta programak bultzatu ditu:

- 155/2002 Dekretua, ekainaren 25ekoa, immigrazioaren alorrean jarduerak burutzeko laguntzak arautzen dituena. Integrazio, sentsibilizazio, partehartze eta prestakuntzaren arloko jarduerak egiten dituzten Erakunde Publiko eta Pribatuei laguntzak emateko sistema ezartzen du. Besteak beste, EAEko toki-erakundeentzako laguntza-ildoa aipatu behar da. Laguntza-ildo hori immigrazio-teknikariak kontratatzera bideratuta dago, baita Immigrazioko Tokiko Planak landu eta aplikatzera ere, atzerritar etorkinen harrerarako udal-arloko sare publiko baten esparruan.
- 200/2002 Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroa sortzen duena: aktore sozialen, erakunde sozial eta humanitarioen, sindikatuen, enpresaburuen, eta Erakunde eta Administrazio Publikoen arteko hausnarketa eta koordinaziorako gunea.
- HELDU, EAEko etorkinentzako laguntza soziojuridikorako zerbitzua abian jarri du (2002).
- Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokia sortu du (2003). Migrazioen joerei buruzko informazioa sistematizatzeko tresna da.
- BILTZEN Kulturarteko Bitartekotza eta Hezkuntzarako Ekimen Komunitarioak Koordinatzeko Zentroa sortu du (2003). Udalei laguntza emateko zerbitzua da, Administrazioaren, gizarte-erakundeen eta biztanleria etorkinaren eskaeren artean zubiak ezartzen dituena.

Immigrazioari buruzko II. Euskal Plan honekin, Eusko Jaurlaritzak arlo horretan gauzatzen duen politika eguneratu da. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioekin lankidetzan diseinatu eta gauzatu beharko da Plana.

## 6. IMMIGRAZIOARI BURUZKO II. EUSKAL PLANA ORDENAMENDU JURIDIKOAREKIN BAT ETORTZEA

Hainbat eskumen-tituluk eragiten diote zuzenean immigrazioaren kudeaketari gure ordenamenduan. Alde batetik, titulu generikoak daude, eskubideak eta askatasunak betetzeari buruzkoak. Bigarrenik, immigrazioa eta atzerritartasuna funtsezko titulu gisa azaltzen dira ordenamendu konstituzionalean. Azkenik, sektoreen araberako hainbat gaik —hezkuntza, etxebizitza, osasuna edo gizarte-ongizatea— ere badute garrantzia eremu horretan.

Adierazitako eremuetako lehenari dagokionez, adierazi behar da 1978ko Konstituzioaren 10. artikuluak honako hau biltzen duela:

1. Pertsonaren duintasuna, dagozkion eskubide bortxaezinak, pertsonalitatearen garapen librea, legearekiko eta gainerakoen eskubideekiko errespetua politika-arloaren eta bake sozialaren oinarri dira.
2. Konstituzioak onartzen dituen funtsezko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren eta gai horiei buruzko nazioarteko itunen eta akordioen —Espainiako estatuak berretsita— arabera interpretatuko dira".

Konstituzioaren 96. artikuluaren arabera, Espainiako Estatuak berretsitako giza eskubideei buruzko nazioarteko itunek eta hitzarmenek Konstituzioaren ordenamendu juridikoa osatzen dute, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik aurrera, erabateko indarraldia dute.

Eskumena Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen artean banatzeari dagokionez, 149.1.1 artikulua aipatu behar da. Artikulu horren arabera, Estatuari dagokio "espainiar guztiek beren eskubideak baliatzeari eta konstituzio-betebeharrak betetzeari dagokionez, ber-

dintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzak arautzea".

Era berean, EAEko Autonomia Estatutuaren 9.2 artikuluak honako hau ezartzen du:

"Euskal herri-agintariek, beren eskumenen eremuan:

a) Herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.

b) Bizi- eta lan-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatuko dute bereziki.

c) Enplegua gehitzea eta ekonomiaren oreka sustatzeko neurri lagungarriak hartuko dituzte.

d) Gizakien eta giza taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute.

e) Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute."

Hori guztia kontuan hartuta, esan daiteke Estatuari dagokiola eskubideak eta askatasunak Estatu osoan betetzen ote diren bermatzea; EAEk badu ekintzetarako tarte bat, betiere Estatu osorako ezarritakoarekiko positiboa edo osagarria bada, eta horren gutxienekoa ezin da beherantz gainditu, eskumenak inbaditu gabe.

Bestalde, Konstituzioaren 149.1.2 artikuluak ezartzen du Estatuaren eskumen esklusiboa dela nazionalitateari, atzerritartasunari, emigrazioari, immigrazioari eta asilo-eskubideari buruzko gaia; hortaz, Estatuaren erakunde zentralei dagokie funtsezko eremu horietan legeak ematea eta administratzea.

Nolanahi ere, adierazi behar da adierazitako artikuluak ez duela herritartasun kontzeptua aipatzen.

Horrela beraz, aztertu dugun Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak ahalbidetzen duenaren arabera, erabat bateragarria da Konstituzioarekin, arestian adierazitako herritartasun-printzipioa kontuan hartuta, Administrazioek, beren eskumen-eremuan, eskubide eta betebehar nazionalak eta ez-nazionalak parekatzea.

Konstituzio-ikuspegi horri jarraiki, adierazi behar da Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana erabat bateragarria dela; izan ere, plan horrek, EAEren eskumen-esparruan, herritartasun-printzipio hori sakondu nahi du. Kontzeptu hori, hortaz, eskubide multzo bat —zibilak eta politikoak nahiz ekonomikoak, sozialak eta kulturalak— baliatzearekin lotu behar da. Eskubide horiek sektoreen araberako hainbat eremuri eragiten diote, hala nola hezkuntza-arloari, osasun-arloari, etxebizitza-arloari eta gizarte-ongizateko arloari; horiek guztiak EAEren eskumenekoak dira, Autonomia Estatutu berean ezarritakoaren arabera (bereziki 10., 16. eta 18. artikuluetan) eta, oro har, euskal erakundeen eskumen esklusibotzat hartzen dira.

Ildo horretatik, gaiari buruzko funtsezko legegintza Legebiltzar Zentralaren esku geratzen bada ere, Eusko Legebiltzarrari dagokio sektoreen araberako gai guztiak arautzea. Arau horien bitartez, funtsezko legegintzan aurreikusten diren eskubideak baino eskubide gehiago edukitzeko ahalmena ematen dio atzerritarrari.

Autonomia Erkidegoek gero eta eskumen gehiago hartuko dituzte migrazio-fluxuen kudeaketaren arloan, Katalunian gertatu den bezala, eta, beraz, Immigrazioari buruzko II. Euskal Plan honek behar diren jardunak bildu behar ditu errealitate instituzional berri horretara egokitzeko.

Hori guztiak Erkidegoko ordenamendua eta horren baitan hartzen diren erabakiak ahaztu gabe.[5]

5 Atal horretan Getxoko Udalaren Immigrazio Unitateko teknikariek laguntza eman digute.

# III. Definizio zatia



# III. DEFINIZIO ZATIA

## 1. HELBURUAK

### HELBURU OROKORRA

Etorkinak euskal gizartean integratzea da Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren helburu orokorra. Horretarako nahitaezkoa da nazionalitatearen ondoriozko diskriminazio oro kentzea eta giza eskubideak —nola zibilak eta politikoak, hala ekonomikoak, sozialak eta kulturalak— betetzen direla bermatzea, baita betebeharrak nork bere gain hartzea ere.

**Aktoreak**

- Eusko Jaurlaritza (Planarekin konprometituta dauden Sailak eta Erakunde Autonomoak).
- Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak.
- Euskadiko Udalerriak (EUDELen bitartez).
- Gizarte zibila (Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren bitartez).

### HELBURU ZEHATZAK

Honako hauek dira Planaren helburu zehatzak:

1. Immigrazioari buruzko Euskal Politika artikulatzeko egitura, eragile, eskumen eta koordinazio-harremanen sarea artikulatzea.
2. Biztanleria etorkina hasiera batean hartzeko sistemari eustea eta hura hobetzea Udal Arloko Harrera Sare Publikoaren bitartez.
3. Immigrazioaren eta haren kudeaketaren errealitatea etengabe ezagutzeko eta eremuarekin zerikusia duten profesionalak prestatzeko mekanismoak ezartzea.
4. Etorkinen eskubideak bermatzeko mekanismoak sendotzea.
5. Zerbitzu Publikoak (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak eta etxebizitza) baliatzeko baldintzei dagokienez, etorkinek eta bertakoek baldintza berdinak izateko aukera bermatzea eta adierazitako baldintzak kolektibo horretara egokitzea.
6. Etorkinak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua erraztea.
7. Atzerritarrek EAEko gizarte-bizitzan eta politikan parte hartzeko bideak, mekanismoak eta estrategiak sustatzea, herritartasun inklusibotik eratorritako eskubideak gauzatzen direla bermatzeari begira.
8. EAEn dauden kulturen garapena sustatzea, banaka eta batera.
9. Arrisku eta kalteberatasun handieneko egoeran dauden atzerritarrei arreta osagarriaren edota konpentsatzailearen esparrua sustatzea: inoren kargura ez dauden adingabeei, sasoiko langileei, eta esplotazio sexualaren biktimei, esaterako.
10. Bertako biztanleria sentsibilizatzea immigrazioak eta kultura-aniztasunak dituzten alderdi positiboei buruz.
11. Immigrazioari buruzko esku-hartzeak immigrazioaren jatorrizko herrialdeen garapen-prozesuekin lotzea.

## 1. Immigrazioari buruzko Euskal Politika artikulatzeko egitura, eragile, eskumen eta koordinazio-harremanen sarea artikulatzea

Immigrazioari buruzko Euskal Planaren asmoa honako hau da: euskal administrazioek immigrazioari buruz gauzatzen dituzten jardunak biltzea, esleituta dauzkaten eskumenen arabera. Horretarako, nahitaezkoa da jardun horiek sustatu behar dituzten erakunde guztiak egituratzea eta koordinatzea.

**Erakunde gauzatzaileak:**

Eusko Jaurlaritza:
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Emakunde
- Nekazaritza eta Arrantza Saila
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila
- Herrizaingo Saila

Arabako Foru Aldundia; Gipuzkoako Foru Aldundia

EUDEL

## 2. Biztanleria etorkina hasiera batean hartzeko sistemari eustea eta hura hobetzea Udal Arloko Harrera Sare Publikoaren bitartez

Toki-eremua herritarrengandik gertuen dagoenez gero, Udal Arloko Harrera Sare Publikoak ahalegina egin du EAEko udalek eta Mankomunitateek harrera eraginkorra gauza dezaten immigrazioari buruzko teknikariak finantzatuz eta biztanleria etorkinaren errealitateari buruzko diagnostikoak eta Tokiko Planak eginez.

Sarea etengabe koordinatuta dago errealitatearen ezagutzan eta praktika onak bateratzean oinarritutako erantzunak emateko.

**Erakunde gauzatzaileak:**

Eusko Jaurlaritza: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

## 3. Immigrazioaren eta haren kudeaketaren errealitatea etengabe ezagutzeko eta eremuarekin zerikusia duten profesionalak prestatzeko mekanismoak ezartzea

Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia EAEko immigrazioaren errealitatearen ezagutza egunean edukitzeko sortu zen, immigrazioaren egoera aldakorrarekin bat datozen politikak egiteko.

Halaber, prozesu hori hain zabala denez gero, langileak prestatu egin behar dira immigrazioaren eta kulturartekotasunaren eremuetan

**Erakunde gauzatzaileak:**

Eusko Jaurlaritza:
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Ogasun eta Herri Administrazio Saila
- Herrizaingo Saila
- Emakunde
- Kultura Saila

EUDEL

Gipuzkoako Foru Aldundia; Arabako Foru Aldundia

## 4. Etorkinen eskubideak bermatzeko mekanismoak sendotzea

Atzerritarrei buruzko Legearen ondorioz izan den eskubide-murrizketa dela-eta, beharrezkoa da dauden mekanismoak indartzea eta etorkinen kolektiboarentzat moldatzea.

**Erakunde gauzatzaileak:**

Eusko Jaurlaritza:
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Herrizaingo Saila
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

## 5. Zerbitzu Publikoak (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak eta etxebizitza) baliatzeko baldintzei dagokienez, etorkinek eta bertakoek baldintza berdinak izateko aukera bermatzea eta adierazitako baldintzak kolektibo horretara egokitzea

Immigrazioari buruzko II Euskal Planaren lehentasuna etorkinek zerbitzu publikoak baliatzea da, zerbitzu horietatik baztertzeak sortzen dituen kalteberatasun baldintzak direla medio.

**Erakunde gauzatzaileak:**

Eusko Jaurlaritza:
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Herrizaingo Saila

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila
- Kultura Saila
- Emakunde
- Osasun Saila
- Nekazaritza eta Arrantza Saila
- Hezkuntza Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia; Arabako Foru Aldundia; Bizkaiko Foru Aldundia

### 6. Etorkinak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua erraztea

EAEn bizi den biztanleria etorkina, batez ere, lan egiteko adinean dago, eta lan egitea da, hain zuzen ere, migrazio-proiektuaren motibazio nagusia. Horregatik, adierazitako biztanleria EAEko gizartean egoki integratzeko, lan-merkatuan sartzea erraztuko duten prozesuak gauzatu behar dira.

**Erakunde gauzatzaileak:**

Eusko Jaurlaritza:
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila
- Industria Saila
- Nekazaritza eta Arrantza Saila
- Arabako Foru Aldundia
- OSALAN

### 7. Atzerritarrek EAEko gizarte-bizitzan eta politikan parte hartzeko bideak, mekanismoak eta estrategiak sustatzea, herritartasun inklusibotik eratorritako eskubideak gauzatzen direla bermatzeari begira

Herritartasun inklusiboaren kontzeptuak EAEn dauden kolektibo guztien gizarte arloko eta politika-arloko parte-hartzea dakar, herritarrek beren iritzia emateko eta beren interesak eta, oro har, gizartearen interesak defendatzeko aukera izan dezaten.

**Erakunde gauzatzaileak:**

Eusko Jaurlaritza:
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Emakunde
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia; Arabako Foru Aldundia

### 8. EAEn dauden kulturen garapena sustatzea, banaka eta batera

Bizikidetza eraikitzeari dagokionez, kultura guztiak modu berean errespetatu behar dira. Horregatik, kulturen garapena erraztu behar da, baita kultura horien arteko harremanaren eta koexistentziaren ondorio den kulturen arteko gunea ere.

**Erakunde gauzatzaileak:**

Eusko Jaurlaritza:
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Kultura Saila

### 9. Arrisku eta kalteberatasun handieneko egoeran dauden atzerritarrei arreta osagarriaren edota konpentsatzailearen esparrua sustatzea: inoren kargura ez dauden adingabeei, sasoiko langileei, eta esplotazio sexualaren biktimei, esaterako

Egoera horietan (gizarte-sarerik ez izatea edo gizarte-sareak ahulduta egotea, zailtasunak funtsezko eskubideak gauzatzerakoan, eta abar) dauden etorkinen egoera zehatza dela medio, nahitaezkoa da etorkinak gizarteratzera bideratutako mekanismoak indartzea

**Erakunde gauzatzaileak:**

Eusko Jaurlaritza:
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila
- Emakunde
- Herrizaingo Saila
- Nekazaritza eta Arrantza Saila
- Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia; Arabako Foru Aldundia

### 10. Bertako biztanleria sentsibilizatzea immigrazioak eta kultura-aniztasunak dituzten alderdi positiboei buruz.

Gure gizartean etorkinak bizitzea, gure gizartearen garapenerako ekarpena izateaz gain, kultura-aberastasunaren iturri ere izan daiteke. Hori gorabehera, nahitaezkoa da aurreiritzien eta errealitatea ez ezagutzearen ondoriozko jarrera arrazistak eta xenofoboak prebenitzea.

**Erakunde gauzatzaileak:**

Eusko Jaurlaritza:
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Emakunde
- Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia; Arabako Foru Aldundia

### 11. Immigrazioari buruzko esku-hartzeak immigrazioaren jatorrizko herrialdeen garapen-prozesuekin lotzea

Nazioarteko migrazioak, globalizazioaren esparruan, jatorrizko herrialdea jomugako herrialdearekin harremanetan jartzen duten alderdi askoren ondorio dira. Horregatik, nahitaezkoa da bi mutur horiek kontuan hartzea kudeaketa egiterakoan eta migrazio-fenomenoaren tratamendu eraginkorra gauzatzerakoan.

**Erakunde gauzatzaileak:**

Eusko Jaurlaritza:
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Lehendakaritza

Helburu horiek lortzeko, norabideak ezarri dira, sektore-arloetan bilduta: Erakunde-antolamenduaren arloa; Informazio-arloa; Berme juridikoen arloa; Parte-hartzearen arloa; Lan-arloa; Gizarteratzearen eta gizarte-baliabideen arloa; Osasun-arloa; Etxebizi-tza-arloa; Hezkuntza-arloa; Kulturartekotasun-arloa, Esku-hartze osagarriaren arloa; Sentsibilizazio-arloa; Lagundutako garapenaren arloa.


Etorkinak euskal gizartean integratzea.
Immigrazioari buruzko euskal politika artikulatzeko egitura, eragile, eskumen eta koordinazio-harremanen sarea artikulatzea
Biztanleria etorkina hasiera batean hartzeko sistemari eustea eta hura hobetzea Udal Arloko Harrera Sare publikoaren bitartez
Erakunde Antolamenduaren Arloa
Immigrazioaren eta haren kudeaketaren errealitatea etengabe jakiteko eta eremuarekin zerikusia duten profesionalak prestatzeko mekanismoak ezartzea
Informazio Arloa
Etorkinen eskubideak bermatzeko mekanismoak finkatzea
Berme Juridikoen Arloa
Zerbitzu Publikoak (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak eta etxebizitza) baliatzeko baldintzei dagokienez, etorkinek eta bertakoek baldintza berdinak izateko aukera bermatzea eta adierazitako baldintzak kolektibo horretara egokitzea
Hezkuntza Arloa
Osasun Arloa
Gizarteratzearen eta Gizarte Baliabideen Arloa
Etxebizitza Arloa
Etorkinak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua erraztea
Lan Arloa
Atzerritarrek EAEko gizartebizitzan eta politikan parte hartzeko bideak, mekanismoak eta estrategiak sustatzea, herritartasun inklusibotik eratorritako eskubideak gauzatzen direla bermatzeari begira
Parte-hartzearen Arloa
EAEn dauden kulturen garapena sustatzea, bakarka eta batera
Kulturartekotasun Arloa
Arrisku-egoeran eta kalteberatasun handieneko egoeran dauden atzerritarrei (inoren kargura ez dauden adingabeak, sasoiko langileak, esplotazio sexualaren biktimak, etab.) arreta osagarriaren edota konpentsatzailearen esparrua sustatzea
Esku-hartze Osagarriaren Arloa
Bertako biztanleria immigrazioaren eta kultura-aniztasunaren alderdi positiboei buruz sentsibilizatzea
Sentsibilizazio Arloa
Immigrazioaren arloko esku-hartzeak immigrazioaren jatorrizko herrialdeen garapen-prozesuekin lotzea
Lagundutako Garapenaren Arloa
Arlo Instrumentalak
Funtsezko Arloak
Barne Proiekzioko Arloa
Kanpo Proiekzioko Arloa

## 2. KONTZEPTUAK

Immigrazioari buruzko II. Euskal Planak ekarri du immigrazioari buruzko erakunde arloko politika artikulatzea EAEn. Era berean, immigrazio-politika eraginkorra eta bidezkoa egiteak oinarrizko zenbait planteamendu argitzea eskatzen du, baita adierazitako politikaren oinarri izango diren zenbait premisa ideologikotan aurrera egitea ere. Ildo horretatik, Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana ikuskera aurrerakoian oinarritzen da. Ikuskera horrek pertsona guztien giza eskubideak babesteko kultura zabala eta aurreratua du oinarri ideologikotzat. Planaren oinarri hori, batez ere, honako lau funtsezko kontzeptu hauek bere gain hartzean zehazten da:

- Immigrazioaren kontzeptua.
- Integrazioaren eta kulturartekotasunaren kontzeptua.
- Herritartasunaren kontzeptua.
- Immigraziori buruzko Euskal Politikaren kontzeptua.

### IMMIGRAZIOAREN KONTZEPTUA

- Azken urteotan, gero eta gehiago hazi da gure gizartean bizi diren etorkinen kopurua. Era berean, immigrazioari buruzko ikuspegi positiboak areagotu egin dira, baita negatiboak ere. Askotan, gizartean etorkinei buruz errotuta dauden estereotipoek eta informazio gabeziak eragiten dituzte ikuspegi negatiboak.
- Abiapuntu gisa, Immigrazioari buruzko II. Euskal Planak immigrazioa positiboa eta beharrezkoa dela onartzen du. Immigrazioa oso aberasgarria da euskal gizartearentzat, bai ekonomiaren eremuan, baita kultura-ikuspegitik ere. Immigrazioa eta pluralismoa —gero eta handiagoa da—, halaber, gure gizarteari modernizazioa, europeizazioa eta dinamismoa eragiten dioten faktoreak dira, gure inguruko beste herrialde batzuetako gizarte garatu, plural eta aurreratuetara hurbiltzen gaituztenak.
- Immigrazioari buruzko II. Euskal Planean, ekintzak gauzatzerakoan, etorkinak laneratzea oso garrantzitsua dela hartu da aintzat. Baina horrekin batera, Planak aditzera eman behar du gure gizartean etorkinak bizitzea ezin dela ikusi ikuspuntu hori soilik kontuan hartuta.
- Immigrazioaren fenomenoa gero eta estrukturalagoa da gizarte modernoetan, baina koiunturala ere bada hein batean. Prozesu dinamiko eta etengabea da, eta, beraz, politika publikoak ezaugarri horietara egokitu behar dira. Sektore publikoak eta gizarteak oro har beren giza oinarriaren eta oinarri demografikoaren behin betiko handiagotzetzat hartu behar dute etorkinen presentzia, baita gizarte-mugigarritasun handiago baten adierazgarritzat ere.

### INTEGRAZIOAREN ETA KULTURARTEKOTASUNAREN KONTZEPTUA

- Immigrazioari buruzko II. Euskal Planean kontuan hartu da gizarte-integrazioko prozesuak noranzko bikoak direla. Horregatik, etorkinen eta harrera-gizartearen parte-hartzea eskatzen du Planak, etorkinak integratzea lortzearren. Gizarte hartzailea izateari utzi eta harrera-gizartea izatea lortzeko bide bakarra dago: biztanleria hartzaileak guztiz kulturartekoak diren ekintzak sortzeko behar diren guneak eraiki behar ditu.
- Kulturartekotasuna integraziorako beharrezko bidea da. Ikuspegi kultural edo politikotik, integrazioa ez da identitateek bat egitea, eta are gutxiago gizarte hartzailean beste kultura batzuk asimilatzea. Integrazioaren kontzeptu aurreratuak askotariko identitateak libre garatzea eskatzen du, berdintasunez eta denek eskubide eta betebehar berberak izanik. Era berean, identitate horien guztien arteko elkarreragineko eta erlazioko prozesua eskatzen du. Kulturartekotasunak ez du identitate mistoak eraikitzea edo identitate propioetan beharturik txertatzea ahalbidetzen, baizik eta identitate konplexuak eta konposatuak sortzea, guztien ona eta guztien nortasuna aske garatzeko aukerarekin uztartzearren.
- Integrazioa etorkinak gizarte hartzailearen kulturan erabat eta libre sartzeko aukera da. Horretarako, immigratzen dutenek politika publikoetan parte hartzeko eskubidea ahalbidetu eta bermatu behar dute politika publikoek, betiere kontuan izanik parte-hartze horrek askatasunez bat egitearen ondorioa izan behar duela, eta ez asimilazio-prozesu baten emaitza hutsa.

- Integrazioa eta irregulartasuneko kategoria juridikoa ez dira bateragarriak. Irregulartasun-egoera juridikoa gizarte integratua lortzeko egiturazko oztopoa da.

- Integraziorako ezinbestekoa da herritartasuna aintzat hartzea. Egiazko integrazioa ez da gutxieneko hainbat zerbitzu ziurtatuz lortzen, honako hauen bidez baizik: eskubideak aintzat hartzea, betebeharrak nork bere gain hartzea eta etorkinak komunitate politiko hartzailean barne hartzea. Ildo horretan, gizarte integratuaren helburua ezin da lortu kulturartekotasuneko politikak eta eremu sozial eta ekonomiko jakinetan prestazio-jarduna uztartuz. Erabateko integraziorako ezinbestekoa da atzerritarrak komunitate politikoan sartzeko aukera izatea, eta, horretarako, herritartasunari buruzko estatutu berri bat behar da, nazionalitatearen osagaiari loturik ez dagoena.

- Gizarte-erantzukizunez heldu behar zaio integrazioari. Guztiz beharrezkoa da gizarte-integrazioaren kudeaketa egokiarekin zerikusia duten alderdietan adostasun zabala lortzea eta hainbaten interes partikularrak gainditzea (indar politikoenak, gizarte-sektoreenak, etab.). Integrazio horretara bideratutako politika, logikoa denez, eztabaidatu eta zalantzan jarri behar da, baina guztien onerako ezinbestekoa da erantzukizuna konpartitzea; bertan, epe luzerako planifikazioa egitea hartu behar da helburu nagusitzat, baita etorkinak —eskubide osoko herritarrak diren aldetik— jomugan dituen kudeaketa egitea ere.

## HERRITARTASUNAREN KONTZEPTUA

- Integraziorako ezinbestekoa da herritartasunaren kontzeptua berriz definitzea. Horri dagokionez, Immigrazioari buruzko II. Euskal Planak herritartasun inklusiboaren ikuskera biltzea ahalbidetuko du, eta ikuskera horrek Estatuko ordenamendu juridikoan bildutako nazionalitate-kontzeptu klasikoa birformulatuko du EAEren eskumenen eremuan. Honako premisa hau hartzen da abiapuntutzat: ezinezkoa da egiaz integratzea etorkin egoiliarrei herritarrak direla eta, horren ondorioz, herritartasunak EAEn ematen dituen eskubide eta betebehar guztien titularrak direla, berdintasunez, aintzat hartu gabe.

- Herritartasun berria lortzeko eskatzen den lotura bizitokia da. Herritartasunaren kontzeptu berria nazionalitatearen ikuspegi klasikotik bereizi behar da, baita identitatearekin zerikusia duen beste edozein elementutik ere, eta, horri dagokionez, honako hau izango da kontuan soilik: herritarra non bizi den.

- Herritartasun inklusiboak estatutu uniformea dakar bere titular guztientzat. Ildo horretan, nazionalak eta atzerritarrak guztiz parekatzen ditu beharrezko giza eskubideen gutxieneko eremuan —eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak— eta betebeharren eremuan, integrazioa erabatekoa eta egiazkoa izan dadin. Eskubideak aintzat hartzen dituen ikuspegiak integrazio politikoko plus bat gehitzen du prestazio korrelatiboen berme hutsari dagokionez.

- Herritartasun inklusiboak erregulartasunaren eta irregulartasunaren arteko administrazio-bereizketa bazter uzten du. Atzerritartasun-zuzenbidearen araberako baimentze legal edo administratiborik ez izateak ez du haren estatutu nagusia baliogabetzen edo aldatzen, eta eginkizun integratzailea ziurtatzen du.

- Sektore publikoak integrazio-prozesuan erantzukizun nagusia izatea eskatzen du herritartasun inklusiboak. Herritartasunak ematen dituen gutxieneko eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren prestazioen kudeaketa sistema publikoak egin beharko du, horren guztiaren arabera.

- Herritartasun inklusiboa parte-hartze politikoaren bidez demokrazian sakontzeko tresna da. Hainbat gizarte-sektorek integrazio-politiketan parte hartzeak ez du ekarri behar Estatu sozialak ematen dituen bermeak murriztea. Aitzitik, herritartasun inklusiboak Zuzenbideko Estatu sozialaren demokratizazioa dakar. Estatu mota horrek partehartze handiagoa eta erantzukizun konpartitua planteatzen ditu arlo horretako erabaki publikoak hartzeari dagokionez. Hortaz, partaidetza soziala erabakien eta errebindikazioen eremuan gauzatu behar da batez ere, eta kudeaketaren eremua sektore publikoari esleitu behar zaio.

- Herritartasun inklusiboak erabateko berdintasun-irizpidea eskatzen du. Ildo horretan, eskubide berdintasuna etorkinen eta nazionalen artean ez ezik, logika berari jarraiki, nazionalizatu gabeko herritarren taldearen barnean eta generoen arteko berdintasunean ere planteatzen da. Berdintasun materiala ere gaineratuko da erreferentziazko balio gisa.

## IMMIGRAZIOARI BURUZKO EUSKAL POLITIKAREN KONTZEPTUA

- Immigrazioari buruzko Euskal Politikak giza eskubideak zabal aintzat hartzea du oinarritzat. Politika horrek ez ditu ezein kasutan urratzen Estatuaren eta Europar Batasunaren ordenamendu juridikoetan ezarritakoaren arabera eskaturiko gutxieneko mailak, eta nolanahi ere horiek zabaldu egiten ditu maila kuantitatibo, kualitatibo edo subjektiboan. Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako Euskal Politikaren kasuan bezala, gure gizartea osatzen duten pertsona guztien giza duintasuna da erreferentziako puntu nagusia.

- EAEren eskumen-eremua da Immigrazioari buruzko Euskal Politikaren oinarria. Estatuak atzerritartasun, nazionalitate eta immigrazioaren arloan duen eskumena berriz aztertu behar da Europaren eraikuntza eta Autonomia Erkidegoek sektore-eskumenak beren gain hartu dituztela kontuan hartuta; izan ere, eskumen hori nahiko gainbeheratuta dago nazioz gaindiko zein nazioz azpiko eremuan. Era berean, Estatuaren eskumen klasiko horrek ez du herritartasun-kontzeptuari buruzko erreferentziarik biltzen. Bestalde, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9. artikulua oinarri nagusia da eskumen-eremu propioetan eskubideak zabaltzea ahalbidetzeko, betiere ordenamenduak Estatu osorako finkaturiko gutxienekoak errespetatzen badira. Eskubideak aintzat hartzeko aukera eta herritartasun inklusiboaren kontzeptu berriari heltzea EAEren eskumen-eremuan sartzen dira horrela. Halaber, ildo horretako legegintza-garapenerako eskumena du EAEk; eskumen hori hainbat xedapen arau-emaile tarteko gauzatu ahal izango da, betiere xedapen horiek honako helburu hau badute: atzerritarren Integrazioa eta, euskal herritar diren aldetik, haien eskubideak aintzat hartzea eta zabaltzea.

- Immigrazioari buruzko Euskal Politika gizarte-integrazioari buruzko euskal politikaren esparrukoa da. Izan ere, etorkinen kolektiboa zentzurik zabalenean gizartean integra dadin lortzea du helburutzat. Hala ere, Estatuaren arlo horretako araudiaren alderdi jakin batzuk horretarako oztopoak dira. Hori dela eta, Immigrazioari buruzko Euskal Politikak integraziorako mekanismoak ezartzen ditu, irregulartasun-egoeraren ondorio negatiboak deuseztatu edo arintzearren. Hain zuzen ere, egoiliar guztiak herritartasunari dagokionez parekatzeko estrategiak biltzen ditu politika horrek, egoiliarren administrazio egoera alde batera utzita. Era berean, politika hori EAEk pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokaren arloan garatutako politikarekin lotzen da; izan ere, arlo horretako politika Euskadin bizi diren pertsona guztien duintasunaren errespetuan eta garapenean oinarritzen da.

- Immigrazioari buruzko Euskal Politika integral eta zeharkakoa da. EAE artikulatzen duten printzipio politikoek bideratzen dute politika hori. Bereziki Euskadiren askotariko errealitate instituzional eta sozialak du eragina politika horretan. Horregatik, erakunde publiko guztiek konpartitzen duten erantzukizunean oinarrituta artikulaturiko politika da, autonomiaren eta koordinazioaren irizpideen bidez.

  Immigrazioari buruzko II. Euskal Planak bere helburuak lortuko ditu baldin eta erakundeen artean behar bezain adostasun sendoa lortzen badute EAEko administrazio publikoek norabide berean lan egin dezaten. Hartara, etorkinak gizartean guztiz integratzeko aukera izango da.

- Euskal Politikak Iparraldea-Hegoaldea gatazkarekin loturiko immigrazio kontzeptua du abiapuntutzat. Herrialde batzuen eta besteen artean dagoen aberastasun-alde onartezina dela-eta, euskal erakunde publikoek Hegoaldeko gizarteekiko konpromisozko lankidetza-politika garatu dute. Ildo horretan, immigrazioa hein handi batean munduaren desorekaren ondorioa denez, Immigrazioari buruzko Euskal Politikak bat etorri behar du Garapenerako Lankidetza Politikarekin eta euskal erakundeek nahiz euskal gizarteak garaturiko elkartasunarekin.

- Immigrazioari buruzko Euskal Politikak Atzerritarrei buruzko egungo Legea zalantzan jarri eta indargabetzea proposatzen du; izan ere, etorkinak administrazio-irregulartasuneko egoerara bultzatzen ditu, eta, horren ondorioz, baita kalteberatasun-egoerara eta gizarte-bazterkeriako prozesuetara ere.

  Legea indargabetzea bultzatuz, etorkinentzako esparru juridiko berria lortu nahi da, giza eskubideetan eta herritartasun inklusiboan oinarritua. Esparru horrek ez du desberdintasunik ezarri behar oinarrizko eskubideen titulartasunari dagokionez, administrazio-baimena dela-eta. Immigrazioari buruzko Legea lortu nahi da, ez “Atzerritarrei buruzkoa”, alegia, etorkinen gizarte-integrazioa bultzatzen duten legea etorkinen eskubideak eta betebeharrak aintzat hartuz, eta etorkinei orain

arte ukatu izan zaizkien eskubideak aintzat hartzen dizkiena.

Atzerritarrei buruzko Legea zalantzan jarri daiteke euskal gizartearen borondateak ematen diolako legitimitatea Immigrazioari buruzko Euskal Politikari. Euskal gizartearen gehiengoak giza eskubideen eta pertsonen duintasunaren ikuskera jakin baten alde egiten du bere jardun publikoan. Ildo horretan, aditzera eman beharra dago euskal gizarteak maila altuko kultura politikoari eutsi diola, eta horregatik da hain garrantzitsua Immigrazioari buruzko Euskal Politika etorkinen kolektibora ez ezik harrera-gizartera ere bideratzea, batez ere sentsibilizazioaren bitartez.

## 3. PRINTZIPIO OROKORRAK

Honako hauek dira Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren *Printzipio Orokorrak:* Planaren edukia osatzen duten funtsezko irizpide politikoak, Planaren Helburu Orokorra lortzeko beharrezkoak eta berez nahikoak direnak. Funtsezkoak dira Planaren edukira zuzenean bideratuta eratzen direlako eta aldez aurretik adierazitako premisa ideologikoetatik eratortzen direlako. Ez dira antolamendurako irizpide instrumentalak, oinarri ideologikoen eta Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren helburu orokorraren nahitaezko ondorioak baizik.

Hortaz, integrazioaren helburu orokorra lortzeko, nahitaezkoak eta nahikoak dira honako Printzipio Orokor hauek:

- Berdintasunaren printzipioa.
- Erantzukizun Publikoaren eta Erantzukidetasun Sozialaren printzipioa.
- Sexu-arrazoiengatiko Diskriminaziorik Ezaren printzipioa.
- Parte-hartzearen printzipioa.

### BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA

- Berdintasun-printzipioak EAEren eskumen propioen esparruan giza eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien hedatzea eskatzen du. Horrek, eskubide zibilak ez ezik, eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak ere hartzen ditu eraginpean; egoiliar guztientzat orokortzen dira, haien nazionalitatea kontuan izan gabe, baita eskubide politikoak ere, Erkidegoaren ordenamendu juridikoan txerta daitezkeen neurrian. Betebeharren berdintasuna ere eskatzen du, inolako bereizketarik gerta ez dadin.
- Berdintasunak, orobat, lanerako aukera eta Zuzenbideko Estatu sozialetan aintzat hartutako eskubideek bermatzen dituzten prestazioak eta zerbitzuak baliatzeko aukera berdintasunez gauzatzea eskatzen du, orokor daitezkeen premietarako normalizazio-printzipioaren bitartez eta etorkinen kolektiboaren berariazko premietarako espezializazio-printzipioaren bitartez.
- Berdintasun-printzipioa osoa da, gutxieneko estaldura-eremuan nazionalak eta atzerritar egoiliarrak, baita etorkin guztiak bere artean ere, parekatzen dituen aldetik. Printzipio berak lan-merkatuan tratu-berdintasuna eskatzen du.
- Berdintasun-printzipioa ez da desberdintasunerako eskubidea murriztuz gauzatzen, baizik eta hura indartuz. Gaineratutako balioa ez da berdintasun formal hutsa, gure ordenamendu juridikoak biltzen duen berdintasun materiala baizik. Egoera desberdinetarako tratu desberdina legitimatzen du horrek, emaitza-berdintasun egiazko eta efektiboaren mesedetan, arlo indibidualean nahiz kolektiboan.
- Desberdintasunarekiko errespetuak garrantzi berezia du hizkuntzaren eta kulturaren eremuetan, eta esku-hartze publiko handia eskatzen du jatorrizko kulturak babestu eta garatzeko, baita horiek euskal kulturan integratzeko ere.

### ERANTZUKIZUN PUBLIKOAREN ETA ERANTZUKIDETASUN SOZIALAREN PRINTZIPIOA

- Integrazioa lortzea botere publikoen erantzukizuna delako ikuspegian oinarrituta eraikiko da Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana. Ikuspegi hori eskubideen eta betebeharren berdintasun-printzi-

pioari lotzen zaio, integrazioa komunitate politiko hartzailean bizi diren atzerritarrak komunitate horren barnean hartuz soilik lor daitekeen neurrian, eta horrek komunitatearen erantzukizun kolektiboa eskatzen du, nahitaez, gutxieneko berdintasuna gauzatzeari dagokionez. Hortaz, erantzukizun publiko hori etorkinen kolektibora hedatzen da bertakoenera hedatzen den bezala, elkarrekiko integrazio horren gutxieneko parametroak lortzeari begira.

- Erantzukizun publikoaren printzipioak alderdi instrumentala gaineratzen dio berdintasun-printzipioari hura gauzatzeko, baina aldi berean Planaren beraren funtsezko elementua da, jarrera publiko integratzailea islatzen duen neurrian; normalizazio-printzipioaren bidez egituratuko da orokor daitezkeen premietarako zerbitzuak emateari dagokionez, nazionalitatea edo zerbitzuen hartzailearen egoera juridikoa alde batera utzita.
- Etorkinen kolektiboa integratzeari dagokionez botere publikoek duten erantzukizunak ez du erabat agortzen arlo horretako esku-hartzea, printzipio hori parte-hartzearen printzipioarekin osatu behar dela kontuan hartuta. Horren ondorioz, botere publikoek ahalik eta partaidetzagunerik zabalenak ere bermatu behar dituzte eskubideen berme gutxieneko eta normalizatuan.
- Erantzukizun publikoaren printzipiotik eratortzen dira zuzenean Printzipio Operatiboak, sektore publikoaren jarduna nola eta zein ildotan antolatu behar den horien arabera egiten dela kontuan hartuta.

## SEXU ARRAZOIENGATIKO DISKRIMINAZIORIK EZAREN PRINTZIPIOA

- Emakumeek —biztanleriaren % 50 baino gehiago dira— jasaten duten diskriminazio-egoerari arreta berezia eman behar zaio. Horri dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei kasu egitea eta erantzunak ematea da Plan honen printzipio ideologikoetako bat. Desberdintasun horiek historia osoan eta kultura guztietan gertatu dira; beraz, oso errotuta daude gizarte-egitura guztietan eta zaila da identifikatzea. Horregatik, beharrezkoa da planaren esparruan gai hori etengabe aztertu eta eztabaidatzea, emakume etorkinek jasaten dituzten diskriminazioak salatzea eta zuzentzea ahalbidetzearren.
- Hainbat arau juridikok biltzen du sexu-arrazoiengatiko diskriminaziorik ezaren printzipioa. Hain zuzen ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Autonomia Erkidegoko Legeak biltzen du printzipio hori. Arau horrek emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunaren aldeko apustua egiten du, berdintasun formalaz haratago. Horregatik guztiagatik, Immigrazioari buruzko II. Euskal Planak behar diren mekanismo operatiboak ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko emakume etorkinek jasaten dituzten desberdintasunei aurre egitearren.
- Emakume etorkinek diskriminazio bikoitza jasaten dute: bata emakumea izateagatik eta bestea etorkina izateagatik. Diskriminazio bikoitz horrek areagotu egiten ditu emakume horiek euskal gizartean erabat integratzea gauzatzeko aurre egin behar dizkieten zailtasunak. Ildo horretan, Immigrazioari buruzko II. Planak behar den arreta-puntua ezarri du.
- Genero-harremanak eraikuntza soziala dira eta hori aintzat hartuta heldu behar zaie. Gizartea aldakorra, da eta emakume etorkinak ere badira kulturarteko gizarte berriaren eraketaren protagonistak. Genero-harreman berrien bultzadarekin ere eraiki behar da gizarte hori, bertan emakume etorkinek dagozkien eskubide eta betebehar guztiak izan ditzaten.
- Sarritan, emakume etorkinek genero-identitate bikoitza negoziatu behar izaten dute: beren jatorrizko komunitatearen baitan eta harrera-gizartean. Emakumeen migrazioek aldaketak eragin dituzte emakume etorkinen gizarte- eta familia roletan, batez ere familiaren diru-sarrerak ziurtatzeko erantzukizuna duten emakumeei dagokienez. Bestalde, funtsezko kolektiboa dira integrazio problematiketan; izan ere, beraiei dagozkie familia-kohesioa eta jatorrizko balioen transmisioa, baita etorkinek izan ditzaketen akulturizazio prozesuak ere.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak genero-ikuspegi egokia eskatzen du. Hots, desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburua, immigrazioaren arloan komunitateak egiten dituen politika eta ekintza guztietan. Horretarako, Immigrazioari buruzko Euskal Plan hau zehaztu, gauzatu eta ebaluatzerakoan, emakumeen eta gizonen baldintza, egoera eta premia guztiak hartu beharko dira kontuan, batez ere emakumeek bizi

duten desberdintasun-egoeratik eratorritakoak, boterea eta baliabide ekonomiko eta sozialak eskuratzeko aukerari dagokionez.

### PARTE HARTZEAREN PRINTZIPIOA

- *EAEko biztanleek atzerriko etorkinei buruz dituzten pertzepzioak, balioak eta jarrerak* izeneko txostenaren arabera —Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2004ko abenduan egina— euskal gizartearen gehiengoa (% 85 baino gehiago) etorkinek botorako eskubidea baliatzearen alde dago. Parte hartze horretarako hainbat faktore bete behar da: etorkinak egoera erregularren egotea, aldez aurretik EAEn bizitzea, etab. Etorkinen parte-hartze politikoa funtsezkoa da beren eskubide zibil, sozial, ekonomiko eta kulturalak erabat garatzeko.
- Parte-hartzearen Printzipioak alderdi instrumentala gaineratzen dio berdintasun-printzipioari hura gauzatzeko, baina aldi berean Planaren beraren funtsezko elementua da, integratzeko prozesurako funtsezko bidea txertatzen duen neurrian. Erantzukizun publikoa esku-hartze instituzionala nahitaezkoa izatearen ondorioa da; parte-hartzea, berriz, etorkinen, haiek osatzen dituzten kolektiboen eta gizarte hartzailearen eskueran dagoen ahalmen bat da.
- Parte-hartzearen printzipioa, halaber, politika publikoak landu eta kudeatzean politika horien hartzaile diren taldeek esku hartzeko premian oinarritzen da. Esparru horretan, EAEn finkaturiko etorkinen kolektiboak dira parte-hartzearen subjektu nagusia, parte-hartzea gizarte osoari aintzat hartzen zaion arren.
- Parte-hartzearen printzipioak gure sistema politiko eta instituzionaleko demokrazian sakontzea dakar. Gizarte demokratiko aurreratu batek ahalik eta parte-hartze mailarik handiena ahalbidetu behar du gai publikoetan, gizartean partaidetza-kultura sustatuz, erabakiaren eta kudeaketaren baterako erantzukizunaren ideia eta elkartasun aktiboaren ideia indartzeko.
- Parte-hartzearen printzipioak ez du eskubide politikoen arloa soilik hartzen eraginpean; batez ere berdintasun-printzipioak biltzen duen eremua hartzen du eraginpean. Hain zuzen ere, parte-hartzeak proiekzio handiagoa du kulturartekotasunaren eremuan.
- Immigrazioari buruzko Euskal Planak parte-hartzearen ideia zabal eta polifazetikoa biltzen du; bide organiko, funtzionala edo kooperatiboaren bidez politika publikoko parte-hartzeko aukera biltzen du, baita etorkinen ahalduntzea lortzea ere, etorkinak ordezkatzen dituzten taldeen bidez edo harrera gizartearen sektoreen bidez, integrazioaren helburu nagusia betetzeko.
- Gizarte-mugimenduak gune egokiak dira etorkinen integrazio-prozesuan harrera-gizarteak duen parte-hartzea artikulatzeko. Asoziazionismoa funtsezko elementua da partaidetza sozial eraginkorra ahalbidetzeko.

## 4. PRINTZIPIO OPERATIBOAK

Beren Helburu Orokorra lortzeko hautatutako metodologia eta prozedurak biltzen dituzten irizpideak dira Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren Printzipio Operatiboak. Antolamendurako irizpide instrumentalak dira, gorago azaldutako Printzipio Orokorrak aplikatzearen ondorioz eskatutakoaren menp e daudenak.

Horregatik Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren Printzipio Operatiboa Berdintasunaren, Erantzukizun Publikoaren eta Erantzukidetasun Sozialaren, eta Parte-hartzearen Printzipio Orokorren beharrezko ondorio dira. Horrenbestez, Planak eraginpean hartzen duen sektore publikoa antolatzeko moduarekin zerikusia dute funtsean.

Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren helburua betetzeko nahitaezkoa den esku hartze publikoaren eredutik honako printzipio hauek eratortzen dira:

- Integraltasunaren eta Zeharkakotasunaren printzipioak.
- Normalizazioaren printzipioa.

- Deszentralizazioaren printzipioa.
- Koordinazioaren printzipioa..

## INTEGRALTASUNAREN ETA ZEHARKAKOTASUNAREN PRINTZIPIOA

Immigrazioari buruzko II. Plana gauzatzeko, beharrezkoa da ikuspegi integral eta zeharkakoa baliatzea, etorkinen integrazioa ahalbidetzearren.

Integrazioa lortzeko, prebentzioko, arretako edo sustapeneko ekintzak garatzen dira, ikuspegi integrala kontuan izanik. Ekintza horiek jardun-eremu guztiak hartzen dituzte eraginpean, eta Immigrazioari buruzko II. Plan honetan parte hartzen duten eragile guztiek zeharkakotasunez egiten dituzte.

## NORMALIZAZIOAREN PRINTZIPIOA

Berdintasunaren eta Erantzukizun Publikoaren eta Erantzukidetasun Sozialaren Printzipio Orokorren artikulazioak etorkinen kolektiboa integratzea lortzeko behar diren prestazio eta zerbitzu guztiak ahal den mailarik altuenean normalizatzeko premia dakar. Orokor daitezkeen premiei dagokienez, normalizazioa ezinbesteko jardun ardatza da Immigrazioari buruzko II. Euskal Planean. Prestazio-jarduera publiko gehienetarako proposatzen den erro-erroko normalizazio hau espezializazio-printzipio subsidiario batekin osatu behar da argi eta garbi orokortu ezin diren premien kasuetarako, betiere integraziorako beharrezko konpentsazioak badira. Nolanahi ere, espezializazioa normalizazioaren subsidiarioa da, eta erantzukizun publikoaren esparruan kokatzen da.

## DESZENTRALIZAZIOAREN PRINTZIPIOA

Immigrazioari buruzko Euskal Politika EAEko hainbat administrazioren eta erakunde eremuren erantzukizuna da. Sektore-eskumenen banaketak zeharkako eragina du politika horretan. Horren arabera, erakunde komunek, lurralde historikoek eta udal eta mankomunitateek alor horretako eskumen jakin eta zuzenen ardura hartzen dute beren gain. Immigrazioari buruzko Euskal Planak ez du murrizten gure Erkidegoaren deszentralizazio-politika. Aitzitik, prestazio publikoen zati handi bat, eta bereziki immigrazio-prozesuko lehen harrera eta orientazioa tokiko edo udal-arloko kudeaketaren eremuan kokatzen da, subsidiariotasun-printzipio osagarriaren arabera.

Era berean, EAEko administrazioen, Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen arteko eskumen-banaketaren berezitasunaren ondorioz, beharrezkoa da immigrazio arloan betetzen dituzten eginkizunak egokitzea, administrazio guztien jardun-ahalmena Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren Helburu Nagusira egokitzeko.

## KOORDINAZIOAREN PRINTZIPIOA

Inplikaturiko eremu instituzionalen sistematizazioa eta koordinazioa da Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren helburua, Immigrazioari buruzko Euskal Politika sortzeko, betiere konpartituriko estrategiekin integrazio-helburu bakarrari begira. Horri dagokionez, Immigrazioari buruzko II. Plana komunikazioko eta koordinazioko ildo egokiak bermatzeaz arduratzen da, hiru mailatan:

a) Jaurlaritzaren Sail eskudunen artean.

b) EAEko organo exekutibo komun, foru-arloko eta toki-arlokoen artean.

c) Inplikaturiko eremu publikoen eta gizarte-taldeen artean.

Modu osagarrian, Eusko Jaurlaritza, Estatuaren Administrazioa eta Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuk koordinatzeko mekanismoak ezartzea aurreikusi da, baita Planari euskarri tekniko eta estrategikoa emango dioten nazioarteko esparru eta erakundeetan presentzia izatea ere.

# IV. Zati operatiboa



# IV. ZATI OPERATIBOA

## 1. ESKU-HARTZE ARLOAK

Esku-hartzearen eremuak edo arloak identifikatzeko, Immigrazioari buruzko Euskal Planaren aplikazioa egituratu behar da, gaikako eduki homogeneoen eta funtzionalen edukien arabera, betiere erakundeen ikuspegia kontuan hartuta. Ildo horretan, hasiera batean bi eremu edo arlo mota bereizten dira:

1.1. Arlo instrumentalak.

1.2. Funtsezko arloak.

### 1.1. ARLO INSTRUMENTALAK

Honako hauek dira arlo instrumentalak: Immigrazioari buruzko Euskal Plana betetzeko beharrezkoa den erakunde-funtzionamendu zuzena sendotzera bideratutako norabideak eta neurriak biltzen dituztenak. Arlo horien hartzaile nagusiak erakunde publikoak dira. Eremu horiek ez dituzte integraziora zuzenean bideratutako ekintzak biltzen; aitzitik, norabideak eta neurriak funtsezko arloetan garatzeko euskarri egokiak ematen dituzte. Arlo instrumentalak erantzukizun publikoaren eta partaidetza sozialaren printzipio gidarietatik eratortzen dira batez ere.

Immigrazioari buruzko Euskal Planak bi jardun-eremu instrumental bereizten ditu:

#### 1.1.1. Erakunde antolamenduaren arloa

Arlo horrek, batez ere, honako hau biltzen du: Immigrazioari buruzko Euskal Politika garatzeko beharrezkoak diren organoak sortzea eta antolatzea, baita dagozkien eginkizunak mugatzea ere. Halaber, bestelako norabideak biltzen ditu, bitarteko zehatzak hornitzera edo erakunde publikoen zerbitzura dauden langileak prestatzera bideratuta daudenak.

#### 1.1.2. Informazio arloa

Eremu horretan honako hau hartzen da kontuan batez ere: immigrazioaren errealitatearen berri izatea, behar bezalako plangintza egiteko tresna gisa. Informazio instrumental hori Jaurlaritzak bilatu ahal izango du, partzialki edo orokorrean, etenekin edo etenik gabe, eta zuzenean, Immigrazioaren Euskal Behatoki Iraunkorraren bitartez edo kanpoko laguntzen bitartez.

### 1.2. FUNTSEZKO ARLOAK

Funtsezko arloek norabideak eta neurriak biltzen dituzte, helburu integratzailea zuzenean sendotzeko. Etorkinen kolektiboak eta gizarte hartzailea dira eremu

horietan biltzen diren neurrien funtsezko hartzaileak. Funtsezko arloak berdintasunaren printzipiotik eratortzen dira batez ere eta, neurri handi batean, eskubideak eta betebeharrak onartu ondoren antolatzen dira.

Esku-hartzearen funtsezko hamaika eremu daude, eta horietatik lehenengo hamarrak barne-eremua hartzen dute kontuan, eta hamaikagarrenak nazioartekoa. Barne proiekzioaren beste eremu batek (gizarte-sentsibilizazioa) gizarte hartzailea du jomugan batez ere. Azkenik, esku-hartzearen azken eremuak immigrazio-prozesuaren eta nazioarteko desberdintasunaren arteko lotura ezartzen du eta euskal erakundeen kanpo-ekintzarantz proiektatzen da.

Hortaz, funtsezko hamaika arloak honako eskema honen arabera azaltzen dira:

### 1.2.1. Barne Proiekzioko Arloak

#### 1.2.1.1. Atzerritarren Eskubide Eta Betebehar Berdintasunaren Ondoriozko Eremuak

**Berme juridikoen arloa**

Atzerritarren eskubide zibilak egiaz sendotzeko berme juridiko zehatzak behar dira, gure ordenamenduan daukaten baldintza juridiko bereziaren arabera. Arlo horretan esku hartuz, honako hau lortu nahi da: atzerritarrei buruzko Estatuko araudiak ez nazionalen egoera juridikoan eta haien oinarrizko eskubideetan eragiten dituen ondorioak arintzea.

**Parte-hartzearen arloa**

Arestian azaldutako herritartasunaren kontzeptuaren arabera —atzerritar egoiliarra euskal komunitate politikoko kidetzat hartzea eskatzen du—, eskubide politikoen ahalik eta maila altuena bermatu behar da. Etorkinek euskal gizartearen politika-arloan parte hartzen dutela bermatzeko, eskubideak modu indibidualean gauzatzera ez ezik atzerritarren kolektiboak ahalduntzera ere bideratutako norabideak ezarri dira.

**Lan arloa**

Eskubide ekonomiko bereizgarrienak eta, bereziki, lanerako eskubidea sendotzeari lotutako gai-eremua da. Atzerritarra izateak lan-merkatuan txertatzeko aukeran eragindako desoreka zuzentzea da lan-arloaren helburua. Ildo horretan, prestakuntza espezifikora zein zuzeneko laneratzera bideratutako norabideak biltzen dira.

**Gizarteratzearen eta gizarte baliabideen arloa**

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen eremuan, gure gizartean dihardute estaldura sozialeko baliabide guztiak modu librean eta erabat baliatzea bermatuko duen giza baliabideen arloa eratu da. Arlo horretan adierazten da argien deszentralizazioaren printzipioa; izan ere, gizarte-gaiei dagozkien harrera eta oinarrizko orientazioak EAEko udalerrietan eta gizartean esku-hartzeko toki-eremuko erakundeetan dauden oinarrizko gizarte-zerbitzuen bitartez gauzatzen dira.

**Osasun arloa**

Beren oinarrizko gizarte-eskubideetako bat den aldetik, atzerritarrek osasunerako duten eskubidea erabat betetzen dela ziurtatzera bideratutako esku-hartzeak biltzen dira arlo honetan, betiere normalizazio-printzipioaren esparruan.

**Etxebizitza arloa**

Atzerritarrek, oinarrizko gizarte-eskubide gisa, etxebizitza duina izateko duten eskubidea bermatzera bideratutako esku-hartzeak biltzen ditu etxebizitza-arloak.

**Hezkuntza arloa**

Beren oinarrizko eskubide bat den aldetik, atzerritarren hezkuntza-eskubidea erabat betetzen dela ziurtatzera bideratutako esku-hartzeak biltzen dira arlo horretan, betiere normalizazio-printzipioaren esparruan. Jardun-eremuak derrigorrezko hezkuntza eta sektore publikoaren eskutik gure sisteman ematen edo ziurtatzen diren beste hezkuntza-ekintza batzuk biltzen dira, bereziki helduen hezkuntza.

**Kulturartekotasun arloa**

Kultura-arloko eskubideen esparruan, Kulturartekotasunaren arloak dimentsio bikoitza du. Alde batetik, atzerritarrek euskal kultura osorik baliatzeko aukera ziurtatu eta ahalbidetu nahi da, batez ere EAEko bi hizkuntza ofizialak ikasteari dagokionez, integrazio-prozesuaren zati gisa. Era berean, eremu horretako esku-hartze publikoaren helburua honako hau da: atzerritarren berezko kulturak euskal gizartean iraunaraztea eta garatzea, baita kultura horiek gizarte-bizitzan parte-hartze aktiboa edukitzea ere. Horretarako, honako hauetara bideratutako norabideak txertatu dira: interesdunek beren jatorrizko herrialdeetako erakundeekin lankidetzan jarduera eta kultura aniztasun horren ordezkari diren organoak edo taldeak ahalduntzera, betiere laguntza publikoa duen auto-

nomia-esparrua izan dezaten euskal gizartean beren nortasun kulturala garatzeko.

**Esku-hartze osagarriaren arloa**

Jende mota jakin batzuk jomugan izatea da Esku-hartze osagarriaren ezaugarri nagusia. Esku-hartze horretan biltzen diren norabideak ekintza publiko osagarrira edo konpentsaziozkora bideratuta daude, kalteberatasun handiagoko egoeran dauden atzerritarren kolektibo jakin batzuen integrazioa ziurtatzeko. Kolektibo horretakoak dira inoren kargura ez dauden adingabeak, sasoiko langileak eta horien familiak, esplotazio sexualaren biktimak diren emakumeak edo gizonak eta askatasunaz gabetutako atzerritarrak.

#### 1.2.1.2. Gizarte hartzaileari batez ere bideratutako eremua

**Sentsibilizazio arloa**

Arlo honetan euskal gizarte osoari immigrazioari buruzko informazioa eta prestakuntza emateko esku-hartzeak sistematizatzen dira. Halaber, gizarte-sentsibilizazioa, presio politikoa eta salaketa publikoak eremurik egokienak dira gizarte-taldeek immigrazio politikan parte hartzea sustatzeko eta bideratzeko.

### 1.2.2. Kanpo proiekzioaren arloa

#### 1.2.2.1. Lagundutako garapenaren arloa

Migrazioen eta migrazio-fluxuen jatorrizko herrietako garapen-prozesuen arteko lotura egiazta daitekeen errealitatea da, eta gero eta garrantzitsuagoa da migrazio fenomenoa ulertzeko.

Esan liteke munduko migrazio-mugimenduen hazkundearen testuinguruan gauzatzen den estrategia sorta dela lagundutako garapena, kulturartekotasuna, etorkinak harrerako herrialdeetan integratzeko eta etorkinen sorterriak garatzeko helburuak dituena.

Lagundutako garapenari dagokionez, oso garrantzitsutzat hartzen da etorkinek beren jatorrizko zonen eta euskal gizartearen garapenerako eragile aktibo gisa duten zeregina.

Arlo horretako jardunak migrazioen eta garapenaren arteko loturak zein diren zehazkiago jakitera bideratuta daude, baita migrazio-fluxuek duten indarra aprobetxatzeko jarduerak gauzatzera ere, immigrazioaren jatorrizko zonak garatzea errazteko.

## 2. NORABIDEAK ETA NEURRIAK

### 1. ARLOA. ERAKUNDE ANTOLAMENDUA

**1. NORABIDEA:** IMMIGRAZIO ARLOKO ESKU-HARTZERAKO ERREFERENTZIEN SISTEMA BAT ZEHARKA ANTOLATZEA, HONAKO HAUEK ZEHAZTUTA: ORGANOAK, KOORDINAZIO HARREMANAK, PARTE-HARTZEA, MAILAK, ESKUMEN EREMUAK, ETAB.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Immigrazio Zuzendaritzaren eta EUDELen (Euskadiko Udalen Elkartea) arteko hitzarmen bat bultzatzea, herritar etorkinen arretarako jardunbide egokien protokoloa egiteko. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Protokoloa<br>- Ekintzak, gomendioak eta hartutako konpromisoak | ● | ○ | ○ | EUDEL |
| 2 | Immigrazio-arloko neurriak artikulatzea eta txertatzea errazteko aldaketak proposatzea Eusko Jaurlaritzaren koordinazio-batzordeetan. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Batzordeetako gai-zerrendetan bildutako proposamenak<br>- Atxikitako sail eta erakundeen kudeaketara biltzea | ● | ● | ● | Eusko Jaurlaritzaren Sailak |
| 3 | Udaletako Gizarte Zerbitzuak eta bestelako Gizarte Zerbitzuak arautzen dituen araudian etorkinen arreta eta gizarte-integrazioa errazteko xedapenak txertatzea, betiere zeharkakotasuna aintzat hartuta. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Araudia testuan txertatzea<br>- Aldaketak udaletako arlo eta zerbitzuen kudeaketan | ● | ● | ● | - Foru Aldundiak<br>- Udalerriak eta Toki Erakundeak |
| 4 | Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa finkatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Funtzionamendu-araudia egokitzea eta eguneratzea<br>- Laguntza teknikoko eta antolamendu-euskarriko ekintzak | ● | ● | ● | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | HELDU Laguntza Soziojuridikorako Zerbitzua finkatzea hiru Lurralde Historikoetan. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hedapen- eta sozializazio-ekintzak<br>- Prozedurak eta zerbitzuak eguneratzea | ◉ | ◉ | ◉ | - Hiru Lurralde Historikoetako Abokatuen Elkargoak |
| 6 | BILTZEN finkatzea eta sozializatzea gaur egun duen izaera (Kulturarteko Bitartekotza eta Hezkuntzarako Ekimenak Koordinatzeko Zentroa) aintzat hartuta, EAEko etorkinak erabat integratzeko jarduerak landuz. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hedapen- eta sozializazio-ekintzak<br>- Zerbitzu-zorroa eguneratzea<br>- Aktibatutako lankidetzako protokoloak eta hitzarmenak | ◉ | ◉ | ◉ | - Eusko Jaurlaritzaren Sailak, Foru Aldundiak eta Toki Erakundeak<br>- Etorkinen erakundeak eta etorkinei lagun-tzeko erakun-deak<br>- Gizarte, kultura eta hezkun-tzaren arloko ekintzari lotu-riko erakundeak |
| 7 | IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokia finkatzea eta kulturarteko bizikidetza sustatu, neurtu eta ebaluatzeko balio duten adierazleak aztertu eta sortzea bultzatzen duten ikerketa-ildo berriak sustatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hedapen- eta sozializazio-ekintzak<br>- Zerbitzu-zorroa eta lan-ildoak eguneratzea<br>- Aktibatutako lankidetzako protokoloak eta hitzarmenak | ◉ | ◉ | ◉ | |
| 8 | Eusko Jaurlaritzaren Sailekin hitzarmenak egitea, Immigrazio Zuzendaritzak sortutako zerbitzuekiko (HELDU, IKUSPEGI, BILTZEN) lankidetza antolatu, artikulatu eta optimizatzeko, biztanleria etorkinaren integrazioa ikuspegi globala kontuan izanik erraztearren. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hitzarmenak egin dituzten sailen kopurua<br>- Hitzarmenen kopurua<br>- Hitzarmenek eraginpean hartutako esku-hartze eremuak | ◉ | ◉ | ◉ | Eusko Jaurlaritzaren Sailak eta Erakunde Autonomoak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren arteko alde biko koordinazio-ekimenak garatzea, etorkinak euskal gizartean sartzea bultzatzearren, jatorrizko herrialdeetan lankidetza-formulak identifikatuz. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Zein egitura egonkorretan hartzen den parte<br>- Koordinazio-prozesuari loturiko ekintzak: laguntzak, sortutako dokumentazioa, lan-programa, etab.<br>- Akordioak, hitzarmenak, etab. | ● | ● | ● | - Immigrazio Zuzendaritza<br>- Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua |
| 10 | Interprete-sare baten sorkuntza bultzatzea, administrazio publikoei zerbitzua emateko EAEko bi hizkuntza ofizialetatik bakar bat ere ez dakiten erabiltzaile etorkinekin duten harremanean. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Esparru-dokumentua: dimentsioak, kudeaketa-eredua, aurrekontu-esleipena, etab.<br>- Interpreteen kopurua | ● | ● | ● | |
| 11 | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean emakume etorkinen egoera hobetzeko helburuak eta neurriak txertatzea. | LEHENDAKARITZA / EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea | Planteaturiko helburuen eta neurrien kopurua eta gauzaturiko helburuen eta neurrien kopurua | ● | ● | ● | - Euskal Administrazio Publikoak.<br>- Gizarte-eragileak |
| 12 | Gizarte-eragileek Administrazio Publikoekin batera prostituzioaren eremuan garatzen dituzten ekimenak zentralizatu, dinamizatu eta koordinatzeko programa diseinatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Kudeaketa-programa<br>- Programari atxikitako administrazioak eta erakundeak | ● | ○ | ○ | - Administrazio publikoak<br>- Gizarte-erakundeak |
| 13 | Herri arrantzaleen esparruan, etorkinak integratzeko ekimenak koordinatu eta bultzatuko dituen batzordea eratzea. | NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA / ARRANTZA ETA AKUIKULTURA ZUZENDARITZA | - Batzordearen eraketa<br>- Lan-agenda<br>- Urteko txostena | ● | ● | ● | - Immigrazio Zuzendaritza<br>- Sindikatuak<br>- Lurralde Federazioak<br>- Arrantza-kofradiak<br>- Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/Lan Batzordea<br>- Enpleguko Udal Zerbitzuak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 14 | HELDU EAEko etorkin atzerritarrentzako Laguntza Soziojuridikorako zerbitzuaren Jarraipen Batzordean parte hartzea. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA | - Batzordean eraginkor sartzea<br>- Batzordeari egindako proposamenei buruzko txostena<br>- Zerbitzuaren (HELDU) kudeaketan eta funtzionamenduan biltzen diren proposamen eta gomendioak | ● | ● | ● | |
| 15 | Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan parte hartzea, eta, hala badagokio, Sailen arteko Batzordean, organo horien jardueran genero-ikuspegia txertatzeko proposamenak egitearren. | LEHENDAKARITZA / EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea | - Foroan sartzea modu eraginkorrean<br>- Sailen arteko Batzordean sartzea modu eraginkorrean<br>- Egindako proposamenei buruzko txostena<br>- Foroaren eta Batzordearen txostenetan biltzen diren genero-arloko gomendioak | ● | ● | ● | Emakumeen elkarteak |
| 16 | Sortuko den Haurren Behatokiaren ordezkari batek Immigrazioaren Euskal Batzordean parte hartzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Haurren Behatokiaren Ordezkaria Immigrazioaren Euskal Batzordean sartzea modu eraginkorrean<br>- Egindako proposamenei buruzko txostena<br>- Batzordearen lan-agendan bildutako gomendioak | ● | ● | ● | |
| 17 | Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroak ordezkaritza izatea, gonbidatu gisa, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluan. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Foroaren ordezkaria modu eraginkorrean sartzea Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluan (GOEK)<br>- Gizarte Ongizate Zuzendaritzaren kudeaketan txertatzen diren proposamenak, Foroarenak hain zuzen ere | ● | ● | ● | Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa eta haren batzordeak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 18 | Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren ordezkari batek parte hartzea Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - GOEKen ordezkaria modu eraginkorrean sartzea Foroan<br>- Foroaren lan-agendan biltzen diren GOEKen proposamenak | ● | ● | ● | Immigrazio Zuzendaritza |
| 19 | Batzordeetan parte hartzea gizarte-eragileekin, batez ere biztanleria etorkin handiena duten auzo eta herrietan, polizia-jarduneko lan-ildoak ezartzearren. | HERRIZAINGO SAILA / ERTZAINTZAREN ZUZENDARITZA | - Zenbat batzordetan parte hartzen den<br>- Zenbat bileratan parte hartu den<br>- Lortutako akordioen kopurua | ● | ● | ● | |
| 20 | Oro har gizarte-bazterkeriaren arloko eta bereziki immigrazioaren arloko batzorde tekniko, erakunde arteko foro eta sektore-behatokietan parte hartzea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Zein egituratan parte hatzen den modu eraginkorrean<br>- Planifikazioko eta kudeaketako prozesuetan sartzen diren elementuak | ● | ● | ● | |
| 21 | Toki-erakundeekin batera aritzea immigrazioko tokiko planak eta esku-hartze programak diseinatzen. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Laguntza ematen zaien toki-erakunde, plan eta programen kopurua<br>- Lotzen diren ekarpen eta antolakundeen ezaugarriak | ● | ● | ● | |
| 22 | Immigrazioko Foru Plan bat diseinatzea Gizarteratzeko Foru Planaren baitan. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA | - Dokumentua: helburuak, jardunak, ebaluatzeko adierazleak, etab. | ● | ● | ● | |

**2. NORABIDEA:** ATZERRITAR ETORKINEN HARRERARAKO UDAL ARLOKO SARE PUBLIKOA SENDOTZEA ETA SARE HORI GIZARTE EKIMEN PRIBATUKO BALIABIDEEKIN ARTIKULATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Udal Arloko Harrera Sarea finantzatzeko EAEko toki-erakundeentzako laguntzen deialdia egitea urtero. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Laguntzei buruzko agindua | ● | ● | ● | |
| 2 | Jaurlaritzaren, Toki Erakundeen eta Foru Aldundien arteko hitzarmen eta jardun-protokoloak ezartzea, immigrazioaren arloan. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hitzarmenen kopurua<br>- Bildutako konpromisoak<br>- Hitzarmenen ondorioz sortutako plan, programa eta proiektuak<br>- Hitzarmenen onuradun diren pertsonen ezaugarriak: adina, sexua, jatorria, etab. | ● | ○ | ○ | - Foru Aldundiak<br>- Udalerriak eta Toki Erakundeak |
| 3 | HELDUren eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeen artean lankidetza-protokoloak sinatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Sinaturiko protokoloen kopurua<br>- Hartutako konpromisoak<br>- Arreta eman zaien pertsonen kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak |

**3. NORABIDEA:** ETORKINEN INTEGRAZIOAREN ETA IMMIGRAZIOARI BURUZKO EUSKAL PLANAREN INGURUKO PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA GENERIKOA SUSTATZEA, EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZURA DAUDEN LANGILEAK JOMUGAN HARTUTA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritza edo Sail bakoitzeko immigrazio-arloaren arduradunentzako Prestakuntza Plana diseinatzea eta eskaintzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Diseinaturiko/eginiko prestakuntza-ekintzen kopurua eta tipologia<br>- Parte hartu duten sail eta erakundeen kopurua<br>- Parte-hartzaileen poztasun-maila | ◉ | ◉ | ◉ | HAEE/IVAP |
| 2 | Dagokien jardun-eremuko profesionalentzako prestakuntza-ekintzak diseinatzeko eta antolatzeko laguntza ematea Eusko Jaurlaritzaren sailei eta erakunde autonomoei. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Ekimena sozializatzeko ekintzak eta euskarriak<br>- Aholkularitza-ekintzen kopurua<br>- Aholkua eskatu duten sail eta erakundeen kopurua | ◉ | ◉ | ◉ | |
| 3 | Prestakuntza-ikastaroen eskaintza, etorkinen harrerako eta integrazioko prozesuetan inplikaturiko udal-langileei eta gainerako irudiei bideratua (Immigrazio-teknikariak, gizarte-hezitzaileak, enplegu-teknikariak, Herritarren Arretarako Zerbitzuetako langileak, etab.). | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Diseinaturiko/eginiko prestakuntza-ekintzen kopurua<br>- Eskaintzaren estaldura, honako irizpide hauen arabera: zona, zerbitzuak, etab.<br>- Prestakuntza-ekintzetan parte hartu dutenen kopurua<br>- Parte-hartzearen tasak, honako irizpide hauen arabera: adina, lanbide-profila, zona, etab. | ◉ | ◉ | ◉ | EUDEL |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | HAEE/IVAPekin egindako prestakuntza-arloko hitzarmenean immigrazioari eta kulturarteko bizikidetzari loturiko edukiak biltzea, Immigrazio Zuzendaritzak toki-erakundeei bideratzen dien prestakuntza-eskaintzarekin artikulatzeko formula egokiak ezarriz. | EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea | - Diseinaturiko/eginiko prestakuntza-ekintzen kopurua<br>- Eskaintzaren estaldura, honako irizpide hauen arabera: zona, zerbitzuak, etab.<br>- Prestakuntza-ekintzetan parte hartu dutenen kopurua<br>- Parte-hartzearen tasak, honako irizpide hauen arabera: adina, lanbide-profila, zona, etab.<br>- EUDELen, HAEE/IVAPen eta Immigrazio Zuzendaritzaren artean koordinatzeko ekintzak | ● | ● | ● | - Immigrazio Zuzendaritza<br>- HAEE/IVAP |
| 5 | Immigrazioari eta kulturarteko bizikidetzari buruzko tokiko prestakuntza-planak lantzea. | EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea | - Prestakuntzako Tokiko Planak egiteko orientabideen dokumentua<br>- Planen kopurua<br>- Planetan bildutako ekintzen kopurua eta tipologia<br>- Hartzaileen tipologia | ● | ● | ● | - Immigrazio Zuzendaritza |
| 6 | Genero-ikuspegia txertatzea Immigrazio Zuzendaritzak sustaturiko prestakuntzako ekintza eta prozesuetan. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Gida-dokumentua: planteamendua, metodologia-orientabideak, ebaluaziorako adierazleak, etab.<br>- Proposamena gauzatzeko ekintzen kopurua<br>- Egokituriko edo sorturiko materialak | ● | ● | ● | - Emakunde<br>- Berdintasuneko Udal Arloak<br>- Emakumeen Elkarteak |
| 7 | Immigrazioari eta kulturartekotasunari buruzko prestakuntza-ekintzak egitea, honako hauei bideratuak:<br>- Foru-titulartasuneko zerbitzuetako profesionalak<br>- Foru-titulartasuneko zerbitzuen kudeaketa-hitzarmenetan parte hartzen duten gizarte-erakundeetako langileak. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA | - Diseinaturiko/eginiko prestakuntza-ekintzen kopurua<br>- Parte-hartzearen tasak, honako irizpide hauen arabera: adina, lanbide-profila, zona, etab. | ● | ● | ● | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | Migrazio-fenomenoaren eta etorkinen gizarte-integrazioaren arloan etengabe eguneratzea, horiei erantzuteko elementuak erraztearren. | HERRIZAINGO SAILA / SEGURTASUN SAILBURUORDETZAREN KABINETEA | - Prestakuntza-ekintzetara bertaratutakoen kuantifikazioa<br>- Argitaraturiko artikuluen kuantifikazioa | ◉ | ◉ | ◉ |
| 9 | Administrazio Poliziari eta Atzerritartasunari buruzko prestakuntza-moduluak ematea Ertzaintzari eta Udaltzaingoei, oinarrizko, mailaz igotzeko eta espezializatzeko ikastaroetan. | HERRIZAINGO SAILA / EUSKAL HERRIKO POLIZIA IKASTEGIA | - Emandako ikastaroen kopurua<br>- Ikastaroetan parte hartu duten Ertzaintzako eta Udaltzaingoetako ikasleen kopurua | ◉ | ◉ | ◉ |
| 10 | Immigrazioaren errealitateari buruzko ikastaro edo mintegi espezifikoak ematea Ertzaintzari eta Udaltzaingoei. | HERRIZAINGO SAILA / EUSKAL HERRIKO POLIZIA IKASTEGIA | - Mintegien kopurua<br>- Mintegietan parte hartu duten Ertzaintzako eta Udaltzaingoetako ikasleen kopurua<br>- Poztasun-mailari buruzko inkestak | ◉ | ◉ | ◉ |
| 11 | Erkidegotik kanpoko beste hizkuntza eta kultura batzuk ikasteko prestakuntza ematea. | HERRIZAINGO SAILA / EUSKAL HERRIKO POLIZIA IKASTEGIA | - Ikasleen kopurua<br>- Mailen kopurua<br>- Taldeen kopurua | ◉ | ◉ | ◉ |
| 12 | Prestakuntza-jardunaldiak prestatzea honako hauekin: Gizarte Zerbitzuak, Gizarteratze Mahaia, etab. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Jardunaldien kopurua<br>- Edukien tipologia<br>- Parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak | ◉ | ◉ | ◉ |

## 2. ARLOA. INFORMAZIOA

**1. NORABIDEA:** EAE-KO IMMIGRAZIOAREN ERREALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA SORTU, HEDATU ETA ERABILTZEKO SISTEMA INTEGRATUA GARATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Eusko Jaurlaritzaren atari birtualean immigrazioari buruzko informazioa emateko (informazio instituzionala, baliabideak, azterlanak, ekimenak, laguntzak, etab.) duen gunea iraunaraztea eta eguneratzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Immigrazioari buruzko II. Planaren indarraldian egindako eguneratzeen kopurua<br>- Urteko txostena: kontsulten kopurua eta ezaugarriak, erabiltzaileen poztasun-maila, etab. | ● | ● | ● | |
| 2 | Euskarri informatikoan edukitzea atzerritar biztanleria etorkinari buruzko datuak, aldagai nagusien arabera sailkatuak: sexua, adina, eremu geografikoa, nazionalitatea, ikasketa-maila, etab. (balio absolutuak, ehunekoak, tasak, grafikoak, sail historikoak, etab.) | OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA / EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea | - Urteko txostena: kontsultak, eskaerak, iturriak, eguneratzeak, ustiapenak, etab. | ● | ● | ● | |
| 3 | Inkesta soziodemografikoetan nazionalitatea sartzea, aztertzeko aldagai gisa. | OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA / EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea | - Aldagaiak hautatzeko eta inkesta nahiz azterlan sozidemografikoetan txertatzeko irizpideak<br>- Aldagai horiek txertatu diren inkesten kopurua<br>- Aldagaien kopurua eta motak<br>- Sintesien eta gomendioen txostenak | ● | ● | ● | - Immigrazio Zuzendaritza<br>- IKUSPEGI |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | IKUSPEGIren, EUSTATen, Foru Aldundien, Toki Erakundeen, etab. arteko lankidetzarako formulak bultzatzea, EAEko immigrazioaren errealitateari buruzko datuak bildu, trukatu eta ustiatzeko. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Lankidetza-akordioen kopurua<br>- Eremuak eta bildutako konpromisoak | ● | ○ | ○ | |
| 5 | IKUSPEGIri datuak ematen dizkioten sail eta organoentzako programa informatiko komuna sortzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Programaren ezaugarri teknikoak<br>- Erabiltzaileen kopurua eta ezaugarriak<br>- Programan oinarrituriko ustiapenak | ● | ○ | ○ | |
| 6 | IKUSPEGIREN azterlanak eta estatistika-ustiapenak Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen 16. artikuluan ezarritakora egokitzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Egokitzeko irizpideak<br>- Irizpide horiek aplikatzen zaizkien txostenak, azterlanak, etab. | ● | ○ | ○ | EMAKUNDE |
| 7 | Segurtasun Sailburuordetzak immigrazioari eta etorkinen gizarte-integrazioari buruz duen fondo dokumentala handitzea. | HERRIZAINGO SAILA / SEGURTASUN SAILBURUORDETZAREN KABINETEA | Liburutegiko teknikari dokumentalistek erabiltzen duten datu-basean lortutako zenbaketa orokorra (teknikari horiek datu-base horietan zenbatu eta erregistratzen dituzte eskuratutako argitalpenak, baita egindako maileguak eta kontsultak ere) | ● | ● | ● | |
| 8 | Europar Batasunaren immigrazioko eta lagundutako garapeneko politikei buruzko informazioa Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzaren bitartez hedatzeko eta sozializatzeko prozedurak. | LEHENDAKARITZA / KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA / EUROPAKO GAIETARAKO ZUZENDARITZA | | ● | ● | ● | |

**2. NORABIDEA:** EAE-N IMMIGRAZIOAK DITUEN DIMENTSIOEI BURUZKO IKERLAN ETA AZTERKETAK EGITEKO AUKERA SUSTATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Immigrazioari eta kulturartekotasunari buruzko azterlan eta ikerlanak egiteko laguntza-ildo bat ezartzea eta aplikatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Urteko deialdia<br>- Oinarri teknikoak<br>- Aurrekontu-esleipena<br>- Urtero egindako azterlanen kopurua eta tipologia<br>- Azterlanak hedatzeko ekintzak | ● | ● | ● | |
| 2 | Kulturarteko bizikidetzari buruzko adierazleak txertatzea Agenda 21eko prozesuen esparruan tokiko gizarte-iraunkortasuneko prozesuei buruz egingo diren azterlanetan eta garatuko diren jardunetan. | EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea | - Adierazleen zerrenda<br>- Azterlanetan ebaluaziorako txertatzen diren tresna eta ekintza espezifikoak<br>- Ondorioei eta gomendioei buruzko txostenak | ● | ● | ● | - Immigrazio Zuzendaritza |
| 3 | Euskadiko emakume etorkinen baldintzei, egoerei eta premiei buruzko azterlana egitea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Azterlanaren oinarri teknikoak<br>- Ondorioei eta gomendioei buruzko txostena<br>- Hedatzeko ekintzak eta euskarriak | ● | ○ | ○ | |
| 4 | Atzerritar biztanleriari buruzko atal bat txertatzea Emakundek urtero egiten duen “Euskadiko emakumeen egoerari buruzko zifrak” izeneko txostenean. | LEHENDAKARITZA / EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea | - Txostenean biltzen diren elementuak, hala nola datuak eta gomendioak<br>- Txostena banatzeko eta hedatzeko ekintzak<br>- Txostenaren arabera egindako planifikazioetara biltzea | ● | ● | ● | - Euskal Herriko Unibertsitatea<br>- Emakumeen Elkarteak<br>- Etorkinen erakundeak eta etorkinei laguntzeko erakundeak<br>- Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | Atzerritar etorkinen kolektiboei dagokienez, EAEko udalerrietako eremu publikoen erabilerari buruzko azterlana egitea, herritar guztiek eremu horiek erabili eta gozatzea errazteko neurriak proposatze aldera. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA / EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea | - Azterlanaren oinarri teknikoak<br>- Ondorioei eta gomendioei buruzko txostena<br>- Hedatzeko ekintzak eta euskarriak | ● | ○ | ○ | |
| 6 | Azterlan bat egitea etorkinek eta etorkinen elkarteek parte hartzeko dituzten moduak eta politika publikoak definitzeko prozesuetan administrazioak bultzatzen ari diren esperientziak aztertzeko: diagnostikoak, planen inplementazioa eta jarraipena, kontsulta-prozesuak, batzordeak, toki-foroak, etab. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / HERRITARREN PARTAIDETZARAKO SAILBURUORDETZA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Azterlanaren oinarri teknikoak<br>- Ondorioei eta gomendioei buruzko txostena<br>- Hedatzeko ekintzak eta euskarriak | ● | ○ | ○ | EUDEL |
| 7 | Estatistika-informazioa lantzea aldian-aldian, Ertzaintzak eta dagokien erakunde ofizialek plan zehatzak egitea ahalbidetzearren, betiere zona jakin bakoitzeko errealitate soziokulturala kontuan izanik. | HERRIZAINGO SAILA / SEGURTASUN SAILBURUORDETZAREN KABINETEA | - Ertzaintzak ezagutzen duen delinkuentzia-errealitatean (atxiloketak, biktimak, salatzaileak, etab.) immigrazioak duen eraginari buruz egindako estatistiken kopurua eta tipologia<br>- Estatistiken aldizkakotasuna | ● | ● | ● | |
| 8 | Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren gaiak ardatzat dituzten mintegiak eta topaketak egiteko aukera sustatzea. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA | - Ekintzen kopurua<br>- Edukien tipologia<br>- Parte-hartzaileen kopurua eta tipologia | ● | ● | ● | - Prestakuntza-erakundeak<br>- Gizarte-erakun-deak |
| 9 | Lau hilean behingo barometroa sortzea, EAEko kulturarteko bizikidetzaren egoera aztertuko duena. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Txostenak eta hedapen-ekintzak | ● | ● | ● | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 10 | Arabako Lurralde Historikoko landa-inguruneko emakume etorkinen egoerari buruzko azterlana egitea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Azterlanaren oinarri teknikoak<br>- Ondorioei eta gomendioei buruzko txostena<br>- Azterlana hedatzeko eta sozializatzeko ekintzak | ● | ○ | ○ | - Toki-erakundeak<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak |
| 11 | EAEko immigrazio-fenomenoari buruzko azterlan eta azterketak, honako hauetara bideratuak: hizkuntza-planak diseinatu eta garatzera, talde estrategikoak identifikatzera, eta euskararekiko sentsibilizazio-prozesuetara, biztanleria etorkina jomugatzat hartuta. | KULTURA SAILA / EUSKARA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA | - Datu eguneratuak<br>- Egindako azterlanak<br>- Hizkuntzei buruz beharrezkoak diren datuen identifikazioa<br>- Propio aztertu eta ezarritako planak | ● | ● | ● | - Immigrazio Zuzendaritza<br>- Etorkinen elkarteak |
| 12 | Etxebizitzak eta immigrazioak EAEn duten egoerari buruzko azterlana egitea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / ETXEBIZITZA, BERRIKUNTZA ETA KONTROL ZUZENDARITZA | | ● | ○ | ○ | - Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza<br>- Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza |

# 3. ARLOA. BERME JURIDIKOAK

**1. NORABIDEA:** ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN INTERPRETAZIORAKO EAE-KO EREMUKO ESPARRU BATERATUA ARGITZEKO PROZESUAN AURRERA EGITEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Etorkinen Eskubide eta Betebeharrei buruzko oinarrizko Araua lantzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Dokumentua<br>- Hedapen-ekintzak | ● | ○ | ○ | Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa |
| 2 | Gizarte-sustraitzerako baldintzei buruzko interpretazioaren homogeneizazioaz Gobernu Zentralaren EAEko Ordezkaritzari egindako proposamena. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Egindako bilerak<br>- Lortutako akordioak | ● | ○ | ○ | |

**2. NORABIDEA:** INFORMAZIO, ORIENTAZIO ETA LAGUNTZA JURIDIKO KUALIFIKATUA —ETA HALA BADAGOKIO, DOAKOA— BERMATZEA, OINARRIZKO ESKUBIDEEKIN EDO ATZERRITARTASUN JURIDIKOAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIETAN, HARRERA ETA GIZARTERATZE PROZESUEN OSAGARRI.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Abokatuen Elkargoetako ofiziozko txandaren finantziazioa; txanda horren barnean hartzen dira atzerritarrei buruzko txanda espezifikoak, gai judizialei dagokienez. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA | - Programaren baitan arreta eman zaien pertsonen kopurua<br>- Inplikaturiko profesionalen kopurua<br>- Profesionalen esku-hartzea eragiten duten egoeren tipologia | ● | ● | ● | Hiru Lurralde Historikoetako Abokatuen Elkargo Ofizialak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | HELDU Laguntza Soziojuridikorako Zerbitzua honako txanda hauekin koordinatzea: atzerritarrei buruzkoa, adingabeena eta espetxeratuen lege-laguntzari buruzkoa. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Sinaturiko protokoloak<br>- Bildutako konpromisoak<br>- Bideratu diren kasuen kopurua<br>- Bideratutako pertsonen ezaugarriak: adina, sexua, jatorria, etab. | ● | ● | ● | - Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila / Giza Eskubideen Zuzendaritza<br>- EAEko Abokatuen Elkargoak |
| 3 | Jarduteko hitzarmen edo protokolo bat ezartzea zigorrak betearazteko zerbitzuekin, HELDUrako kasuen bideratzea artikulatzeko. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Sinaturiko protokoloak<br>- Laguntza eman zaien pertsonen kopurua<br>- Bideratutako pertsonen ezaugarriak | ● | ● | ● | Justizia, Lan Eta Gizarte Segurantza Saila / Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza |
| 4 | Biztanleria etorkinaren artean Biktimei Laguntzeko Zerbitzuaren berri hedatzea (EAEko hiru hiriburuetako Justizia Jauregietan daude) eta HELDUrekin koordinatzeko formulak artikulatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hedatzeko euskarriak eta ekintzak<br>- Aktibatu diren bideratze- eta lankidetza-prozedurak | ● | ● | ● | |

**3. NORABIDEA:** ATXILOTURIK DAUDEN ETORKINEN JARRAIPENA EGITEKO ETA HAIEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO FORMULAK SUSTATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Polizia-zerbitzuak hobetzeko etorkinek EKINBIDEren bitartez (Polizia Zerbitzuak Hobetzeko Ekimenen Bulegoa) proposaturiko ekimenak eta egindako proposamenak jasotzea eta haiei erantzutea. | HERRIZAINGO SAILA / SEGURTASUN SAILBURUORDETZAREN KABINETEA | - Polizia-zerbitzuak hobetzeko proposamen eta ekimenen kopurua | ● | ● | ● | |

**4. NORABIDEA:** ADMINISTRAZIOAREN EREMUAN ETA EREMU JUDIZIALEAN INTERPRETAZIO ZERBITZU BAT BERMATZEA, ATZERRITARREN ESKUBIDE ZIBILAK BETETZEN DIRELA BERMATZEKO NAHIKOA DENA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten itzultzaile eta interpreteen zerbitzuen kontratazioari eustea. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARITZA | - Hitzarmena eta urteko baliabide-hornidura<br>- Interpreteen kop. / Eskaeren kop. ratioa<br>- Eskaeren kopurua eta ezaugarriak hizkuntzaren arabera | ● | ● | ● | |
| 2 | Ertzain-etxeetan atxiloturik dauden atzerritarrentzako interpretazio-zerbitzuari eustea. | HERRIZAINGO SAILA / SEGURTASUN SAILBURUORDETZAREN KABINETEA | - Enpresa hornitzailearekiko hitzarmena berritzen den bakoitzean kontuan hartutako baliabideen hornidura<br>- Interpreteen kop. / Eskaeren kop. ratioa<br>- Eskaeren kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | |

**5. NORABIDEA:** GIZA ESKUBIDEETAN ETA ATZERRITARREN ESKUBIDEETAN GAITZEKO EKINTZAK SUSTATZEA. EKINTZA HORIEK ESKUBIDE ZIBILAK BETETZEAN ZUZENEAN INPLIKATURIK DAUDEN LANGILE PUBLIKOEI BIDERATUKO ZAIZKIE: ERTZAINTZARI, UDALTZAINEI, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEI, ETAB.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloko sentsibilizazioko, informazioko, etengabeko prestakuntzako, etab. ekintzak egitea, etorkinen defentsak dituen berezitasunei buruzkoak. Ekintza horiek etorkinen defentsa eta ordezkaritza juridikoan diharduten profesionalei bideratuko zaizkie eta kalitate-kontrol egokiak ezarrita egingo dira. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA | - Egindako sentsibilizazioko, prestakuntzako, etab. ekintzak<br>- Parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak<br>- Euskarriak eta sortutako dokumentazioa | ● | ● | ● | - EAEko Abokatuen Elkargo Ofizialetako Praktika Juridikoko Eskolak<br>- Deustuko Unibertsitatea<br>- Atzerritarren txanden ardura duten profesionalak<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Immigrazio Zuzendaritza |

**6. NORABIDEA:** ATZERRITARREI BURUZKO EGUNGO LEGE ESPARRUA ALDATZEKO EKIMENAK BULTZATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Atzerritartasunaren arloko egungo lege-esparrua aldatzeko ekimen instituzional eta sozialak sustatzea, bideratzea eta haietarako laguntza ematea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Sustaturiko ekimenak<br>- Laguntza emandako ekimenak | ● | ● | ● | - Administrazio Publikoak<br>- Gizarte-arloko erakunde eta eragileak |

# 4. ARLOA. PARTE-HARTZEA

**1. NORABIDEA:** HERRITARREK PARTE HARTZEN DUTEN EREMUETAN, BESTEAK BESTE AUZO-ELKARTE, SINDIKATU, KONTSUMITZAILEEN ELKARTE ETA JAI-BATZORDEETAN, ETORKINAK INTEGRA DAITEZEN ETA PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Parte-hartzeari buruzko modulu bat txertatzea toki-erakundeetara bideraturiko prestakuntza-planetan. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Moduluaren programa: edukiak, metodologia, ordu-ehunekoa, etab.<br>- Modulu hori eraginkor txertatzen den prestakuntza-ekintzen kopurua | ● | ● | ● | Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/ Herritarren Parte Hartze, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordea |
| 2 | Etorkinen eta bestelako elkarteen (auzo-elkarteak, merkatarien elkarteak, gazte-elkarteak, kultura-elkarteak, guraso-elkarteak, etab.) arteko topaketak antolatzeko bultzada ematea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA / EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea | - Ekimenaren hedapenari loturiko ekintzak<br>- Topaketen kopurua<br>- Elkarte parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak<br>- Ondorioei buruzko txostenak eta sortutako dokumentazioa | ● | ● | ● | - Gizarte-arloko elkarte eta erakundeak<br>- Gazte Elkarteak<br>- Auzo-elkarteak, Gazte-elkarteak, Herritarren plataformak, etab. |
| 3 | Partaidetza-eremu horietan etorkinek duten egoeraren berri hedatzea, materialak sortuz, jardunaldiak eta topaketak eginez, etab. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / HERRITARREN PARTAIDETZARAKO SAILBURUORDETZA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hedatzeko ekintzen kopurua<br>- Euskarriak eta sortutako dokumentazioa<br>- Hartzaileen kopurua eta tipologiak | ● | ● | ● | - EUDEL<br>- Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/ Herritarren Parte Hartze, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordea |

**2. NORABIDEA:** ETORKINEK ETA ETORKINEN ELKARTEEK TOKIKO POLITIKAREN ARLOAN PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Etorkinen boto-eskubideari buruzko jardunaldiak eta/edo mintegiak antolatzea eta eremu horretako azterlan edo ikerlanak bultzatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | | ● | ○ | ○ | Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/ Herritarren Parte Hartze, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordea |
| 2 | Etorkinek eta haien elkarteek toki-eremuko politika publikoetan parte hartzeko prozesuei dagokienez (immigrazioko tokiko planen diagnostiko, garapen eta jarraipeneko prozesuak, kontsulta-foroak, lan-egiturak, etab.) esperientziak eta jardunbide egokiak hedatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / HERRITARREN PARTAIDETZARAKO SAILBURUORDETZA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hedatzeko ekintzen kopurua<br>- Euskarriak eta sortutako dokumentazioa<br>- Hartzaileen kopurua eta tipologia | ● | ● | ● | - EUDEL<br>- Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/ Herritarren Parte Hartze, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordea |
| 3 | Kulturarteko partaidetzako eta etorkinen ordezkaritzako guneak toki-eremuan sortzeko bultzada ematea, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen Legea eta gune horiek sortzea errazten duten bestelako lege eta araudiak aprobetxatuz. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / HERRITARREN PARTAIDETZARAKO SAILBURUORDETZA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Arau-esparruaren azterketa eta ondorioei eta gomendioei buruzko txostena<br>- Proposatu diren partaidetza-formulak<br>- Zehaztutako esperientzien kopurua eta tipologia | ● | ● | ● | EUDEL |

**3. NORABIDEA:** HONAKO HAUEK SUSTATZEA: ETORKINEN ARTEKO ASOZIAZIONISMOA, ELKARTEEN ELKARRIZKETARAKO GAITASUNA ETA ESKU-HARTZE SOZIALEKO PROIEKTUETAN AUTONOMIAZ PARTE HARTZEKO EDO PROIEKTU HORIEK AUTONOMIAZ GARATZEKO GAITASUNAK.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Prestakuntza- eta aholku-ekintzen eskaintza etorkinen elkarteei eta etorkinei laguntzeko elkarteei bideratua, honako hauei buruz: proiektuen kudeaketa, asoziazionismoa, parte-hartzea, kulturartekotasuna, etab. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Egindako ekintzen kopurua<br>- Eskaintzaren lurralde-estaldura<br>- Prestakuntzan parte hartzen duten elkarteen kopurua<br>- Prestakuntzan parte hartzen duten pertsonen kopurua<br>- Kostua parte-hartzaile bakoitzeko<br>- Aurkeztutako/diruz lagundutako proiektuen kopurua | ● | ● | ● | Prestakuntza-erakundeak |
| 2 | Etorkinek irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetan parte har dezaten laguntzeko eta sustatzeko laguntza-ildoari eustea eta ildo hori aplikatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - 155/2002 Dekretua<br>- Urteko deialdietako oinarriak | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak |
| 3 | Emakume etorkinek bultzatutako eta/edo emakume etorkinak jomugan dituzten gizarte-ekimenak babesteko laguntza-ildo bat ezartzea eta aplikatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Urteko deialdietan zehaztutako lehentasun-irizpideak<br>- Aurkeztutako ekimen eta proiektuen kopurua eta ezaugarriak<br>- Emakume etorkinek zuzenean kudeatutako ekimen eta proiektuen kopurua eta ezaugarriak<br>- Laguntzen zenbatekoa | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/ Herritarren Parte Hartze, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordea<br>- Emakumeen elkarteak<br>- Emakunde |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | Emakume etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako proiektuentzako laguntzak aplikatzea, betiere proiektu horiek emakumeen arteko asoziazionismoa sustatzeko diru-laguntzei buruzko dekretuaren esparruan aurkeztu badira. | LEHENDAKARITZA / EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea | - Urteko deialdia<br>- Laguntzak eskatu dituzten/ jasotzen dituzten etorkinen elkarteen kopurua eta ezaugarriak<br>- Proiektuetan aztertutako premiak<br>- Hartzaileen ezaugarriak<br>- Laguntzen guztizko zenbatekoa | ● | ● | ● | Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak |
| 5 | Etorkinen arteko asoziazionismoa sustatzeko eta indartzeko lan-ildo zehatzak garatzea. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA | - Jardunei buruzko txostena<br>- Aurrekontu-gauzatzea<br>- Elkarteen kopurua eta tipologia | ● | ● | ● | Asoziazionis-moko eta bolun-tariotzako agentziak |
| 6 | Proiektu solidarioetarako boluntariotza-programa garatzeko lankidetza-hitzarmenari eustea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Hitzarmena berritzea<br>- Erakundeen/proiektuen kopurua eta ezaugarriak<br>- Aurrekontu-hornidura | ● | ● | ● | ERDU Elkarte eta Boluntarioen-tzako Agentzia |
| 7 | Laguntza-ildo bat aplikatzea immigrazioaren arloko jardunak garatzeko, eta, zehazkiago, etorkinek irabazi-asmorik gabeko erakundeetan parte hartzea sustatzeko. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | | ● | ● | ● | |

## 4. NORABIDEA:

EUSKAL ASOZIAZIONISMOAK GIZA ESKUBIDEEN ETA BEREZIKI EZ-NAZIONALEN ESKUBIDEEN BABESERAKO NAZIOARTEKO INSTANTZIETAN PARTE HAR DEZAN SUSTATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | EAEko elkarte eta erakundeentzako laguntza espezifikoak aplikatzea, Giza Eskubideei buruzko nazioarteko araudia betetzen dela behatu eta araudi horren urraketa nazioarteko erakundeetan salatzeko nazioz gaindiko sareetan parte har dezaten. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA | - Urteko deialdia<br>- Aurrekontu-hornidura<br>- Laguntzak eskatu/lortu dituzten erakundeak<br>- Proiektuen kopurua eta tipologia<br>- Osatzen den harreman-mapa<br>- Urteko txostenak: garatutako jarduera, gomendioak, etab.<br>- EAEn egindako hedapen- eta sentsibilizazio-ekintzak, adierazitako nazioarteko sareetan parte hartu izanaren ondorioz. | ⦿ | ⦿ | ⦿ | - Immigrazio Zuzendaritza<br>- Elkarteak eta Erakundeak |

## 5. NORABIDEA:

KULTURARTEKO BIZIKIDETZAREN ALDEKO PARTE-HARTZE ETA ANTOLAMENDURAKO LAGUNTZA EMATEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Eremu horretan gizarteratze- eta sentsibilizazio-ekintzak egiten dituzten etorkinen elkarteek edo etorkinei laguntzeko elkarteek laguntzen eta diru-laguntzen deialdietan parte-hartze handiagoa izateko formulak aztertzea. | KULTURA SAILA / GAZTERIA ETA GIZARTE EKINTZA ZUZENDARITZA | - Lan-taldea<br>- Gomendioen txostena<br>- Deialdietako aldaketak<br>- Parte hartzen duten etorkinen edo etorkinei laguntzeko erakundeak | ⦿ | ⦿ | ⦿ | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | Immigrazioaren arloko boluntariotzarekiko laguntzari eta sustapenari lehentasuna ematea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Lehentasun-irizpide zehatzak<br>- Irizpide horiek honako hauetan txertatzea: diru-laguntzetarako dekretuetan, laguntzen programetan, etab. | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak<br>- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak<br>- Udalerriak |

**6. NORABIDEA:** ATZERRITARREI UDAL EREMUAN, LURRALDEEN EREMUAN ETA AUTONOMIA ERKIDEGOKO EREMUAN PARTE HARTZEKO AURREIKUSITAKO MEKANISMOEI ETA PROZEDUREI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEKO ILDOAK ARTIKULATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Asoziazionismoari eta partaidetzaguneei buruzko informazioak sistematizatzea: aholkuak, mahaiak, parte hartzeko kanalak, elkarteen arteko koordinazioa, elkarteen eta erakundeen artekoa, etab. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ZUZENDARITZA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Informazioa kudeatzeko aurreikusitako prozedurak<br>- Informazio-sarea<br>- Hedapenerako euskarriak<br>- Kudeaketako, eguneratzeko eta elikadurako sistema | ● | ● | ● | Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/ Herritarren Parte Hartze, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordea |
| 2 | Etorkinen elkarteentzat asoziazionismoari buruzko hainbat alderdiren inguruko informazio-protokolo bat lantzea: laguntza instituzionala, diru-laguntzak, deialdiak, lehiaketak, partaidetzaguneak, etab. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ZUZENDARITZA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Eremuak eta bildutako konpromisoak<br>- Informazio-euskarriak<br>- Informazioa kudeatzeko protokoloak | ● | ○ | ○ | EAEko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/ Herritarren Parte Hartze, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordea |

## 5. ARLOA. LANA

**1. NORABIDEA:** LANERATZEARI DAGOKIONEZ EAE-REN EREMUAN DAUDEN ZERBITZU, EGITURA, ESKAINTZA, ETA ABARREN HEDAPENA AREAGOTZEA BIZTANLERIA ETORKINAREN ARTEAN.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Lanbide-ren berri hedatzea biztanleria etorkinaren artean: egitura, funtzionamendua, sartzeko baldintzak, etab. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZUZENDARITZA | - Informazio- eta hedapen-ekintzen kopurua eta mota<br>- Euskarriak eta sortutako dokumentazioa<br>- Xede-hartzaileak | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- EGAILAN<br>- Sindikatuak |
| 2 | Autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko baliabide eta zerbitzu orokor eta tokikoen hedapena, nola merkatuari hala ekonomia sozialari dagokienez. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZUZENDARITZA | - Hedapen-ekintzak<br>- Euskarriak eta sortutako dokumentazioa<br>- Immigrazioari buruzko Bigarren Euskal Planaren (IEP) indarraldian etorkinek izandako autoenplegu-ekimenen kopurua | ● | ● | ● | - Udalerriak<br>- Foru Aldundiak<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntza emateko elkarteak |
| 3 | Informazio-liburuxka eleaniztuna argitaratu eta hedatzea, sailaren eskumenekoak diren laguntzen berri ematearren. | INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA | - Argitaratutako liburuxken kopurua<br>- Liburuxken hedapenaren eraginpean hartutako hartzaileak | ● | ○ | ○ | Etorkinen eta etorkinei laguntza emateko elkarteak |
| 4 | Arrantzaren sektoreak laneratzeko eskaintzen dituen aukeren berri etorkinen erakundeen artean hedatzeko kanpaina egitea. | NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA / ARRANTZA ETA AKUIKULTURA ZUZENDARITZA | - Zuzeneko nahiz zeharkako hedapeneko ekintzak<br>- Xede-hartzaileak<br>- Jasotako enplegu-eskaeren kopurua eta ezaugarriak<br>- Arrantza-sektorearekin zerikusia duten jardueretan prestatzeko eskaeren kopurua eta ezaugarriak<br>- Etorkinen kontratazioen kopurua | ● | ○ | ○ | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Prestakuntzako zentroak eta erakundeak<br>- Sektoreko enpresak eta sindikatuak |

**2. NORABIDEA:** PRESTAKUNTZAKO, ORIENTAZIOKO ETA LANERATZEKO PROGRAMA ETA IBILBIDEETAKO SARBIDE BALDINTZAK ETA METODOLOGIA ETORKINEN KOLEKTIBOAREN PREMIA ESPEZIFIKOETARA EGOKITZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua) sartzeko aukera etorkin guztiei zabaltzea, eta orientazioko zein prestakuntzako ekintzetan, praktiketan, etab. parte hartzeko aukera ematea. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZUZENDARITZA | - Langaiko erregistroetan sartutako atzerritarren kopurua<br>- Orientazioko zen prestakuntzako, praktiketan, etab. parte hartu dutenen kopurua eta ezaugarriak<br>- Etorkinekin egindako bitartekaritza-ekintzen kopurua | ● | ● | ● | - Lanbideren Zentro laguntzaileen sarea<br>- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak |
| 2 | Lanbideren kudeaketan eta ekimenetan, laneratzeko zailtasunak dituen kolektibo gisa biltzea biztanleria etorkina. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZUZENDARITZA | - Lanerako Lanbide Prestakuntza arautzen duen araudia<br>- Biztanleria etorkinarentzat egindako lanbide-prestakuntzako ekintzen kopurua<br>- Eskatzaileen/parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak: adina, sexua, jatorria, ikasketa-maila, etab. | ● | ● | ● | |
| 3 | Irizpideak ezartzea urtero Orientazio Zerbitzuetara zirkularrak igorriz, etorkinek Lanbideren prestakuntza-baliabide eta zerbitzu guztietan duten parte-hartzea erraztu eta hobetzearren. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZUZENDARITZA | - Egokitzapenak prestakuntza eskuratzeko eta egiteko baldintzetan<br>- Lanbiderako prestakuntzako programak eskatu dituzten eta bertan parte hartutako etorkinen kopurua eta ezaugarriak<br>- Kontratazioen kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | - Lanerako prestakuntzako zentroak<br>- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntza emateko elkarteak<br>- Sindikatuak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | Lanbideren profesionalentzako prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZUZENDARITZA | - Diseinaturiko/eginiko prestakuntza-ekintzen kopurua<br>- Parte-hartzearen banaketa, honako hauen arabera: profil-profesionala, jatorrizko zentroa, etab. | ● | ● | ● | - Lanbideren Zentro laguntzaileen sarea<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntza emateko elkarteak<br>- Sindikatuak<br>- Prestakuntza-erakundeak |
| 5 | Lanerako prestakuntzako ikastaroen eskaintzetan emakume etorkinei lehentasuna ematea, batez ere arrisku eta kalteberatasunik handieneko egoeran daudenei, horretarako biztanleria etorkinaren parte-hartzearen emaitzak aldizka ebaluatzeko prozesua gauzatuz Lanbideren zerbitzu guztietan, erabakiak hartzea eta kolektibo horrentzat diskriminazio positiboko politika gauzatzea orientatzearren. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZUZENDARITZA | - Etengabeko ebaluazioko sistemak<br>- Zehaztutako lehentasun-irizpideak<br>- Lanerako prestakuntzako ekimenetan parte hartzen duten emakume etorkinen kopurua eta ezaugarriak<br>- Lan-eskaintzaren batera aurkeztu diren emakumeen kopurua | ● | ● | ● | - Lanbide<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Aldundiak eta Udalerriak<br>- Prestakuntza-erakundeak<br>- Sindikatuak |
| 6 | Gobernu Zentralaren EAEko Ordezkaritzari egindako Proposamenean (3.1.2) formula jakin batzuk txertatzea gizarte-sustraitzeko prozesuaren baitan AUZOLAN programa edo enpleguko eta prestakuntzako bestelako programak onartzeko aukera biltzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hartutako konpromisoak<br>- Zerbitzu horren bitartez dokumentaturiko pertsonen kopurua | ● | ● | ● | - Gobernuaren Ordezkaritzak<br>- Toki Erakundeak<br>- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila / Gizarteratze Zuzendaritza |
| 7 | Beken eta/edo ordaindutako praktiken sistema ezartzea arrantzaren sektorean, prestakuntzatik lanbide-eskarmentua jasotzea eta ondoren kontratatzea erraztearren. | NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA / ARRANTZA ETA AKUIKULTURA ZUZENDARITZA | - Araudia eta aplikazio-eremua<br>- Emandako beken kopurua eta onuradunen ezaugarriak<br>- Programako erakunde laguntzaileen kopurua eta mota<br>- Kontratazioen kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | - Sektoreko enpresak<br>- Prestakuntza-zentroak<br>- Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | Lanbideren enplegurako orientazio-zerbitzuen eta Helduk eta Biltzenek ematen dituzten zerbitzu juridiko eta kulturarteko bitartekaritzako zerbitzuen arteko lankidetza-prozedura homogeneoa lantzea, koordinazioz eta modu osagarrian jardutearren, bideratzeko, elkarrekiko aholkularitzako eta jakintza nahiz informazioa transferitzeko prozesuak hobetze aldera, enplegu-eskatzaile etorkinei zerbitzu integrala bermatzeari begira. | ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZUZENDARITZA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hitzarmenean bildutako alde biko konpromisoak<br>- Koordinazioa eta lankidetza zer prozedura eta gunetan zehazten den<br>- Urteko ebaluazioari buruzko txostena | ● | ○ | ○ | Immigrazio Zuzendaritza |
| 9 | Arrisku eta kalteberatasunik handieneko egoeran dagoen biztanleria etorkina lan-bitartekaritzako programetan, laneratzeko udal-planetan, laneratzeko, prestakuntzako eta enplegurako laguntza-orientazioko enpresetan, eta autoenplegurako ibilbideetan laguntzeko programetan (ONBIDE programa) sartzeko aukera erraztea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Programan (zerbitzu guztietan) sartzen diren pertsonen kopurua eta ezaugarriak<br>- Laneratzeen kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | |

## 3. NORABIDEA: ETORKINENTZAKO PRESTAKUNTZA PROGRAMAK GARATZEA LAN MERKATURAKO SARBIDEAREN EREMUAN.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Lanean hasi aurreko modulu bat garatzea. Modulu horren edukia honako alderdi hauei buruzkoa izango da: hizkuntza, kultura, lan-ingurunearen ezagutza, produkzio-sistemak, lan-segurtasuna, etab. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZUZENDARITZA | - Moduluaren curriculum-diseinua<br>- Orduen ehunekoa ikastaroen batez besteko iraupenari dagokionez<br>- Prestakuntza-prozesuan kokatzea<br>- Moduluan parte hartzen dutenen ezaugarriak | ● | ○ | ○ | - Lanbide<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Prestakuntza-erakundeak<br>- Sindikatuak |
| 2 | Lanerako lanbide-heziketako eskaintza ezartzea etorkinentzat, Arrantza Eskualdeen Garapeneko Zuzendaritzaren titulartasuneko Prestakuntza Eskolen bitartez, arrantza-sektoreko lan-jardunari buruzko material eta metodologia espezifikoak egokituz eta garatuz. | NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA / ARRANTZA ETA AKUIKULTURA ZUZENDARITZA | - Eskainitako prestakuntza-ekintzen kopurua<br>- Prestakuntza-ekintzari loturiko kualifikazioak<br>- Prestakuntzan parte hartzen dutenen kopurua eta ezaugarriak<br>- Prestakuntza amaitutakoan egin diren kontratazioen kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Prestakuntzako zentroak eta erakundeak<br>- Sindikatuak<br>- Sektoreko enpresak |
| 3 | Lanean hasi aurreko eta enplegua lortzeko prestakuntza erraztea zailtasunik handienak dituen biztanleria etorkinari gaikuntza-programa espezifiko baten bidez —oinarrizko errenta jasotzen duten eta baliabiderik ez duten etorkinek prestakuntza hori jasotzeko aukera bermatuz—. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Programan sartzen direnen kopurua eta ezaugarriak<br>- Laneratzeen kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 Prestakuntza espezializatu jakin batzuetako espezialitateetako hainbat material itzultzen eta egokitzen hastea —eskulan-eskaera handia duten espezialitateetakoa, hain zuzen ere—, etorkinen laneratzea bizkortzearren. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZUZENDARITZA | - Espezialitate, prestakuntza, material eta hizkuntzen urteko proposamena<br>- Itzulitako eta/edo moldatutako materialak<br>- Prestakuntza-zentroetako eta prestakuntza-ekintzetako irakasleen ebaluazio-txostenak | ● | ● | ● | - Immigrazio Zuzendaritza<br>- Euskal Enpresaburuak<br>- Prestakuntza Zentroak |

**4. NORABIDEA:** SENTSIBILIZAZIO, JARRAIPEN, ETA, HALA BADAGOKIO, SALAKETARAKO FORMULAK SUSTATZEA ATZERRITARRAK LANERAKO BEREN LAN ESKUBIDEAK EDO BERDINTASUN BALDINTZAK URRATUZ KONTRATATZEARI DAGOKIONEZ.

| NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 Inoren kargura ez dauden gazte atzerritarren arretan diharduten EAEko Ikastetxeetako langileei prestakuntza eta aholkuak ematea, kulturarteko hezkuntza eta komunikazioaren ikuspegia aintzat hartuta. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA | - Prestakuntza-ekintzen kopurua eta motak<br>- Parte-hartzaileak eta haien ezaugarriak honako hauen arabera: adina, sexua, lanbide-profila, etab. | ● | ● | ● | - Etorkinen erakundeak eta etorkinei laguntzeko erakundeak<br>- Prestakuntza-erakundeak |
| 2 Justizia Sailaren mende dauden Ikastetxeetako curriculumetan kultur aniztasunarekin zerikusia duten edukiak txertatzea, kolektiboaren berezitasunak kontuan hartzen dituzten hezkuntza-programa espezializatuak diseinatze aldera. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA | - Txertatutako programa eta edukiak<br>- Ordu-ehunekoa prestakuntza osoari dagokionez | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Prestakuntza-erakundeak |
| 3 Justizia Sailaren mende dauden Ikastetxeetako curriculumetan euskarari eta euskal kulturari loturiko edukiak txertatzea. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA | - Txertatutako/zabaldutako programa eta edukiak<br>- Ordu-ehunekoa prestakuntza osoari dagokionez | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Prestakuntza-erakundeak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | Arrisku eta kalteberatasuneko egoeran dauden pertsonekin lan egiten duten langileek prestakuntza-ikastaro espezifikoak egin ditzaten erraztea eta sustatzea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak<br>- Egin diren prestakuntza-ekintzen kopurua eta tipologia<br>- Parte hartzeko laguntzak | ● | ● | ● | |
| 5 | Hezkuntza Sailaren bitartez, kulturarteko hezkuntza eta komunikazioaren ikuspegia aintzat hartzen dituzten prestakuntza- eta aholku-ekintzak sustatzea, honako hauei bideratuak: inoren kargura ez dauden atzerritar adingabe eta gazteei arreta ematen dieten ikastetxeetako langileak, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzean diharduten profesionalak, esku-hartze psikologikoan diharduten profesionalak, etab. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA | - Diseinaturiko/egindako prestakuntza-ekintzen kopurua<br>- Parte-hartzearen tasak, honako irizpide hauen arabera: zerbitzuak, lanbide-profila, etab. | ● | ● | ● | |

**3. NORABIDEA:** EAE-KO ESPETXERATUEN BIZI BALDINTZEN HOBEKUNTZA SUSTATZEA ETA ESPETXERATUTA DAGOEN BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN PROBLEMATIKA ESPEZIFIKOEN BABESA ZIURTATZEA, GIZARTERATZE PROZESUAK BEREZIKI KONTUAN HARTUTA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Diru-laguntzen programa, preso dauden atzerritarrekiko gizarte-ekintzaren arloko elkarte eta erakundeentzat. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA | - Urteko deialdia<br>- Diru-laguntza eskatzen duten erakundeak eta aurkezten diren proiektuak<br>- Onuradunen kopurua eta tipologia: adina, jatorria, sexua, etab.<br>- Laguntzen zenbatekoa | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Esku Hartze Sozialeko erakundeak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | Prostituzioan dihardutenen laguntza- eta gizarteratze-programei dagokienez, diru-laguntzetan lehentasuna ematea etorkinak aintzat hartzen dituzten programei. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Lehentasun-irizpide zehatzak<br>- Irizpide horiek diru-laguntzen dekretuetan, laguntzen programetan, etab. txertatzea | ⦿ | ⦿ | ⦿ | - Etorkinen elkarteak<br>- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak<br>- Udalerriak |
| 3 | Preso ohiak gizarteratzeko programei dagokienez, lehentasuna ematea etorkinak modu integratzailean aintzat hartzen dituzten programei. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Lehentasun-irizpide zehatzak<br>- Irizpide horiek diru-laguntzen dekretuetan, laguntzen programetan, etab. txertatzea | ⦿ | ⦿ | ⦿ | - Etorkinen elkarteak<br>- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak<br>- Udalerriak |
| 4 | Irabazi-asmorik gabeko ekimen pribatuaren eta ekimen publikoaren arteko lankidetza-hitzarmenak Langraiz Okako espetxeko presoak —etorkinak barne— gizarteratzeko zerbitzu eta programak kudeatzeko eta garatzeko. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Hitzarmenetan parte hartzen duten erakundeen kopurua eta tipologia<br>- Eutsi zaien/sortu diren programak eta zerbitzuak<br>- Arreta eman zaien presoen kopurua eta ezaugarriak | ⦿ | ⦿ | ⦿ | Irabazi-asmorik gabeko erakundeak |
| 5 | Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako laguntza espezifikoak aplikatzea, gizarte-zerbitzuen ekintzan lehentasuna duten pertsonak eta kolektiboak gizarteratzen laguntzeko programak gara ditzaten. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Urteko deialdia<br>- Programen kopurua eta ezaugarriak<br>- Arreta eman zaien pertsonen kopurua eta ezaugarriak<br>- Aurrekontu-hornidura | ⦿ | ⦿ | ⦿ | Irabazi-asmorik gabeko erakundeak |
| 6 | Askatasunaz gabeturik daudenei eta/edo haien ahaideei laguntza ekonomiko indibidualak aplikatzea, kolektibo horri arreta ematearren eta kolektiboa gizarteratzearren. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Araudia<br>- Urteko deialdia<br>- Jasotzaileen kopurua eta ezaugarriak<br>- Aurrekontu-hornidura | ⦿ | ⦿ | ⦿ | |

**4. NORABIDEA:** SEXU ESPLOTAZIOAREN EDO ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMAK DIREN EMAKUMEENTZAT DAUDEN PREMIAZKO ARRETA ETA LAGUNTZA ZERBITZUETAN EMAKUME ETORKINEK SARBIDE NORMALIZATU ETA ERABATEKOA IZAN DEZATEN SUSTATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Prostituzioaren eta immigrazioaren eremu espezifikoan esku hartzeko programa bat garatzea, eremu horretan adierazgarriak diren gizarte-erakundeekin lankidetzan. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Programatik eratorritako zerbitzuak eta jardunak<br>- Erakunde eta eragile laguntzaileen ezaugarriak | ⦿ | ⦿ | ⦿ | - Emakunde<br>- Emakumeen elkarteak<br>- Etorkinen elkarteak<br>- Esku-hartze sozialeko erakundeak<br>- Foru Aldundiak eta Udalak (Gizarte Ongizateko Arloak) |
| 2 | Dokumentu-egoera irregularrean dauden eta etxeko indarkeria jasaten duten atzerritar emakumeek dauden harrera- eta etxebizitza-baliabideetan sarbidea izan dezaten ziurtatzeko neurria proposatzea, Emakundek arlo horretan inplikatuta dauden erakundeekin egiten duen koordinazio-lanaren esparruan. | LEHENDAKARITZA / EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea | - Lan-taldea osatzea<br>- Txostena hedatzeko ekintzak<br>- Baliabideak eskuratzeko aukerari buruzko araudian proposamenak txertatzea | ⦿ | ⦿ | ⦿ | - Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila<br>- Foru Aldundiak<br>- EUDEL |
| 3 | Baliabideen Gida bat lantzea eta aldizka eguneratzea, dauden baliabide eta zerbitzuei buruzko informazio-maila hobetzeko tresna gisa, EAEren barnean nahiz handik kanpo, eta informazioa etengabe hurbiltzea prostituzioa egiten den tokietara, gizarte-arloko erakunde eta eragileen bitartez. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Baliabideen gida<br>- Egindako aldaketak<br>- Hedapen-jardunak | ⦿ | ⦿ | ⦿ | - Administrazio publikoak<br>- Gizarte Erakundeak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | Emakundek ematen dituen diru-laguntzak arautzen dituzten dekretuetan askotariko diskriminazioa jasaten duten emakumeen premiei loturiko balioespen-irizpide bat txertatzea. | LEHENDAKARITZA / EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea | - Dekretuetan irizpide gisa txertatzen den testua | ● | ● | ● | - Emakumeen elkarteak<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka eta gizarteratzea dagozkien Eusko Jaurlaritzaren Sailak |

**5. NORABIDEA:**

SEXU ESPLOTAZIOAREN EDO ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMAK DIREN ATZERRITAR EMAKUMEENTZAKO ARRETA PSIKOLOGIKO, SOZIAL ETA JURIDIKOKO ZERBITZUEN BERRI HEDATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Prostituzioan diharduten emakume etorkinen kolektiboarekin lan egiten duten elkarteen proiektuak garatzeko laguntza, gizarteratzeko dauden baliabideetarako sarbidea erraztearren emakume horiei. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hedatzeko ekintzak eta euskarriak<br>- Proiektu eta erakunde sustatzaileen kopurua eta ezaugarriak<br>- Arreta eman zaien emakumeen kopurua | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Esku-hartze Sozialeko erakundeak |
| 2 | Osasun Eragileak sustatzea, prostituzioa egiten den lekuetara iristeko modu gisa, bi helbururekin: dauden baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa ematea eta jarduera horri buruzko jakintza instituzionala areagotzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Ekimenera bildu diren Osasun-eragileen kopurua<br>- Prestakuntza- eta aholku-ekintzak<br>- Txostenak, ebaluazioak eta gomendioak | ● | ● | ○ | - Gizarte-erakundeak<br>- Osasun Saila |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | Atzerritartasunari buruzko ofiziozko txandaren eta etxeko indarkeriari buruzko ofiziozko txandaren arteko koordinaziorako mekanismoak ezartzea, tratu txarrak jasaten dituzten emakume etorkinekiko arreta errazte aldera. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA | - Koordinazioko barne-protokoloak<br>- Lan-agendak<br>- Txostenak eta gomendioak | ● | ○ | ○ | - Abokatuen Elkargo Ofizialak<br>- Bi Txanden ardura duten profesionalak |
| 4 | Prebentzioko eta arreta psikologiko eta soziojuridikoko programak eta zerbitzuak garatzea eta prostituzioan diharduten edo etxeko indarkeriaren biktimak diren etorkinen artean hedatzea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Hedatzeko ekintzak eta euskarriak<br>- Prostituzioaren eremuan diharduten | ● | ● | ● | Eremu horretan diharduten esku-hartze sozialeko erakundeak |

**6. NORABIDEA:** INOREN KARGURA EZ DAUDEN ATZERRITAR GAZTEEN ARRETAREN INTEGRALTASUNA, JARRAITUTASUNA ETA KOHERENTZIA BERMATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Inoren kargura ez dauden atzerritarrei egokitze sozialeko prozesuan arreta emateko laguntza-ildo bat ezarri eta aplikatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Urteko deialdia<br>- Laguntzak eskatu/jaso dituzten erakundeak<br>- Aurkeztutako proiektuen kopurua eta ezaugarriak<br>- Aurrekontu-hornidura<br>- Arreta eman zaien pertsonen kopurua eta ezaugarria | ● | ● | ● | Irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuak |
| 2 | Inoren kargura ez dauden eta barneratze-neurri judizialak betetzen ari diren atzerritar gazteei hezkuntza-arreta emateko programa. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA | - Egitura eta finantziazioa 2006-2009 aldian<br>- Programa horretan arreta eman zaien adingabeen kopurua eta ezaugarriak: adina, jatorria, sexua, etab. | ● | ● | ● | Foru Aldundiak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | Immigrazio Zuzendaritzarekin koordinatzea Gazte Justiziako Zerbitzuko programaren bati atxikita dagoen atzerritar biztanleria gaztearen arretaren jarraitutasuna eta koherentzia errazteko. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA | - Koordinazio-protokoloa: konpromisoak, arduradunak, etab.<br>- Lan-agenda<br>- Ezartzen diren euskarri, tresna eta prozedurak<br>- Txostenak eta sortutako dokumentazioa | ● | ● | ● | |
| 4 | Adingabe etorkinentzako arreta normalizatu eta integrala arautzea Haurren Legean. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Haurren Legearen testuan eta/edo lege hori garatzen duten beste testu batzuetan txertatzen diren normalizazio-irizpideak<br>- Zentro Espezifikoei proposaturiko aukerak, Legearen testuan txertatzen direnak<br>- Proposaturiko aukerak sortzeari eta finkatzeari loturiko ekintzak | ● | ● | ● | - Giza Eskubideen Zuzendaritza<br>- Foru Aldundiak<br>- Etorkinen elkarteak<br>- Esku-hartze sozialeko erakundeak |
| 5 | Babes-prozesuei buruzko dokumentazioa atzerritar adingabeen eta haien ahaideen erreferentziazko hizkuntza nagusietara itzultzea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Argitaraturiko aleen kopurua<br>- Hizkuntzak<br>- Banaketa- eta sozializazio-ekintzak | ● | ○ | ○ | |
| 6 | Kasu Planaren bitartez —hezkuntza-alderdiak, alderdi psikologikoak, sozialak, familia-arlokoak eta legezkoa biltzen ditu— arreta pertsonalizatu eta indibidualizatua bermatzea, Arabako LHko Haurrei bideraturiko Gizarte Zerbitzuentzako Jardun Gida betez. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Ikuskatzeko eta koordinatzeko prozedurak<br>- Arreta eman zaien pertsonen kopurua eta ezaugarriak<br>- Urteko memoria | ● | ● | ● | |
| 7 | Bizikidetza Gidak eta Zentroetako Araudia atzerritar adingabeen erreferentziazko hizkuntza nagusietara itzultzea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Argitaraturiko aleen kopurua<br>- Hizkuntzak<br>- Banaketa- eta sozializazio-ekintzak | ● | ○ | ○ | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | Hezkuntza Proiektuak Ikastetxeko Proiektuko fase guztien arabera garatzea, lehen harreratik emantzipaziora arte, arlo horretan Espezializatuta dauden diziplina arteko Zerbitzuek (Adingabearen eta Familiaren Arloa) gainbegiratzen duen emantzipaziora arte, alegia. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Ikuskatzeko eta koordinatzeko prozedurak<br>- Arreta eman zaien pertsonen kopurua eta ezaugarriak<br>- Urteko memoria | ● | ● | ● | |
| 9 | Gizarte- eta hezkuntza-arloko programetan parte hartzeko aukera bermatzea, atzerritar jatorriko guneetan familia-desegituraketa prebenitzeko formula gisa, kolektibo horiek arrisku-egoeran dauden familientzako programa orokorretan txertatuz. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Lankidetzako eta gizarte- eta hezkuntza-arloko egituretara bideratzeko prozedurak<br>- Programetan sartzeko eskakizunak<br>- Programetan sartzen diren familiaguneen zenbakia eta ezaugarriak | ● | ● | ● | |
| 10 | Harrera-zentroetan eta Arloko etxeetan garatzen diren jarduerei eustea eta premia bereziak dituzten kolektiboentzako zentroak abian jartzeko aukera aztertu, eta, hala badagokio, abian jartzea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Jardueren memoria<br>- Zentroak egokitzeari/zentro berrien premiari buruzko txostenak | ● | ● | ● | |

**7. NORABIDEA:** ATZERRITAR ADINGABEEI EDO GAZTEEI DAGOZKIEN ESKUBIDEAK ZIURTATZEKO FORMULAK GARATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Instrukzio- eta barneratze-prozesuetan atzerritar gazteei eman beharreko tratamendu espezifikoari dagokionez ezarritako bermeen betetzearen jarraipenean parte hartzea. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA | - Zuzendaritza honek parte hartzen duen batzordeak, lan-taldeak<br>- Neurriari dagokionez kudeatzen/lantzen diren txostenak eta dokumentazioa | ● | ● | ● | Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | Segurtasun sailburuordearen Jarraibideak —immigrazioaren arloan egiten diren lege-aldaketek eraginpean har litzaketen jarraibideak— berrikustea eta haien jarraipena egitea. | HERRIZAINGO SAILA / SEGURTASUN SAILBURUORDETZAREN KABINETEA | - Idatzi berri diren jarraibideen kopurua<br>- Aldatutako jarraibideen kopurua | ● | ● | ● | |
| 3 | Egoitza-harrerako programetan sartzeko aukera bermatzea, gazteei beren normalizazio-prozesuan lagunduz, hezkuntza-arloko laguntza espezializatua eskainiz —norbaiten kargura dauden eta inoren kargura ez dauden atzerritar adingabeei—, eta beren premiekin bat datorren bizikidetza-ingurunea eraikiz. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Lankidetza-prozedurak eta egoitza-harrerako programetara bideratzea<br>- Programetan sartzeko eskakizunak<br>- Programetan sartzen diren adingabeen kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | |
| 4 | Etxeetako jarduerak egokitzea, eguneroko bizimoduan kulturartekotasuna sustatuz, bertakoek beren sustrai kulturalak positiboki onartzea bultzatuz, baita erlijioaren eta kulturaren praktika ere. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Jarduera-programetan txertatzen diren kultura-elementuen ezaugarriak<br>- Etorkinen erakundeekiko eta kulturartekotasunaren eremuan lan egiten duten erakundeekiko lankidetza-sarea | ● | ● | ● | |

**8. NORABIDEA:** INOREN KARGURA EZ DAUDEN ATZERRITAR GAZTEAK GIZARTEAN MOLDATZEKO PROGRAMA ESPEZIFIKO ETA IRAGANKORREN GARAPENA SUSTATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Beste herrialdeetatik etorritako adingabeak dituzten familiei laguntzeko programak ezartzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Arautze eraginkorra honako hauei dagokienez: onuradunak, hartzaileak, zenbatekoa, baldintzak eta programak baliatzeko eskakizunak<br>- Finantzaturiko programen kopurua<br>- Familien ezaugarriak<br>- Programen baitan arreta eman zaien adingabeen kopurua eta ezaugarriak | ● | ○ | ○ | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak<br>- Udalerriak eta Toki Erakundeak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | ZABALTZEN egoitza-harrerako programa espezifikoa garatzea, gazteei integrazioko eta normalizazioko prozesuan lagunduz, hezkuntza-arloko laguntza espezializatua emanez eta gazteen premietara egokitutako programazioa eginez. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Indarturiko/sorturiko ekintzak eta antolakundeak<br>- Arreta eman zaien pertsonen kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | |
| 3 | Bizitza autonomorako jarraipen- eta prestatze-programa garatzea: Jarraipeneko eta Egoitza Harrera Osteko programa. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Indarturiko/sorturiko ekintzak eta antolakundeak<br>- Arreta eman zaien pertsonen kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | |
| 4 | Gazte tutoretu ohi gisa mantentzea ahalbidetuko dieten laguntza ekonomikoak ematea gazteei. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Araudia<br>- Aurrekontu-hornidura<br>- Jasotzaileen kopurua eta ezaugarriak<br>- Laguntzen zenbatekoa eta iraupena | ● | ● | ● | |
| 5 | Alfabetatzeko eta lanean hasi aurreko ikaskuntzako nahiz trebetasun sozialen ikaskuntzako jarduerak garatzea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Jardueren memoria<br>- Hartzaileen kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | |

**9. NORABIDEA:** INOREN KARGURA EZ DAUDEN ATZERRITAR GAZTE ETA ADINGABEEN DOKUMENTAZIOA LORTZEKO BEHARREZKOAK DIREN IZAPIDE JURIDIKOAK ARINTZEN LAGUNTZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Inoren kargura ez dauden adingabeen legezko dokumentazioa izapidetzeko laguntza, HELDU eta Foru Aldundiekiko lankidetzan. | JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / GAZTE JUSTIZIA ZERBITZUA | - Sortzen diren harreman-sareak eta izapidetzeari loturiko ekintzak<br>- Programaren baitan arreta eman zaien adingabeen kopurua eta ezaugarriak: adina, jatorria, sexua, etab. | ● | ● | ● | - HELDU<br>- Foru Aldundiak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | Egoeraren azterketa eta adingabeek (ahaideen mende daudenak, ahaideek haien tutoretza esleituta izan ez arren) dokumentazioa lortzeko aukerak. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Egindako txostena<br>- Proposaturiko gomendioak | ● | ● | ● | Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/ Berme Juridikoen Batzordea |
| 3 | Atzerritar gazteei bideraturiko informazio-ekintzak egitea, arlo horretako legezko eskakizunei eta protokoloei buruz. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | | ● | ● | ● | |
| 4 | Dokumentazioa lortzeko prozesuko izapideetan lankidetza, bitartekaritza eta laguntza ematea (Kontsulatuak, Polizia, Gobernu Ordezkaritza, etab.). | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Bitartekaritza- eta laguntza-prozedurak<br>- Jardunen urteko memoria | ● | ● | ● | |

**10. NORABIDEA:** SASOIKO LANGILEEI ETA HAIEN AHAIDEEI OINARRIZKO ZERBITZUAK EMATEKO PLANEN ETA KOORDINAZIO MEKANISMOEN GARAPENA SUSTATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Sasoiko lanari buruzko Erakunde arteko Mahaiaren agendan eta Sasoiko Langileen Arretarako Plan Integralean sasoiko langile atzerritarren errealitatea biltzea. | NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA / LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENEKO ZUZENDARITZA | - Mahaiaren agendan bildu diren elementuak, sasoiko langile etorkinen errealitatearen elementuak, hain zuzen ere<br>- Eremu hori zehazki lantzen duten Planaren norabideak eta elementuak | ● | ● | ● | - Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/Lan Batzordea<br>- Foru Aldundiak<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Sindikatuak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | Sasoiko lanari buruzko erakunde arteko adarrean parte hartzea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Ekarpenak/hartutako konpromisoak | ● | ● | ● | |
| 3 | Nekazaritzako sasoiko lanari buruzko Euskal Planean bildutako jardunen garapena. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Egindako ekintzak<br>- Hartzaileen kopurua eta ezaugarriak<br>- Erakunde eta entitateekiko lankidetzako sareak | ● | ● | ● | - Toki-erakundeak<br>- Eremu horretan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeak |

# 12. ARLOA. SENTSIBILIZAZIOA

**1. NORABIDEA:** IMMIGRAZIOARI BURUZKO EUSKAL PLANAREKIN BAT DATORREN POLITIKA PUBLIKO AKTIBOA GARATZEA EAE-KO ERAKUNDE PUBLIKO BAKOITZEAN, BATEZ ERE KOMUNIKABIDEEN BITARTEZ.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Zuzendaritza horren sentsibilizazio-kanpaina eta jardun guztietan immigrazioaren errealitatea txertatzea, betiere Ongizatearen Gizartea defendatzeko eta sustatzeko estrategiaren esparruan. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Immigrazioaren errealitatea aipatzen duten kanpainen kopurua<br>- Migrazioaren fenomenoari eta etorkinen egoera eta irudiari dagokienez nabarmentzen diren alderdiak<br>- Immigrazioari dagokionez nabarmentzen diren eraginak<br>- Kanpainetan lehentasuna eman zaien hartzaileak | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak<br>- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak<br>- Udalerriak eta Toki-Erakundeak |
| 2 | Hausnarketa instituzionaleko prozesua gidatzea, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eremuan. EAEn prostituzioan diharduten pertsonen egoerari buruz gizartea eta komunikabideak sentsibilizatzeko kanpaina bat egiteko aukerari buruzkoa izango da hausnarketa hori. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA | - Prozesuari eusteko egitura, dokumentazioa eta egutegia<br>- Ondorioei eta gomendioei buruzko txostena<br>- Kanpainaren aktibazioa | ● | ● | ● | |
| 3 | Emakundek egiten dituen komunikazio-kanpainetan gure erkidegoan atzerritar jatorriko herritarrak bizi direla aditzera ematea. | LEHENDAKARITZA / EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea | - EAEko atzerritar jatorriko herritarren errealitatea biltzen duten kanpainen, euskarrien, etab. kopurua<br>- Errealitate horri dagokionez kanpainetan nabarmentzen diren alderdiak | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Emakumeen elkarteak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | Gizarteratzeko prozesuan biztanleria etorkinak izaten dituen oztopoei buruzko informazioa hedatzea komunikabideetan —emakume etorkinak bereziki kontuan hartuta—, baita euskal gizartearen garapen sozial, kultural eta ekonomikorako egiten duten ekarpenari buruzkoa ere. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Komunikabideetako agerraldien kuantifikazioa<br>- Erakundeen presentzia komunikabideetan<br>- Komunikabide eta euskarrien kopurua eta motak<br>- Eraginari buruzko zeharkako estimazioak: tirada, entzuleak, etab. | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa / Sentsibilizazio eta Partaidetza Batzordea |
| 5 | Ospakizunezko adierazpen instituzionalak sustatu eta hedatzea: Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, Errefuxiatuaren Nazioarteko Eguna, etab. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Aurkeztutako proposamenak<br>- Proposamen horiek lantzeko prozesuan erakundeek izan duten parte hartzea<br>- Erakundeek egindako jarraipen-maila<br>- Hedatzeko bitarteko eta kanalak | ● | ● | ● | - Foru Aldundiak<br>- EUDEL |
| 6 | Erakunde publikoei laguntzak aplikatzea harrera-biztanleria sentsibilizatzeko programak garatzearren. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | | ● | ● | ● | |

**2. NORABIDEA:** BIZTANLERIA ETORKINA GIZARTERATZEKO PROZESUAN FUNTSEZKOAK DIREN SEKTOREETARA BIDERATUTAKO SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA ESPEZIFIKOAK SUSTATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka helburutzat duten sentsibilizazio-jarduerak egitea, bertako biztanleria eta biztanleria etorkina jomugan hartuta. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Egindako jarduerak<br>- Argitaratutako materiala | ● | ● | ● | - Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa / Herritarren parte-hartze, kultura eta sentsibilizazio Batzordea<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | Hainbat biztanle-sektoretara bideratutako informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak egitea: gazte-elkarteak, auzokide-elkarteak, kirol-elkarteak, emakume-elkarteak, erretiratuen klubak, guraso-elkarteak, alokairuko etxebizitzen jabeak, etxebizitza hutsen jabeak, etab. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak<br>- Hartzaileen kopurua eta ezaugarriak<br>- Ondorioei buruzko txostenak eta sortutako dokumentazioa | ● | ● | ● | - Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/Herritarren parte-hartze, kultura eta sentsibilizazio Batzordea<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- Esku-hartze sozialeko erakundeak |
| 3 | Emakume etorkinentzako sozializazioko gune publikoak sustatzea, haien ikusezintasun-egoerari aurre egitearren. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Zuzeneko ekintzaren esparruan bultzaturiko ekimenak<br>- Zeharka sustaturiko ekimena<br>- Sortutako laguntza- eta lankidetza-sareak | ● | ● | ● | - Emakunde<br>- Berdintasunerako udal-arloak<br>- Emakumeen elkarteak<br>- Etorkinen elkarteak |
| 4 | Atzerritar errefuxiatuen, asilo-eskatzaileen eta desplazatuen egoera eta problematika espezifikoari buruzko informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak egitea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Egindako ekintzen kopurua<br>- Hartzaileak<br>- Ekintzen egokitzapenak, hartzaileen arabera | ● | ● | ● | - Giza Eskubideen Zuzendaritza<br>- Kolektibo horietara bideratutako programak eta zerbitzuak kudeatzen dituzten elkarteak<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak |
| 5 | Immigrazioaren errealitateari eta kulturarteko ikuspegiari buruzko edukiak txertatzea Aldundiak sustaturiko eta/edo Aldundiak parte hartzen duen gune eta ekipamenduetan. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Ekipamenduen programazioetan txertaturiko eduki eta ekintzen kopurua eta tipologia<br>- Erabiltzaileen eta hartzaileen kuantifikazioa eta ezaugarriak | ● | ● | ● | |

## 3. NORABIDEA: GAZTEEI BIDERATUTAKO SENTSIBILIZAZIOKO ETA KULTURARTEKO KOMUNIKAZIOKO PROGRAMA ESPEZIFIKOAK SUSTATZEA, HEZKUNTZA SISTEMATIK BEREZIKI.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Biztanleria guztiari eta bereziki landa-inguruneko haurrei bideratutako kulturarteko sentsibilizazio-programak diseinatu eta garatzea. | ARABAKO FORU ALDUNDIA | - Programen kopurua eta ezaugarriak<br>- Hartzaileen kopurua eta ezaugarriak<br>- Jardunak, euskarriak eta sortutako materialak | ● | ● | ● | |
| 2 | Gazteak hartzailetzat dituzten immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloko prestakuntzako eta gizarte-sentsibilizazioko proiektuei laguntza ekonomikoak aplikatzea. | KULTURA SAILA / GAZTERIA ETA GIZARTE EKINTZA ZUZENDARITZA | - Urteko deialdia<br>- Erakunde eskatzaileen / finantzatuen kopurua eta ezaugarriak<br>- Hartzaileen kopurua eta ezaugarriak<br>- Sortzen diren koordinazioko sare eta foroak | ● | ● | ● | - Hezkuntza Saila<br>- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak |

**4. NORABIDEA:** IMMIGRAZIOAREN ETA ATZERRITARREN INTEGRAZIO SOZIALAREN TRATAMENDUAN HIZKUNTZA EGOKIA SUSTATZEA HAINBAT EREMUTAN.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Lan-ildo hori EAEko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroaren Herritarren Parte-hartze, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordearen agendan bultzatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Lan-agendan txertatzea<br>- Batzordearen txostena: egoera-azterketa eta gomendioak | ● | ● | ● | Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa/Herritarren parte-hartze, kultura eta sentsibilizazio Batzordea |
| 2 | Ildo hori Immigrazio Zuzendaritzak erakunde publiko edo pribatuekin egin dituen lankidetza-hitzarmenetan —sentsibilizazioaren arlokoak, jardunaldiak antolatzeko, argitalpenak kaleratzeko, etab.— txertatzea, baita laguntza-ildoen bitartez finantzaturiko programetan ere. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Hitzarmenean klausula eta baldintza zehatzak biltzea | ● | ● | ● | |
| 3 | Immigrazioaren arloko tratamenduari eta esku-hartzeari dagokienez, estilo-eskuliburuak eta kode deontologikoak egiteko, sozializatzeko eta hedatzeko laguntza. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Sentsibilizazioko, aholkua emateko, laguntzako, etab. ekintzak, zuzenekoak eta zeharkakoak<br>- Eskuliburuak egiten dituzten erakundeen kopurua eta ezaugarriak | ● | ● | ● | - Irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuak<br>- Sindikatuak |

# 13. ARLOA. LAGUNDUTAKO GARAPENA

**1. NORABIDEA:** ETORKINEN JATORRIZKO ZONEN ETA EUSKADIREN ARTEKO HARREMANAK SUSTATZEA, EAE-KO ETORKINEN HARRERA PROZESUAK ERRAZTUKO DITUEN ESTRATEGIA GISA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Euskadiren kanpoko Ordezkaritzetan immigrazio-arloko eginkizunak dituzten langileak sartzea, batez ere EAEren errealitateari eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko EAEn dauden mekanismoei buruzko informazio egokia emateari dagokionez. | LEHENDAKARITZA / KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA / KANPO HARREMANETARAKO ZUZENDARITZA | - Immigrazioaren arloko eginkizunak dituzten langileen kopurua<br>- Arreta eman zaien pertsonen kopurua | ⦿ | ⦿ | ⦿ | Immigrazio Zuzendaritza |

**2. NORABIDEA:** LAGUNDUTAKO GARAPENARI BURUZKO PLANIFIKAZIOA, IKERKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA SUSTATZEA, BAITA JARDUNBIDE EGOKIAK ERE, EREMU HORRETAN DIHARDUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Lagundutako garapenaren arloa txertatzea Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren planifikazio estrategikoan. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GARAPEN LANKIDETZARAKO ZUZENDARITZA | - Arlo horretarako helburu, estrategia eta ekintza espezifikoak. | ⦿ | ⦿ | ⦿ | Immigrazio Zuzendaritza |
| 2 | Lagundutako garapenari buruzko azterlan eta ikerlanak sustatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Aurrekontu-esleipena<br>- Sustaturiko azterlanen kopurua eta tipologia<br>- Azterlanak hedatzeko ekintzak | ⦿ | ⦿ | ⦿ | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | Lagundutako garapenari buruzko modulu bat txertatzea toki-erakundeei bideratutako immigrazioari buruzko prestakuntza-planetan. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Moduluaren programa: edukiak, metodologia, ordu-ehunekoa, etab.<br>- Eraginkor txertatzen den prestakuntza-ekintzen kopurua | ● | ● | ● | |
| 4 | Lagundutako garapenaren eta haren aplikazio praktikoen kontzeptualizazioan eta migrazioaren fenomenoa ulertzeko Iparraldea-Hegoaldea harremanek duten garrantziari buruzko sentsibilizazioan sakontzeko ekimenak (jardunaldiak, mintegiak, etab.) bultzatzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Lan-programa<br>- Parte-hartzaileentzako deialdia eta parte-hartzaileen tipologia<br>- Ondorioei eta gomendioei buruzko txostena<br>- Txostena hedatzeko ekintzak | ● | ● | ● | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- GGKEak |

**3. NORABIDEA:** ETORKINEN DIRU BIDALKETEK DUTEN GARAPEN AHALMENA SUSTATZEN LAGUNTZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | EAEn bizi diren atzerritarrek beren jatorrizko herrialdeetara egiten dituzten diru-bidalketei buruzko azterlan bat egitea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Egoerari eta gomendioei buruzko txostena | ● | ○ | ○ | - Finantza-erakundeak<br>- Diru-bidalketak egiten dituzten enpresak<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak |
| 2 | Finantza-erakundeetako ordezkariak izango dituen lan-talde bat sortu eta abian jartzea, diru-bidalketek garapena eragiteko duten ahalmena areagotzeari buruzko proposamenak aztertu eta egitearren. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Eskainitako/eskatutako lekuen kopurua<br>- Parte-hartzaileen ezaugarriak<br>- Parte-hartzaileek lagundutako garapeneko proiektuetan eraginkor parte hartzea | ● | ● | ● | - Finantza-erakundeak<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak |

**4. NORABIDEA:** ATZERRITARREK BEREN JATORRIZKO HERRIALDEETAKO GARAPEN PROIEKTUETAN ZUZENEAN PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak finantzatzen dituen lankidetzari buruzko masterretan etorkinentzat lekuak gordetzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GARAPEN LANKIDETZARAKO ZUZENDARITZA | - Eskainitako/eskatutako lekuen kopurua<br>- Parte-hartzaileen ezaugarriak<br>- Parte-hartzaileek lagundutako garapeneko proiektuetan eraginkor parte hartzea | ⦿ | ⦿ | ⦿ | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- GGKEak<br>- Prestakuntza-erakundeak |
| 2 | Lagundutako garapenari buruzko masterretan etorkinen parte-hartzea finantzatzeko sistema (bekak edo antzekoa) bat edukitzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GARAPEN LANKIDETZARAKO ZUZENDARITZA | - Araudia<br>- Eskaeren/emakiden kopurua<br>- Eskatzaileen/esleipendunen kopurua eta ezaugarriak<br>- Laguntzaren zenbatekoa esleipendun bakoitzeko | ⦿ | ⦿ | ⦿ | |

**5. NORABIDEA:** MIGRAZIOEN ETA GARAPEN PROZESUEN ETA EAE-KO IMMIGRAZIOAREN JATORRIZKO ETA JOMUGAKO ZONEN ARTEAN LOTURA EKIMEN PRAKTIKOAK SUSTATZEA.

| | NEURRIAK | ERAKUNDE ARDURADUNA | ADIERAZLEAK | 2007 | 2008 | 2009 | LAGUNTZAILEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Immigrazioaren jatorrizko udalerriekin senidetzeko toki-erakundeek bideratutako ekimenetarako laguntza ematea, eta honako hauek sustatzea: informazio-trukea, baliabideak, ekimen sozial eta kulturalak, eta kulturarteko bizikidetza bultzatzeko sareetan parte hartzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / IMMIGRAZIO ZUZENDARITZA | - Araudia<br>- Gauzatutako ekimenen kopurua eta motak<br>- Erakunde eta eragile parte-hartzaileen kopurua eta motak<br>- Ekimenak hedatzeko ekintzak, eta lankidetzako prozesu eta produktuak | ⦿ | ⦿ | ⦿ | - EUDEL<br>- Gizarte-arloko Elkarte eta Mugimenduak<br>- Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak |
| 2 | Honako ezaugarri hauek dituzten proiektu berritzaileetarako laguntza ematea: migrazioak eta jatorrizko herrialdeetako garapen-prozesuak lotzea, eta etorkinen eta haien elkarteen eta/edo garapen-elkarteen antolakuntza-gaitasunak eraikitzeko eta sendotzeko estrategiak sortzen laguntzea. | ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA / GARAPEN LANKIDETZARAKO ZUZENDARITZA | - Araudia<br>- Lagundutako proiektuen kopurua eta motak<br>- Erakunde eta eragile parte-hartzaileen kopurua eta motak<br>- Ekimenak hedatzeko ekintzak, eta lankidetzako prozesu eta produktuak | ⦿ | ⦿ | ⦿ | - Etorkinen elkarteak eta etorkinei laguntzeko elkarteak<br>- GKKEak |

# V. Kudeaketa



# V. KUDEAKETA

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Immigrazio Zuzendaritzari dagokio Immigrazioari buruzko Euskal Planaren kudeaketa orokorra.

Planaren neurriak gauzatzeko konpromisoa hartu dute Plan horretan parte hartzen duten eragileek (sail eta erakunde autonomoak, hiru herrialdeetako Aldundiak eta EUDEL). Plana zeharkakoa denez gero, garrantzitsua da Immigrazio Zuzendaritzak bultzatutako gertuko eta segidako jarraipena egitea, betiere Planean parte hartzen duten eragile guztiekin koordinatuta.

Dokumentu honetan aurkeztutako neurrien antolamenduari eta gauzatzeari etengabeko jarraipena egin beharko zaio. Jarraipen horrek Plana aurreikusitako aurrekontuaren eta egutegiaren arabera gauzatzen ari ote den jakiteko orientazioak eman beharko ditu, baita Planaren helburuen lortze-maila adierazten diguten ebaluazioak egitekoak ere.

Aurreikusita dago Planaren jarraipenak eta ebaluazioak genero-ikuspegia oso kontuan izatea.

Plana EAEko immigrazioaren errealitate aldakorrera egokitzeko, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiari enkargatutako zenbait ikerlanen bitartez lortutako informazioa ere badu Immigrazio Zuzendaritzak. Ikerlan horiek nahitaezkoak dira esku-hartzeak immigrazio-eremura bideratzeko eta errealitatera egokitzeko.

## 1. JARRAIPENA

**Helburua**

Aurreikusitako denboran neurrien garapenari buruz behar den informazioa biltzea da jarraipenaren helburua, baita modu egokian gauzatutako aurrekontua kontuan hartzea ere, bi parametroak errealitatera egokitzeko arian-arian.

**Ezaugarriak**

Jarraipena barne-kudeaketako prozesua da, informazioa etengabe bildu eta tratatzean oinarritzen dena.

**Tresnak**

Euskarri informatizatu bat diseinatu eta Eusko Jaurlaritzaren Intranetean sartuko da, informazioa biltzeko eta Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren garapenean inplikaturik dauden sailen eta erakundeen artean informazio hori zabaltzeko.

**Aldizkakotasuna**

Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren jarraipena etengabe egingo da Planaren garapen osoan. Urtero, gutxienez, dokumentu batean bilduko dira sail, erakunde autonomo edo neurriak gauzatzen dituen entitate bakoitzak egindako ekintzak.

**Erakunde arduraduna**

Immigrazio Zuzendaritzak, horretarako izendatutako tek-nikarien bitartez, Plana egiteko inplikatuta dauden sail eta erakundeen jardunak bultzatu eta koordinatuko ditu, eta, horretaz gain, koherentzia emango die.

Planaren jarraipena egiteko Immigrazioari buruzko Sailen arteko Batzordea sortzea eta aldizkako bilerak egitea proposatuko da. Bilera horietan II. Planean inplikatutako sail guztiek parte hartzea proposatuko da. Batzorde hori bi mailatan egituratuko da: teknikoa eta politikoa. Batzorde teknikoaren barruan, lantalde baten ekintzen ardatza honako hau izango da: Planari jarraipena egitea genero-ikuspegia aintzat hartuta.

**Erakunde laguntzailea**

Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroari —bertan, euskal administrazio publikoak (Jaurlaritza, Aldundiak, Udalak) eta sozietate zibila daude ordezkatuta— aldizka-aldizka jakinaraziko zaizkio Plana gauzatzeari dagokionez egin diren aurrerapenak; era berean, Foroak bere ekarpenekin behar diren egokitzapenak egiten lagundu ahal izango du, kontsulta-organo gisa dituen eginkizunak gauzatuz.

## 2. EBALUAZIOA

**Helburua**

Ebaluazioaren helburua honako hau da: Planaren jarduerek eragindako prozesuak eta emaitzak ulertzeko behar den informazioa biltzea, Planaren helburuak lortu ote diren balioestea eta Plana hobetzeko behar diren gomendioak ematea.

**Ezaugarriak**

Ebaluazioa honako irizpide hauen arabera egingo da: arrazionaltasuna, koherentzia (barnekoa eta kanpokoa), eraginkortasuna, efikazia eta eragina.

**Aldizkakotasuna eta arduradunak**

II. Planaren garapena urtero ebaluatuko dute Immigrazio Zuzendaritzako teknikariek, hartarako behar diren laguntzak izanik.

Horrez gain, II. Planaren indarraldia amaitutakoan, hau da, 2009. urtean, azken ebaluazioa egingo da; ebaluazio hori mistoa izango da (kanpoko eta barneko langileekin).

**Erakunde laguntzailea**

Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroak Immigrazioari buruzko Euskal Planaren ebaluazioan parte hartzeko aukera izango du, ebaluazioa ahalik eta osoena izan dadin behar diren ekarpenak eginez, betiere aholku-organoa den aldetik dagozkion eginkizunen barnean.

**Metodologia**

Urtero, aldez aurretik Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroak dagokion txostena aurkeztuta, amaitutako ekitaldiko jarraipen-txostenak eta ebaluazio-txostena aurkeztuko dizkio Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuari.

Azken txosten horretan, dagokion ekitaldian Planak izandako betetze-mailari buruzko balioespena bilduko da, baita garatutako ekintzen kopurua, helburuen lorpenari buruzko ebaluazio kualitatiboa eta Jaurlaritzaren beste Plan batzuekin duen koordinazioa ere.